

**a u r k i b i d e a**


---

<i>Zenbaki bonetan</i> .....	3
<b>Marxen gaurkotasuna</b>	
AZURMENDI, J.: Honela aurkitu zen marxismoa .....	6
BELTZA: Marx eta Iraultza .....	26
APALATEGI, J.: Marxismoaren sisteman nazioarentzat tokirik bai ote? .....	49
SANTAMARIA, K.: Marx eta giza pertsonaren problematika .....	75
ASKOREN ARTEAN: Marxismoaz mahaingurua .....	94

---

**Orain eta Hemen**

Julio Cortázar — Noiz arte iraungo dugu euskararen burrukan? — Gregor Mendel (1822-1884): Genetikaren jaiotza — «Hom- bres cultos de toda España, SOCORRO!» .....	113
---	-----

---

**Gaiak**

SIADeco: Euskararen erabilpena .....	121
--------------------------------------	-----

---

**Liburuak**

TORREALDAI, J. M.: 1983ko euskal liburugintza .....	145
---	-----

---

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez  
inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria.

**JAKIN**

aldizkari irekia da eta  
ez dator nahitaez  
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaritza:**

joan mari torrealdei  
l. a. bilbao (kazetaria)

**Idazkaritza eta administrazioa:**

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.  
Donostia - 13. Tel. (943) 27 17 13

**1984erako prezioak :**

	barruan	kanpoan
ale arrunta	500 pta.	600 pta. (25 FF)
ale bikoitza	700 pta.	800 pta (45 FF)
ale extra	1.000 pta.	1.200 pta. (70 FF)
harpidetza	1.500 pta.	1.700 pta. (95 FF)

# ZENBAKI HONETAN

---

*Hona eskutan bigarren aldiko 30. zenbakia, aurtengo lehena.*

*Zenbaki mamitsu eta interesgarria eskaintzen dizugulakoan gaude, irakurle. Pentsaera eta informazioa, bietatik duzu ugari zenbaki honetan.*

*Gaurko dossierraren gaia ideologikoa da: Marxen gaurkotasuna. Hiru ikuspuntutatik aztertzen da hemen Marx eta marxismoa: iraultzaren, nazioaren eta giza pertsonaren aldetatik. Erdiko hiru artikulua eta ma-haingurua, Donostiako Zuzenbide Fakultateak, Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntzaz, iazko apirilean antolatu zituen jendaurreko emanaldiak dira bere jatorrian. Sarrera bat erantsi nahi izan diogu guk arazoari, euskal abertzalegoak marxismoa noiz eta nola aurkitu zuen gogoratzeko/erakusteko. Marxen heriotzaren mendeurrena ospatzera berandutxo bagoz, gure borondatearen aurkako arrazoiengatik gertatu da hori, ezin izan dugu materialak garaiz eskuratu eta. Lanen interesak atzerapena barkagarri egingo al digu!*

*Orain eta Hemen sailean beste bi hildako ekartzen ditugu gogora batipat, zein baino zein sonatuagoak biak: Gregor Mendel bere mendeurrenean eta Julio Cortázar bere heriotza gertatuberrian.*

*Gaiak sailean Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz Siadeco-k egindako azterketa soziolinguistikorekin laburpena ematen dugu. Iazko lehen zenbakian beste eta bestelako azterketa soziolinguistikoko bat atera genuen. Oraingo hau Gipuzkoara mugatzen da eta horko erabilpena aztertzerat. Orain arteko lanetan (biztanleen zentsua, inkestak, etc.) jen-*

*dearen erantzunak jaso izan dira. Hemen, jendeak esandakoa bagerik, jendearen jokaera eta konportamendu errealak jaso nahi ditu Siadeco-k. Honetantxe datza lan honen berezitasuna eta interesa.*

*Eta Liburuak sailarekin ixten dugu aldizkaria. Sail honek urteroko lehen zenbakiko tradizioari eusten dio: iazko liburuen azterketa, gai-sailkapena eta fitxa bibliografikoa ematen dizkigu Joan Mari Torrealdaik.*



J. Azurmendi  
Beltza  
J. Apalategi  
K. Santamaria  
Mahaingurua

## MARXEN GAURKOTASUNA

### **Honela aurkitu zen marxismoa**

ETAren sorrerako urteak. Marxismo nahasi bat. 1. Biltzarra, 1962. 1963, Vasconia. «Askatasun osoaren» borroka, 1964. Orain 20 urte.

### **Marx eta iraultza**

Amodiozko eta gorrotozko historia. Marxen pentsaera. Marxismoaren anbiguotasunak. Marxen autoritarismoa. Iraultza ezberdinak

### **Marxismoaren sisteman nazioarentzat tokirik bai ote?**

Marxismoa, zer da? Klaseak. Produkzio moldeak. Sozial formazioa. Materialismo historikoa. Egitura. Nazioari buruzkoak.

### **Marx eta giza pertsonaren problematika**

Gizaki kolektiboa, gizaki banakoa. Gizakia eta animalia. Giza kontzientzia. Alienazioa. Gizakia: «erlazio sozialen osotasuna». Marx pertsonalista ote?

### **Marxismoaz mahaingurua**

## Honela aurkitu zen marxismoa

Joxe Azurmendi

*Lerro hauek ez dute historia zehatzik izan nahi, egiteko dago, soil-soil ohar orokor batzu baizik, sarrera gisa. 1962-1965 epea bakarrik begiratuko dugu.*

*60. urteetako erdi aldera egin zuen «marxismoak» lehenengo agerpena gure artean. 1970 joko dio, teorikoki heldutasun erlatibo bat eta sozialki pisuren bat hartzeko. Egon, aspaldiagotik zegoen, Alderdi Komunistarekin esate baterako. Baina gerraosteko belau-naldiek ez dute handik hartu beren marxismoa eta hemen ez dugu aintzakotzat hartuko.*

*Fenomeno sozial gisa behintzat, marxismoaren gorabeherak Euskal Herrian ETArekin oso loturik ibili dira: hainbat ETaren historia idatzi denez gero, liburu eta artikulutan, alderdi horretan sakondu beharrik ez daukagu. Historia horrexen inguruan ibili beharko dugu, halere. Aldiak bereiziz errazago izango zaigu eboluzio-prozesuari jarraitzea.*

*Kakotx artean idatzi dut «marxismoa»: delako marxismo horrek balorapen desberdinak ametitzen dituelako, eta hemen ez duelako eztabaida horietan sartzeak merezi. Bukaeran ohartxoren bat egitea aski izango da.*

## 1. ETaren sorrerako urteak

1959an sortu zen ETA, Cuban Fidel Castro nagusitzen zen urte be-  
rean. Pentsamenduaren eta ekintz planteamenduen eboluzio azkarra  
izango du ondorengo urteetan, Biltzar Nagusiek erakusten dutenez. Ho-  
na hemen lehenengo lau Biltzarren datak: sorreratik hiru urtetara I. Bil-  
tzarra, 1962; gero, urtero, II. Biltzerra, 1963; III. Biltzerra, 1964; IV. Bil-  
tzarra, 1965.

1962an egin da Printzipioen lehenengo deklarazioa. Beraz,  
1959–1962 bitartea formazio–aldi bat izan da, pentsamenduaren nahiz  
organizazioaren aldetik, eta Biltzarrerik ez da egin, h.d., ETAn ez da ino-  
lako pentsamendu «ofizialtasunik» egon.

1962 aurreko aldiaz, doi–doi egin daiteke, gure gaian, konjekturak  
besterik, iturri idatziez baliatuz. Iturriogatik da hori. Formaziorako koa-  
dernoak eta orduko beste idazkiak, izan ere, libururen baten edo batzu-  
ren fusilaketa hutsak izan ohi zirela aparte (orain ere edozein estudian-  
tek egiten dituen modukoak), ez ETako jendeak eta ez haientzat soilik  
eginak izaten ziren beti, nahiz ETako jendeak erabili eta zabaldu. Hasie-  
ra batean, 1952tik 1962raino nahi bada, ez zegoen batere garbi ETA zer  
izango zen. Gero ere ETAK beti azpimarratuko du, mugimendu bat dela,  
ez Alderdi bat. ETA zelako hartan, edo inguruan (gaur honela esan be-  
har), jende oso desberdina ibil zitekeen: geroagoko Etxarrak, PNVtik hur-  
bilago egon zitezkeenak, seminaristak, eliz mugimenduetako gazteak,  
politikoki kezkatuak, euskarak larritzenago zituena, folklorezaleak ere  
bai (txistua ere problema zen). Lagunarteotan ikerketa historikoak, poli-  
tikoak, linguistikoak, literarioak, sozialak, asko egiten ziren, baina iker-  
keta–asmoz bakarrik, bilaketa gisa, talde–pentsamenduren bat mamitze-  
ko baino gehiago. Gogora bedi frankismoaren pean gazteriak ez zeukala  
inolako modurik bestela, euskal historia, literatura, etab. ezagutzeko.  
ETaren historia bat idatzi nahi denean, haren pentsamendua ikertzera-  
koan bereberki, hori gogoan ez izatea, hutsegite metodologiko haundi-  
txoa da. Alferrik da definiziorik ez dagoen tokian definizioak bilatzea.

Gero, letra idatziaren sakralismoan erori nahi ez badugu, bereizi be-  
harra dago ideia batzu zein formulaziorakin agertzen diren eta zein dina-  
mikatan dauden. ETaren hasieretako antimarxismoa aipatu izan da.  
Egia da, segun eta nola behintzat. Baina zeri esaten zaio antimarxismoa,  
borrokatzen den «marxismoa» zer den azaltzen ez badugu? Marxismoa,  
orduan, gazte haien problemarik ez zen oraindik, faxismoaren presioak  
eta euskal gizarteko tradizio demokrata–kristauek eragiten zuten neu-  
rrian ez bada behintzat (abertzaletasunak, alde batetik, eta kristau inspi-  
razioko doktrina sozialek, bestetik). Marxismoarekin zuzen–zuzenean  
oraindik ez zen gazteria hau aurkitu. Faxismoaren antikomunismoa, za-  
lantza gabe, arrazoï bat zen komunismoaren alde, baina informaziorik ez

*zen, zinez marxismoa ezagutu ahal izateko. Zeharkako informazio-bide bat, ia bakarra, doktrina sozial kristaua zen. Eta, ikusi ere, ondo ikusten da, lehenengo urteotako ETAn arazo sozialari egiten zaion planteamendua, formulazioari bagagozkio (ez, abisatzen duen dinamikari), doktrina horri zor zaiola. I. Biltzarreko (1962) Printzipioen deklarazioak honelaxe aurkezten zuen arazo soziala:*

ETA'k, sozialari buruz, ondorengo puntu auek ditu bere:

Etokizuneko Euskal Ekonomian amaia eman bear zaio Liberal-Ekonomiari. Azalezkoa gertatzen da Demokrazia, Agiriko Politika utsaren maillan gelditzen baldin ba da, Ekonomiaren arazoetan sakon legetu gabe.

Jabegoaren eskubidea birrikusi eta aldatu egin behar da, Legeak Jabegoaren sozial-aldea agerrerazi eta zaindu bear du bereziki: industrian, nekazaritzan, arrantzan, eta gainherako ekonomi-bazterretan.

Sozializatu egin bear dira oñarrizko ondasun-iturriak eta Aberri aberastasunak. Indartu egingo dira kooperatibak, bear diran laguntzak eskeinita.

Erriaren agindupean eraendu eta planifikatuko da Euzkadi'ren Ekonomia. Ots: Sindikato, Fabriketako Batzorde, Eskualdeetako Elkargo eta Udaletxeek aurrean. Klasetako interesak ez dute ez lekurik ez laguntzarik aurkituko Euskadiko Ekonomian.

Lanaren eta Kapitalaren arteko gora-beheretan ETA'ren irizpidea auxe da: Lanari lehentasuna.

Lantegietako edozein maillatan beti izango dira bi alderdiak ondo izendatuak: Lana eta Kapitala. (Berdin da au ororena izan, ala partikularra). Zuzentzearen eginkizunetan eta irabazien zatitzean, batak eta besteak izango dute dagokien parte.

Etekiñak eta ondoriotasunak mugatu egin bear dira, segidako zerga-kateak sortuz.

Asurantzak zuzenak eta prestuak sortuko dira. Ortarako, aitaizunkeriaren xede izkutuai ez, baiñan gizatasunari berez zor zaion itzalari geiago so-egitiñik.

Ekonomi errikoia ezagugarrikerik eta zurkaitzik sendoena Sindikatua dan ezkerero, arras begiratuko ditu Legeak onen eskubideak.

Gizarte-Zuzentasunaren oñarririk zindoena kultura erriaren eskuetan jartzea da. Ortaz, edozein euskaldun biztanlek (nungotarra danez arduratu gabe) jakintza maillarik gorena iristeko aukera egiazkoa izango du, ortarako dohaiñak falta ez ba zaizkio.

*Liberalismoaren gaitzespenetik hasi, eta kooperatiben aipura eta kulturaren edo hezkuntzaren inportantziaraino, pentsamendu honen iturburu arruntak (printzipioen deklarazio bat da, ez programa zehatz bat) erraz asmatzen dira. Aski izango da, urrunago gabe, 1956ko Euskal Batzar Orokorra Parisen gogoratzea. Eta, urrunago nahiz gero, gerra aurreko propaganda sozial kristauera jo daiteke. Ez du oso bestela arrazonatu, urte horietantxe, Arizmendiarrrieta batek Arrasaten.*

*Baina zeri begiratzen zion definizio honek?*



*ETA bera, bai, bere lekua*ren definizio—bila zebilen. *Eta abertzaleta-*sunaren barrutia zen, lehenik non zeukan bere lekua definitu beharra. Horrek inposatzen zituen lehenengo beharrak. Ez dezagun ahanz, aurreneko Biltzar honen lehen—lehenengo eginkizuna ETAre lehen definizio publiko eta ofiziala ematea zela. *Eta horretarako, ETA nondik nora* sortu zen begiratu eta aisa uler daitekeenez, marxismoaren premiarik ez zen sentitzen oraindik. *Alegia, definizioak alde baterantz bakarrik* begiratzen eta mugatzen zuen, PNVren abertzaletasunerantz: harekiko diferentziak seinalatzen zituen. Sozialistekiko edo komunistekiko bere mugak eta posizioa definitu beharra geroxeago sortuko da ETAn.

## 2. Marxismo nahasi bat

*Bestalde marxismoa bera sekulako katramila artean zebilen* (desestalinizazioa, Txina—URSS arteko iskanbilak). Marxismoak ez zituen eza-gutzen geroxeago aurkitu dituen erlatibapenak, komunisten eta kristauen arteko elkarrizketetatik hasi, Garaudy—Althusser oposiziotik eta 68ko maiatzetik pasa, eta gaurko marxismo desberdinetaraino. Marxismoak oraindik bat—bat egiten zuen Soviet Batasunarekin eta Alderdi Komunistekin.

ETAko jendeak bere egiazko kezketatik urrun, edo behintzat bere mugimendutik kanpora, sumatzen zuen marxismo hari, dogmakoikeria salatzen zion (erlijio berri bat bihurtu izana), diktadura izatea batez ere. Lehenengo ETAk faxismoa eta komunismoa ez zituela bereizten esatea, ordea, perspektiba historikorik gabe ibiltzea da. Ez bait da ahaztu behar, urte horiek, Soviet Batasunean bertan, Stalinen akusazio gogorren urteak zirela, desestalinizazio—garaia alegia (1961ean Stalinen gorpua Leninen mausoleotik erretiratzea erabaki zuen XXII. Kongresuak). Komunistentzat beraientzat arazo biziki larria, larriena, zera zen orduan: marxismo ez stalinista bat nola zen posible. XX. Kongresuaz gero onartua bait zegoen, marxismoaren molde stalinista degenerazio bat izan zela.

Istiluokin Europako intelektual ezkertiar gehienak aztoratuta geratu ziren, Stalinen akusazioetan intelektualok ere harrapatuta aurkitzen zirenez gero, lehenago isilik egon zirelako, isiltasun haren arrazoirik ezin emanda orain. Sovietarrek lehenago protestatu ezaren arrazoi sendo bat zeukaten: terrorea. Hainbeste deportazio eta garbiketaren aurrean zergatik isildu ziren, ordea, mendebaldeko intelektual ezkertiarak? Desestalinizazioak konplize bezala uzten zituen.

Stalinismoaren arrazoiak argitzeari ekin behar izan zitzaion. Besteak beste, doktrinan bertan stalinismoa posible egiten zuten puntuak bilatzen bait ziren, laster salatu zen haren sistema dogmakoi bilakatu izana,

errebeldazio baten pareko. Europako intelektualen mugimenduari jarraiki, marxismoaren berpentsaketa kritiko honetan enplegatu den bat, urteotan, Txillardegik da hain zuzen (ETAren paperak ez-ezik, hango jendearen urte haietako produkzio literarioa ere ikusi beharra dago). Txillardegik, existentzialistez baliatuz (Kierkegaard, Unamuno, Sartre), filosofian gero mila aldiz entzun dugun zerbait egozten dio marxismoari: ekonomizismoa, pertsonaren filosofia murriztegia. Ikus Huntaz eta Hartaz. «Soziologiari buruz, eta kondairari buruz ere, produzioaren gora-beherek anitz gerra, istillu eta mugimendu azaltzen dute. Egia da. Baina pertsonari buruz, nik uste, ez dute gauza haundirik azaltzen» (1962). Giroaren adierazgarri, Olaberriaren artikulua ere ikus daiteke, «URSS'ko kultura soka-tiran», Jakin 5, 1961, 7-11.

Existentzialismoaren gora-urteak ziren haiek, bera zen European modako eskola filosofian, literaturan, zineman (azken hau indar sozial berritza bilakatua dago orduantxe), bere askatasun-ideiekin frankismoaren zentsura eta itxitura artetik sartu eta influentzia lortu zuena, gainera. Esanahi haundia zuen, errebelatu berriak ziren gazte haien zat. Leturieren egunkari ezkutua edo Peru Leartzakoa aztertu beharko genituzke hemen, lekuri ez bait dago. Gogora dezagun, gutxienez, Sartrerengatik ez bait luke inork «antimarxista» edo «antikomunista» zela beste gabe esan-go, gazte ekintzaleen artean arrakasta biziko Existentzialismoa humanismoa da eta Esku zikinak-en egile honek, Merleau-Ponty-rekin, etab., eztabaidan urteak ibili ondoren marxismoari buruz, justu 1960an atara zuela bere Arrazoi dialektikoaren kritika. Horiek ahaztuz ere ezin egin daiteke ETAren pentsamenduaren historia bat.

Sartreren inportantzia ez zetzan, abertzale errebelatuontzat, haren filosofian bakarrik. Algeriako gerran, beste intelektual gehienek eta komunistek berek ez bezala, Sartrek argi eta garbi inperialismo frantsesaren aurka jokatzeko zuen. Berdin, Fidelen iraultza apoiatzen zuen, ortodoxiaren mizkinkeriari gabe, 1961ean bidaia sonatu bat eginez Cubara. Sartrek, historiaren filosofia funtsean materialismo dialektikoan inspiratu bat jarraitu arren, iraultzaren kontzeptu libreago bat defendatzen zuen. Batez ere, pertsona bakoitzaren askatasuna ezin ezer bestetara erduzitu aitoritzen duen eran filosofian, askatasun borroka modu bakoitzaren autonomia, sistema alde aurretik egin batera erduzitu ezina defendatuko du politikan. Jarrera honengatik, maiz aurkituko da ortodoxia marxistari kontrajarririk, komunistek zapuztuz egiten dioten edozein borrokari laguntzeko prest, marxismoaren dogmakoikeria salatzen. Sartre eta Burgosko auzia gogora genitzake.

Txillardegik, esan dugunez, pertsonaren filosofi falta egozten zion marxismoari. Kasik ohizkoa zen, orduan, eta ezin esan genezake kritika

originala zenik, Txillardegirentzat, haren trajektorian gero ikusiko denez, esanahi pertsonal haundikoa izan arren. Baina Txillardegik, Sartreren oso antzera horretan ere, urrats bat gehiago ematen zuen: pertsonari bezala, komunitate-zentzuarri ere marxismoak ez diola erantzunik ematen. Honekin nazio-arazoan sartzen gaituzu. Pertsonaren filosofia murriztegiaren kritikarekin lotuta dago, ETAn erabiliko den marxismoaren beste kritika hau: giza komunitateen filosofia murriztegia, are filosofi falta. Puntu honetan marxismoaren arazoa jadanik ez zen, ETako gazteentzat, «estudiatzen» den urrango zerbait, budismoa edo presokratikoak izan litezkeen moduan, ezpada etxe-etxeko buruhaustea eta borroka bihurtzen zen. Marxismoaren «jabe» ofizialek (monopolio hori hautsi gabe zegoela, gogarazten dut berriro, eta errealtatean jabe ofizial haiek zirela, zeintzuengatik bait zen oraindik marxismoa sozialki definitzen) hemen zera-biltzaien planteamenduak nazio-arazoan, onartu ezinezkoak egiten zitzaizkion ETari. Orduko paper batean irakur dezakezunez, «la problemática del marxismo es a-nacional, al margen de las naciones étnicas. Así Marx (y todos los P.C.) propugnan la lucha dentro de los actuales Estados: con espíritu internacionalista en teoría, es cierto; pero reforzando los genocidios de la actual situación, en realidad. Así el P.C. español y su apéndice vasco actúan ante todo, no como internacionalistas, sino como españoles».

Labur-bilduz: ETA giro (nazional eta internazional) jakin batean sortu zen. Giro honetan marxismoari pertsonaren ez ulertzea leporatzen zitzaion Europako ezkerretan; dogmakoikeria doktrinan, gizartearen antolaera diktatoriala politikan (eta Franco azpian «demokraziak» beste esanahi diktiratsuaigo bat zeukan orain baino). Kritika horiei ETak nazioaren ez ulertzea gaineratuko dio. Hasia dago bereizkuntza egitea, Marx alde batetik eta Soviet Batasuna bestetik (edo marxismoa eta Alderdi Komunistak); baina oraindik praktikan ondoriorik ez dakarren bereizkuntza teorikoa da. European bertan geroxeago hasiko dira ondorioak sozialki agertzen, batez ere Khrustxoven politikari Txinak eta Albaniak muzin egin ziotenetik aurrera (Albaniak eta Soviet Batasunak 1961ean eten zituzten harreman diplomatikoak). Hauxe izan da sorrerako ETAn aintzakotzat hartu ez zen edo guztiz kritikoki begiratzen zen marxismoa. Belaunaldi gazteago batek, istiluok ahaztuta, barne-askatasun askoz haundiagoz hartuko du marxismoa urteren batzu geroago. Eta kuriozosa da, nola hasierako puntu haietara itzuliak dirudigun berriro: pertsona eta komunitatea ulertzeko marxismoaren zailtasunetara.

Pertsonalismoa, alde batetik, eta existentzialismoa, bestetik, Sartre bereziki, izan dira eragin haundieneko bi pentsamendu-eskolak ETaren sorrera inguruan. Biok dira oso kritikokoak marxismoarekiko, baina ez «anti» soilak.

### 3. I. Biltzarra, 1962

*Ez da berdín 1962 aurretik eta ondotik. ETAk badauka definizio bat (nahiz behin-behinekotxo izan).*

*Hasieretako ETAk, hasieretako gazte-multzo hark alegia, nahitaez topo egin behar zuen marxismoarekin bere bidean: ETAk (1) iraultza egin nahi zuen, (2) eta Algeria, Txina eta Cubako iraultzen eredueta begiratzan zuen horretarako; (3) kapitalaren aldean lanaren lehentasun soziala aitortzen zuen, (4) eta egonezin sozial haundiko urteak nola ziren, langileriaren protesta-mugimenduetan lanaren alde sartzean, berehalaxe aurkitu behar zuen marxismoaren praxiarekin eremu horretan. Ikusi eta ikasi beharrean, lehenengo; konkurrentziari buru egin beharrean, gero.*

*1961ean egin dira ETAREN lehenengo ekintza armatuak. 62an I. Biltzarra. Printzipioen deklarazioan lanaren lehentasuna kapitalarekiko aitortzen da, kapitalismoari orokorki uko egiten zaio, beraz (printzipio hauek gorago transkribatu dira). Oraindik urrun gaude marxismotik, baina klase-borrokaren errealitatea aitortzen da jadanik, hasiak dira abertzaletasun burgesaren salaketak ere: «patriotismo katangués», esango du Txillardegik, 1961eko urriko bere hitzaldian Pariseko Euskal Etxean. Katanga Kongoko herrialde bat zen, meatze haundien eskualdea, Kongo askatu zenean, Europako interes neokolonialisten tropa mertzeneriek 1960an independente jarri zutena, Estatu sezesionistaren buru Tshombé txotxongiloa ezarritz. Ahaztuak ote daude kontu haiek?... «Sin medio de defensa alguno, ikusiko du Txillardegik halaber euskal langileria hitzaldi horretan bertan, sometido por un lado a un falso sindicato estatal, por el otro a la codicia desatada de los capitalistas». «Yo (...) creo firmemente que Euzkadi no es la Patria de una sola clase: es más: Euzkadi en manos de una clase no despierta mis entusiasmos, y comprendo que no los despierte en los que pertenecen a la clase dominada».*

*Abertzaletasunaren klase-educina ikusia dago. Hasieratik bertatik eginga dago aukera ere langile-klasearen alde.*

*ETAREN Printzipioen deklarazioan, bestela berritasun haundirik eskaintzen ez bada ere (arazo sozialean), atentzio ematen duen bi puntu dago: (1) Lehen-lehenengo esaldia da bat: «ETA Euskal Erakundeak bi elburu edo xede nagusi artu ditu...: Aberriaren Azkatzea, eta Erriaren beraren Azkatzea» (Printzipioen euskarazko testuan hobeto dago hau aditzera emanda, erdarazkoan baino). (2) Bestea Euskadiren askatasuna ez helburu, baina medio bezala ulertzea da: «Euskadiren Askatasuna ez da, ETAREN iritiz, erakundearen betekizunik gorena. Bai, alabaina, premia-tsunea; Euskal Erria alde guztietatik aurrerazteko eta sendotzeko zinezko bide bakarra». Cubarena ezezik, Katangaren lezioa ere gertu zegoen.*

Oraingoz, esaten dena baino esanahitsuago da, nora apuntatzen den. Printzipioetan asmo bat adierazten da, gogo bat, esperientzia bat baino gehiago. Ez bakarrik ETAk berak oraindik esperientzia sozialik doi-doi zuelako, baizik eta gizartean ere mugimendu sozialik apenas zegoelako, haren esperientziarik isladatzeko. Talde txiki eta hertsu bat zen artean, ETAk ezin jakin zezakeen, asmo hauek berehalaxe noraino eramango zuten, hartutako bidearen dinamikaren poderioan. Baina halaxe izango zen.

ETA, izan ere, langile-erakunde sindikalik gabeko gizarte batean sortu zen, h.d., langileriaren mugimendu organizaturik gabeko gizartean. Deskontentu handia zegoen langilerian, baina deskontentuak ez zeukan organizaziorik. 61ean hasi ziren sindikatu klandestinoak zerbait mugitzen, hurrengo urtean beren arteko elkartasun modu bat sortzeko (ASO, Alianza Sindical Obrera). Halere, urteotan egiaz indartuko direnak Langile Komisioak izango dira eta haien barruan ibiliko da ETA. Esan bezala, bada, 62an ETako lehen taldeak beren baitatik kanporantz irekitzen direnean, bete-betean langileriarekin aurkitzen dira. 61-62 greba gogorren urteak izango dira. ETA, diktadura frankista eta Euskadiren zapalketa borrokatzen zituena, kapitalismoa garbi-garbi etsaitzat ezagutzera iristen da esperientzia honetan. Zaila da esatea, ezagupen honek nolako hedadura edo sakona zukeen mementuan. Baina urrats haundi bat eman da. Abertzale klasiko asko burgesizat joko da honez gero: «los sectores reaccionarios del nacionalismo vasco que... por su filiación burguesa, se oponen a la acción de los trabajadores», etab.; «abertzaletasuna ondo zegoen (eman dezagun) burges-euskaldunentzat. Euskaldun langilleentzat utsa zan» (Txillardegi).

Honez gero langileen protagonismoa aitortu daiteke abertzaletasun berrian: «creemos ciegame en la preponderancia de los trabajadores, porque somos un pueblo que trabaja y porque nuestro modo de ser no admitiría en su libre desarrollo fórmulas de opresión social». Urtebete baino gutxiagoan Printzipioetako antiliberalismo arrunt hartatik klase-posizio garbietara heldu da. Ez da beste urterik pasako, honelaxe aurkituko bait ditugu formulatuta ETaren historian konstanteak diren bi elementu haiek («Aberriaren Azkatzea, eta Erriaren beraren Azkatzea»): «Nuestro movimiento patriótico ha puesto al descubierto nuestra firme determinación de luchar en un doble frente: el de la liberación nacional de Euzkadi y el de la liberación social de los vascos frente a la opresión capitalista». Hasieratik bertatik dauzkagun ETaren kontzientziako bi oinarrizko xedeak, berean irauenez, mamituz doaz.

Baina marxismoaz hitzegiterik ez dago oraindik ETaren baitan. Barrera gogar bat eratsi beharko da lehenago.

1962 urte honetan ETako jendea marxismoa estudiatzen hasiko da

halere. Koaderno batzu ere aterako dira gai honi buruz. Baina marxismoaren dogmakoikeria, erlijioarekiko intolerantzia eta, batez ere, nazio-arazoarekiko itxitasuna, gaindiezinezko eragozpenak izango dira. Ez dago abertzale eta marxista izateko modurik, ez. Marxisten organizazio-teknikak oso interesgarriak aurkitzen diren bezala, filosofia, euskal historiako zenbait fenomeno explikatzeke argigarri dela aitortuz ere, onartu ezinezkotzat ematen da oro har: dogmakoia da, erlijio berri bat; ez dio pertsonari behar adina begiratzeko, naziotasuna ez du aintzakotzat hartzen. (Ikus hemen ere, sintoma gisa, J.M. Regillaga, «Gidariak sortzeko metodo komunistak», Jakin 16, 1964, 23-28. Aldizkari hau 61etik zenbaki honetara arte debekaturik egon zen).

ETAren I. Biltzarraren urtea, 1962, Algeriaren independentzi urtea da orobat (geroxeago Enbata-ren sortzaile batzu Algeriako gerran ibiliak izango dira). Algeriari begira, borrokan murgildurik dabiltzanak erraz aurkituko dute Euskadiren tankera koloniala.

#### 4. 1963, Vasconia

1963ko abuztuan Krutwigen Vasconia agertu zen, «estudio dialéctico de una nacionalidad». Arrazoi ugari bezain desberdinengatik, argitalpen honek ikaragarritzko zirrara eragin zuen euskal gizartean, ez ETAn bakarrik (Gabriel Aresti, liburu irakurri eta, bere entusiasmoan, Bilbotik Arantzazuraino etorri zen liburuarekin eskuetan; biraketa sakon bat eragingo zion bere jarreretan).

Liburuak praktikatzen zuen erabateko kritizismoagatik batez ere, inoren lotsarik gabe, euskal kulturako tradizio txo bareetan sekulako berritasuna eta eskandalua sortzen zuen. Ikus bedi segituan Un caballo de Troya, M. Robles-Arangitzen errepika (presaka egindako liburutto hau 1964 urtearen hasieran agertu zen, lehenago ezinik).

«Jamás aceptaron los vizcainos, idazten zuen Krutwigek, diferencias de la población vizcaina en clases... La propiedad de Vizcaya era de todos, de todos era la patria y de todos era la tierra». Euskadi libreak berrito komuna igualitarioen federazioa izan beharko du, «y en ellas se deberá llegar a la más completa realización del precepto vasco de todo será de todos y nada será de nadie».

Liburu bitxi hau ezin esan daiteke zinez marxista denik. Berez, euskal «igualitarismoa»ren tesia bera zaharra zen eta tradizionala. Baina, oso inportantea, komunismoa berdin Soviet Batasuna (stalinismoa), edo marxismoa berdin Alderdi Komunistak (Espainiakoa bereberki), ordura arteko axioma tinkoa apurtzen zuen. Aurretiazko sine qua non bat zen hori, ETako abertzale gazteek eta euskal gizarteak marxismoarekiko beste jarrera batzu desarroilatu ahal izateko (berdintasun horiek ez bait zi-

ren ETArenek bakarrik, aurren-aurrenik Alderdi Komunistenak beraie-  
nak baino). Seguru asko Krutwigen liburuaren ekarkinik ondoriotsuena,  
positiboki irakasten zuena baino gehiago, hautsi zuen hori izan da. Bat-  
-batean barrera mental hori birrindu zuen. Euskal komunismo jator bat  
posible zela, euskal arazoaren planteamendu komunista bat egin zitekee-  
la, pentsabidea irekitzen zuen. Komunismoak lekuan lekuko formula be-  
har zuelako (Krutwigez Lefèbvrez, etab., baliatuz erakusten zuenez), eta  
Euskal Herriak bere tradizio komunista propioa bazuelako. Euskal He-  
rriak ez zeukan bere komunismoa antolatzeko beste inondik zer kopiatu,  
Soviet Batasunetik inongo gutxienean. Aski zen geure tradizio jatorrei atxe-  
kitzea. «Quien dice vasco dice comunista, pero nunca estaliniano. Esto  
es un tipo ruso», etab. «Marx ezkertarra zan (...), ager zezakeen honez ge-  
ro Txillardegik; baina Errusiako gaurko komunixtarik gehienak kontser-  
badore hutsak dira». Dogmakoikeriaren objekzioak, etab., kolpe batekin  
baztertuta geratzen ziren. Euskal Herriak Marxen bere irakurketa abia  
zezakeen.

Egin ere Krutwigen liburuak marxismoaren usadio haundia egiten  
zuen, zuzen hala zehar beti gizartearen eta historiaren azterketarako  
zientzia modernoa eta egokia bera zela goralduz. Azkenerako, Euskadik  
ez duela irtenbiderik, adierazten zuen, marxismoarekin ez bada. Krutwi-  
gek egiten duen marxismoaren erabilerak, noski, ez ditu denak konben-  
tzituko.

Alde bitatik iristen gara Krutwigen liburuan marxismora: arazo so-  
zialarenetik eta gerrilarenetik (hemen ez daukagu berebiziko inportan-  
tzia izango duen gerrila edo «gudu iraultzailea»ren alderdia azaltzen ge-  
ratzerik). Krutwigen planteamenduko alderdi biotan erraz ikusten da  
Euskadi askatu eta herria askatu bikotearen jarraipena. Alderdi biok lot-  
tzea izango da, hain zuzen, urteotako ETArek buruhauste zailena: borro-  
ka nazionala eta iraultza soziala bat egitea. Puntu bihurri honetan ere  
(gogoan izan, gerora ETArek eten denak hortik sortuko direla) Krutwigez  
bere soluzioa zekarren. Hobeki, hirugarren munduko nazio askatasun  
mugimenduetan aurkitzen zuen sintesia: iraultza nazional, sozial eta he-  
rritarra une berean. Eredu «hirugarren mundutiar» honi lotuz, nahikoa  
ongi josten ziren ordura arte bereiz zebiltzan elementu sakabanatu de-  
nak: nazio-askatasunerako borroka eta klase-borroka, euskal tradizio  
zaharrak eta antikapitalismoa.

Vasconia ez da ETArekin identifikatu behar. Bai prentsa frankistak  
eta bai PNVk laster ekin dioten kanpainaren aurrean, «el PNV sabe que  
Vasconia ni es tabú ni es biblia para nosotros... Vasconia no nos gusta»,  
deklaratu beharrean aurkituko da ETA. Baina bai, organizazioari ofizial-  
ki gustatzerik ez badauka ere, militantziari gustatu egiten zaio. Eta ez da-  
go dudarik, lehen PNVri abertzaletasun radikalago batetik buru egiten

*bazion, Vasconia—z gero, ezkertiar «españolistei» beraiak baino posizio ezkertiarago eta iraultzaileago batetik erasotzeko gauza sentituko dela ETA. Abertzaleak (PNV) baino abertzaleago, ezkertiarak (PC) baino ezkertiarago.*

No supervaloramos lo nacional en detrimento de lo social. No defenderemos nunca para un Mito-Estado nada que vaya en contra de los derechos de la persona humana vasca. Las reivindicaciones sociales las hacemos nuestras. Pero no las vemos como un mundo aparte. Proclamamos que la defensa de la persona frente a la explotación capitalista (tecnocrática gubernamental) es un quehacer primario e inaplazable. Pero no creemos en la liberación social «pura».

Esta, en realidad, no es sino la defensa de los derechos del obrero considerado español o francés, es decir, admitiendo el hecho del genocidio en Euskadi. Esta asimetría en las reivindicaciones no es señal de progresismo: es simplemente reaccionaria en lo nacional.

El pueblo vasco tiene derecho a la autoderminación y a su autogobierno. Quienes pretenden hacer socialismo «puro», en realidad no pasan de hacer socialismo imperialista por cuenta de España o Francia. Hay nacionalismos reaccionarios porque consideran que se puede propugnar una liberación nacional «pura»; y hay socialismos reaccionarios porque pretenden hacer liberación social «pura».

Entendemos que la liberación nacional y la liberación social de Euskadi son puros aspectos de la liberación TOTAL que propugnamos para las personas de Euskadi (*Liberación nacional y liberación social*, 1963).

*ETAk badaki bere lekua. Eskuin alderantz egin du lehenengo mugaketa (1962), ezkerretarantz gero (1963).*

## 5. «Askatasun osoaren» borroka, 1964

*63aren udazkenean, ETAk Bizkaiko langileen grebak eta protestak zuzentzeko Komite Koordinatzailean parte hartzen zuen. Urriko grebaren ondoren, ordea, burkide-mordo bat preso atxeman zuten, ETA «desmantelatuz», esan ohi zenez.*

*Negu aldera saiotxo batzu egin zituen ETAk Euskadiko PCrekin harremanetan abiatzeko, baina lehen kontakto haietatik ez zen deus atera, bion desengainua ez bada. Bien arteko polemika gogortu egin zen. Hona hemen ETArek erantzun bat Pirenaica irratiori:*

Nuestra posición ante el problema social es neta. Vamos a hacer una *revolución* social. Es decir, cambio radical de las actuales estructuras económico-sociales: desaparición del capitalismo actual —vasco o extranjero— de Euzkadi e implantación de una economía democráticamente dirigida. Si se nos pregunta por el sistema que vamos a adoptar, responderemos: UN SISTEMA VASCO. No tenemos por qué copiar de nadie; tenemos en nuestro propio pueblo las constantes esenciales de un auténtico socialismo comunitario. Ahí están como botones de muestra el sentido de la propiedad (nunca «jus abutendi», como los vecinos latinos) y la pues-



ta en común de los bienes de producción de los pastores (todavía vigente en Zuberoa).

Ello nos basta para comprender que tenemos que sacar de nuestra propia sustancia vasca nuestro futuro sistema social. Bastantes de las medidas que propugnamos coinciden con lo que hoy en día se denomina socialista ¡Y qué! No nos asusta la palabra, pues para nosotros tiene pleno sentido..., además no pretendemos ser exclusivistas ni únicos. Afirmamos solamente nuestra decisión inquebrantable de hacer una revolución social vasca con todo lo que la palabra significa. Por ello, porque queremos hacer una revolución social vasca, nos pronunciamos contra todo conservadurismo; por eso afirmamos que nuestra victoria política —la independencia nacional— sería una derrota si no fuera completada y seguida de la implantación de una democracia vasca auténtica: POLITICA, ECONOMICA, CULTURAL. Con partidos políticos, con sindicatos libres, con libertad de religiones, etc. etc. (1964, *otsaila*).

*Polemika honen zakartasunak, arrazoia piska bat mementuko baldinkizunetan zeukan. Prentsa frankistak, alde batetik, baina PNVk ere bai, bestetik, ETAr berehalaxe eraso zioten, haren komunismoa edo komunistekin omen zeuzkan tratua zirela eta ez zirela. Komunismo-akuzazioak urte haietan pisu handia zuen.*

Fronteak mugitzen hasiak ziren, edonola ere. «Asi gaitzen komunismuarekin alkar izketan» artikulua bat agertu zen maiatzean, Jakin 16, 1964, 43–54. Ikusten da, haizeak nondik jotzen zuen. Abenduan (1964) Euskadiko Alderdi Komunistak «Arragoa, revista de cultura y política» ateratzeari ekin zion: «una revista que, a la luz del marxismo-leninismo, aborde todos los problemas concernientes a la vida política, social y cultural vasca en la actualidad». Aldizkariak ez du hiru urte baino iraungo. Gazteria berriak komunismoarekin lehenengo harremanak zuzen-zuzenean eduki ahal izateko balioko du behintzat. Aurrerantzean Euskadiko gertakarien analisisa komuniston azterketa marxista-leninistarekin alderatu eta kontrastatu beharra ere guztientzat izango da aberasgarria.

1964 mugarri-urte bat izan da ETAREN pentsamenduaren historian. Lehen epe honetako (ETA bere definiziora iristen den aldiko) dokumenturik interesgarrienak, formaz nahiz edukinez landuenak, urte honetan agertu dira. Hasteko, urteberri egunean bertan ETAK bere lehenengo Manifestua Euskal Herriari zabaldu zuen: Manifesto de ETA al Pueblo Vasco. Urte berria zein kontzientzia berriarekin hasi duen seinale, Manifestu hau beratu dugu, Manifestuaren tonua: «año primero, esaten da, de la lucha por la liberación total de Euzkadi». Honez gero badakigu total horren esanahia. Aurreko urteak, bada, preparazio-urtetzat ematen dira. Orain bidea aurkitu da eta borroka hasten da. «[ETA] preconiza como única solución satisfactoria para Euzkadi la lucha de TODOS los vascos por su liberación nacional y por su liberación social».

Askatasun osoaren kontzeptu bakarrean sintetizatzen den xede-bi-

koiztasuna (askatasun nazionala, soziala), ETaren pentsamenduaren ardatza, 62ko Printzipioetatik hasi eta poliki-poliki zehaztuz etorri da. ETaren pentsamendua ez da sistema geldi bat, ezpada ibilian-ibilian burutzen den gogoeta-prozesua. Hurrengo urteetan, oraindik, formulazio egokiago baten bilaketan ikusiko dugu (abertzaletasun iraultzailea, langilearen abertzaletasuna, etab. formulak erabiliko dira), azkenean PTV edo euskal herri langilearen askatasuna formulatan geratu arte. ETaren historiatiak badakigu, nolako iskanbilak sortu diren gero funtsezko bi-koiztasun horren inguruan. Ez da harritzekoa, historilariren batzuk liskar horien sokari hasieretaraino segitu nahi eta segitu ahal uste izatea, bi helburuok hasieratik beretik elkarrekin teinkan eta gatazkan beti agertu balira bezala, are bi sektoreren arteko borrokaren fruitua balitz bezala ETaren definizio bikoitza. Agian konbentziturik daudelako aldez aurretik bere golkoan, xede biak (abertzaletasuna, sozialismoa) elkartezinak direla.

Alabaina ez dirudi 1964eko ETaren baitan halako barne-borroka dialektikoetarako baldintzarik oraino ematen zenik (kopuru, jatorri-desberdintasun, ekintz barrutien aski berezitasun eta autonomia, etab.). Fronte berezien doktrinarik, ez egiazko praxirik ere zegoen. Bestalde, kontraesanak haundiegiak ziren kanpokaldera, PNVrekikoak bereberki, barnean pitzaturik sortzeko. Azkenik, borroka sozialaren kontzeptuak ez zuen oraindik, Marxekin gehiago familiarizatu ala irabaziko duen trinkotasun doktrinalik bere baitan, nazio-borrokaren alderdia gabe (edo intransijentziarik, horrela nahiago bada). Gero gerokoak: Larrinagaren (F. Iturrioz) *Del Pueblo Vasco eta Manifestuaren artean* ez da inolako tein-  
karik nabari, ezta bion eta 1964eko ETaren idazki doktrinal inportanteen artean ere, *Carta de ETA a los intelectuales vascos*.

Manifestu-ko «año primero» eta horiek baino hobeto, Euskal Intelektualei Gutuna-k erakusten du, ETAk bere pentsamenduaren eta proiektuaren heldutasunera iritsia uste duela bere burua (heldutasun denak dira erlatiboak). Berritasun haundirik ez dago, puntutxo konkretuetan izan ezik (kooperatibismoaz, adibidez). Dokumentu hau bilduma bat da batez ere, sintesia eta ibilitako prozesuaren helmuga («susceptible de evolucionar y completarse con la aportación de todo el pueblo», espreski aitortzen denez). Bertan franko garbi azaltzen da ETaren posizioa euskal iraultza sozialista baten alde (Larrinagak, halaber, bere artikuluan: «nuestro pensamiento es tanto de liberación nacional como de revolución social»): kapitalismoaren eta gizarte-egoeraren analisisa, ordea, aurretik inoiz ez bezalako zehaztasunez eta koherentziaz dago egina. Argi uzten da iraultzaren subjektu aktiboa zeinek izan behar duen: «(...) la salvación de Euzkadi —y Euzkadi son sus trabajadores en el sentido más amplio— sólo puede venir de los trabajadores mismos». Xede nagusiak beti-

koak dira: 62ko Printzipioetan bezalaxe 63an, beti ETaren helburu bikoitza aldarrikatzen da, soziala eta nazionala («puros aspectos de la liberación total que propugnamos», cfr. Liberación nacional y liberación social idazkia), eta helburu horixe finkatzen da 64ean ere bortizki.

Xede horien lortzeko baliabideei buruz gutun honek fitsik ez esatea, borroka armatuaz alegia, bidezkoa da, intelektualei zuzendutako dei bat izanki. ETAk argi eta garbi esaten du, halere, estruktura kapitalistak ez direla berez eta eboluzioz desegingo, baizik eta beharrezkoa izango dela «un derrocamiento por vía revolucionaria de las estructuras actuales y su sustitución por otras genuinamente vascas y democráticas». Nazio-borrokaren alderditik gauzak berdintsu ageri dira: Euskadiren askatasuna ez da bakezko bidez posible izango. «Nos consideramos en guerra con España y con Francia: ni más ni menos», deklaratu du ETAk urte honetan. Bai ETaren iraultza sozialak eta bai nazionalak borroka armatua eskatzen du (hau ez da izan inondik ere ETaren «tercermundismo»aren fruitua). Bidezkoa zen, beraz, apiril eta maiatzeko III. Biltzarrak la insurrección en Euzkadi onartzea. Doktrinako edo pentsamenduko edozein diferentziak baino gehiago, honela, errepresio gogorrenaren azpian, abiarazi zen borroka armatuaren mistikak, aurrerantzean oreka gordetzea zaila bihurtuko zuen dinamika, ezartzen zion ETaren desarroiloari. 1964, urte gurutzal bat: urte honetan ospatu zen gerra ostean lehenengo Aberri Eguna (Gernika). Maiatzaren 1.aren prestaeretan ETAk lehen aldiz hartu zuen parte. ELA zatitzen da. Euskara batua erabiltzeko bile-ra Baionan. Ikastola-mugimendua indartzen hasten da...

Hemen oro da zilegi,  
baita euzkotar abertzaleen erotasuna ere.  
Hemen inor ezta konturatzen  
ekaitz haundia  
hurbil  
dagoela...

idazten du Gabriel Arestik: Harri eta Herri (1964). Eta: «Beti paratuko naiz / gizonaren alde».

## 6. Orain 20 urte

Gizonaren alde: askatasuna gizonarena dela, konprenitzen bada, eta gizona beti konkretua dela, erraz ondorioztatzen da, euskaldunaren «askatasun osoak» nazionala eta soziala izan beharra. Urte hauetako planteiamenduetan, orain ahaztuxea dirudien filosofia batek eragin handia izan du Euskal Herrian: pertsonalismoak. Ez ETAn bakarrik (eliz mugimendu sozialetan haundiagoa izan du noski). Pertsonalismoa, klase-arazoetan marxismoaren oso kidekoa izanik ere, pertsonaren eta

*gizartearen ikuspideetan ez da marxismoa bezain historizista, h.d. elkar-te «naturalak» (familia, nazioa) askoz gehiago begiratzen ditu, ez ditu disolbatzen historiako amil-uretari. Beste anitz aldetatik, halere, marxismoaren irakurkera edo zuzenketa bat bezala ikus daiteke, existentzialismo frantsesaren moduan. Asko da, behintzat, biok marxismoari zor diotena.*

*Marxismoak irakurkera eta erabilera desberdinak ametitzen ditu. Leninek marxismoa «desarrolatu» egin zuela esanez, ez da kentzen, desarroi-oharrik egoteko, aurretik hutsuneak edo eskasiak egon behar zutela, eta desarroiak zerbait erantsi behar izan duela, lehen ez zegoena. Leninismoa, titoismoa, maoismoa, Frankfurteko Eskola, etab., marxismoaren irakurkera desberdinak eta «desarroiak» dira, ez marxismo hutsa. 60. urteetan Euskal Herrian egin den marxismoaren irakurkera eta baliapena, pertsonalismo-existentzialismo-marxismo tankerakoa izan da funtsean, mementuko filosofia nagusiei jarraiki. Borroka-ereduen aldetik, oster, orduko borroka hartu behar izan ziren eredu, eta horiek Hirugarren Munduko askatasun-mugimenduak ziren. Honek berak aski markatzen zuen, hemen marxismoaren nolako irakurkera egin beharko zen.*

*Edozein egon daiteke marxismo «hirugarren mundutiar» honen aurka, eta pentsa daiteke ETArekin hankasartze ikaragarri bat izan zela hori. Buru hainbat aburu. Nik neuk, ordea, uste dut, marxismoa hemen sartu ahal izateko, hartaz hemen baliatu ahal izateko, bide bakarra horixe zela (gogora bedi EMK, ORT, etab. beste mugimendu guztien marxismoan ere zenbat Hirugarren Mundu dabilen). Horrela izan ez balitz, orduko Europako marxismo «ortodoxoak» ez zeukan sartzetik. Hemendik kanpora ere berehalaxe ikusi da, ortodoxia horiek non geratu diren, 68ko maiatzean, eurokomunismoan, etab., neo-ortodoxia althusserianoan bertan.*

*Delako marxismo pertsonalista-existentzialista-hirugarren mundutiar honi eskerrak, aldiz, ETArekin bere borroka nazionalaren eta sozialaren lehenengo sintesia egin ahal izan zuen (baliozkoa ala gabekoa, orain ez digu axola), Europako marxismoarekin inoiz ezingo zuena.*

*Bere borroka sentidua adierazten ez-ezik, euskal historia modernoaren interpretazio klasezko eta nazional batean ere laguntzen zion ETArekin marxismo horrek. XIX. mendean Foruak ezabatuz gero, Euskal Herriak botere arrotz batek okupatuaren sentimendu gogorra eduki du, inbaditu eta katez lotuaren kontzientzia. Gure gaitz guztien sorburua inbasio edo okupazio espainola dela esateraino (Arana Goiri) ez dago ailegatu beharrik: begien bistakoa da euskal herriaren (komunitatearen) zein hondamendi hasi den orduan, eta nola bertoko kapitalistak konplizeak izan diren. Orain, beraz, Euskadi kolonia bezala interpretatuko da, ondorio guztiekin, eta inbasorea kapitalismoa izango da: «(...) la historia*

*de colonización de nuestro pueblo vasco, tiene que ser reivindicada y asumida por el colonizado» (1962); Krutwig (1963): «estamos en presencia de un despotismo colonialista, aniquilador de todos los derechos y libertades del hombre; favorecedor de una clase exclusiva, la capitalista, enriquecida y omnipotente. Este doble crimen contra nuestro pueblo se acompaña de una auténtica domesticación del país y de sus moradores, olvidados de sus derechos y desconocedores de la extrema degradación en que se hallan postrados» (Manifiesto, 1964). Zertarako aipa, hemen, Fanon eta Memmi. Era honetan Euskal Herriko historiaren ikuspide eta sentimendu tradizional batzu, ia klasikoak, eskema berri batean asumi zitezkeen.*

*Problemarik ez zen faltako. Euskal Herri foralaren idealizazio hura, esate baterako, aspaldidanik euskal errebindikapen nazionalen oinarri antzean erabili ohi zena (oraindik ere entzuten dena noizean behin), historiaren klase-ikuspide batekin nola josi? Eta nola explikatuz Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz liberalak izatea, ez karlistak, Foruak galdu baino lehenagoko paradisu hartan? Eta horiek ez bait dira euskaldunek beren artean erabili dituzten liskar eta gudu bakarrak, nola explika?... Gerora, egia da, historilari txit argiak argitu zaizkigu munduan, «igualitarismoa» eta, «euskal historiako mito» horiek ausarki jorratzen, historia, abertzale mitozaleen kontra, bere zuzentasun zientifikora itzultzeko gurutzada gartsuan, historiaren interpretazio-molde haiek abertzaletasunaren oinarriak berberak balira bezala, edo abertzale guztientzat ezinbesteko dogmak eta ezinbestelakoak. Enteratu gabe, nonbait, gerraosteko belaunaldi batek, dexente lehenago eta ofizioz historilari argi izan beharrik batere gabe, abandonatuak zituela bere kasa ikuspide horiek. Hona hemen Txillardegiren textutxo bat, polita bezain ezezaguna delako aipagarria:*

*Gizonaren diñatasunari eta gizatasunari gagozkiela: nahiz gauza ageria izan irago diran denborak, alderik gehienetarik, oraingoak baino txarragoak izan dirala, iragan denborak lilluratzan du [eskuindarra]. Euskal Herriari buruz, hunengatik, bereala ezagutarazten dugu danok gure burua: eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zorientasunaren ipuia siñisterazi nahi digute besteoi; eta, ezin lorturik, gutaz etsitzen dute. Zergatik etsiko? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian are gutxiago, euskaldunak zoritxarrean eta zapaldurik bizi izan dira. Eta hau egia dala frogatzen ahal dala uste dugu.*

*Ezkertarrek uste dute, beraz, ba dala garaia euskaldun herriak lehenengo aldiz bere burua altxa dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera jo nahi, «lege zahar» billa, denbora «zoriontsu» haietaz ez baitugu deusik ere siñesten. Ikusi besterik ez dago hau Euskal Herriko kondairan; edo euskalduna nola bizi dan aldakuntzarik gertatu ez diran eskualdeetan. Gogora ekarriko ditut ezaugarri nagusiak: gosea, eritasuna, miseria, edozertarako behar gorria, apezkeria, ezjakintasuna, euskaldungoarekiko mespretxua eta morroin-plegua. Horra hor galdutako parabisua.*

*ETAk abertzaletasun berri bat ekarri nahi zuen, oraindik elementu*

*zahar edo tradizional askorekin nahasturik agertu arren. «El nacionalismo que nosotros propugnamos, idazten zuen Iturriozek ere, es distinto del nacionalismo histórico. Ni el Ducado de Vasconia, ni (...) son las bases de nuestra ideología (...). Propugnamos... un nacionalismo nuevo, humanista, abierto a todos los habitantes del País», etc. Berria, abertzaleztasun «burgesarren» aldean eta kontrastean hain zuzen. «Para nosotros el compromiso de la burguesía vasca con el régimen es evidente (...); ello es un motivo más que nos impulsa a propugnar un nuevo nacionalismo, dirigido a círculos de población distintos de los que hasta ahora iba dirigido».*

*Historiaren filosofia marxista, ortodoxoa, progresibo-lineala da. Abertzaletasunak (hots, «nazionalismoak») bere leku sozial eta ordu historiko jakinak ditu erloju mekaniko hartan. Ez da erraza, hurrenez-hurrengo etapa historiko materialki determinatu horien eskemari bere horretan eutsi nahi bazaio, euskal abertzaletasun ez burges bat justifikatzea gaurregunerako. Leninek nazio-borrokaren onespren funtsean taktiko soila egiten zuen (demokratiko burgesar gainera): langileen interesei onuragarri zitzaaien neurrian onartzen zuen nazio-borroka. Hori gutxitxo iruditzen zitzaion ETari. Gehiago, nazioaren berezko balioaren aitortza positibo bat, pertsonalistentik eta existentzialistentik atera zitekeen. Egin ere, hala egin zen (gero «esentzialismo» bezala kritikatu zaiona, arrazoi haundirik gabe). Baina ohargarria da, nola klase-eskema soilarekin, nazioaren errealitatea azuzian sartu gabe, euskal abertzaletasuna legitimatzeke lehenengo ahaleginak jadanik urteotan entseiatu diren, Leninen imperialismo-teorian oin hartuz hain zuzen. 1965eko testu bat aipatuko dut, bukatzeko, bere ahulezian ere adibide interesgarria delakoan:*

(...) Ultimamente el concepto de Nacionalismo ha dado un verdadero vuelco en el mundo entero.

Los nacionalismos nacieron como ideología política en la lucha de la burguesía contra el poder feudal. Entonces la burguesía constituía la vanguardia del progreso y, por consiguiente, su arma ideológica, el nacionalismo, fue una ideología progresista frente al desmembramiento feudal anterior.

Pero ocurre que la burguesía llega al poder —político y económico—, a su impulso progresan la ciencia y la técnica y se desarrolla el capitalismo industrial, capitalismo que hace nacer una nueva clase: el proletariado.

(...) En esta lucha de los trabajadores por conseguir el control de la sociedad y de la burguesía por conservarlo, se sigue usando el nacionalismo, pero ya no es una ideología revolucionaria, sino conservadora y reaccionaria (...) En estas condiciones, la clase obrera de todos los países responde con el internacionalismo y esto tanto por necesidad objetiva (unirse en una lucha común por el derrocamiento del capitalismo), como por la necesidad ideológica de contrarrestar la principal arma ideológica de la reacción burguesa: el Nacionalismo.

Ciertamente esta etapa del proceso subsiste todavía, y donde quiera que haya un nacionalismo deben estar los trabajadores en guardia para que los intereses de

clase de la burguesía no se escuden tras él. Pero paralelamente se ha dado otra situación de gran importancia: el *paso del Nacionalismo burgués al Imperialismo*.

La burguesía ha necesitado, para seguir manteniendo su situación privilegiada, no ya de explotar al proletariado de su país, sino inclusive a pueblos enteros. La ideología de esta explotación es precisamente el Imperialismo (...).

Ahora bien: la explotación de una nación por otra se funda pronto en formas de opresión nacional. Por ello, el pueblo así explotado y oprimido se revela, se lanza a la lucha; y en esta lucha, volvemos a encontrar una forma de nacionalismo, pero una *forma nueva*: un Nacionalismo popular, que busca tanto la independencia como el socialismo.

No es otra cosa lo que está sucediendo en Africa, Sudeste Asiático y Sud América. Ese es también el nacionalismo de ETA.

*Aski, gaurkoz. Honelatsu gertatu zen, nola gazteok marxismoa aurkituz joan ziren beren bidean. Hau dena zehazkiago eta hobeto ikertu beharra dago, ez bait dut uste behar bezala egina daukagunik orain artean. Gero, gainera, marxismoaren beste aurkitze bat egongo da, belaunaldi gazteago batena, baldinkizun sozial eta doktrinal franko diferenteetan, 68-70 aldera. Ordurako biziki aldatua egongo da euskal gizartea (seminarioen krisia eta, orduko historian sartzen dira: ETArek historia seminarioen edo seminarioen historia bihurtu nahi dutenak ere, bada, edo sustrai erlijioso-mitiko hutsak aurkitu nahita dabilzkiotak, ETArek lehenengo hamabost urteak berraztertuz legitimatzen dituzte beren inbentua). Bigarren aurkitze hori batez ere V. Biltzarrak (1966) eta haren ondorioek egongo da kondizionatua. Guk, hemen, IV. erainoko prozesua ikusi dugu (1965).*

60. lehen urteotako ETA, apenas dago esan beharrik, ez zen marxista. Marxismoa erabili bai, egiten zuen. Irekia zegoen marxismoari. Baina marxismoarekin topo egin denean, ez da izan buruz behera bertan murgiltzeko, ikasteko baino eta hartaz (kritikoki) baliatzeko. Posible ere, agian ez zen posible gehiago. Gehiegi zen, halere, euskal gizarteko zenbait interesentzat (ikus «Leturia eta Txillardegi Jainkoaren billa», Jakin, 20, 1965, 38-46). «(...) Ciertos aspectos de nuestro ideario, de nuestra doctrina política, hacen daño, molestan y atacan... a muchos intereses económicos y materiales que existen en Euzkadi bien protegidos por una capa de «nacionalismo». Lo que verdaderamente les duele es que propugnemos una revolución social a la vez que una liberación nacional» (1964). Gehiegi zen.

J.A.

**EL MARXISMO EN EUSKADI (1959-1965)****LE MARXISME EN EUSKADI (1959-1965)**

*Este artículo estudia el proceso evolutivo del pensamiento de ETA desde sus orígenes hasta la aparición del marxismo en su seno hacia 1964. En él no deberá entenderse nunca el marxismo en el sentido de una ortodoxia rígida.*

*ETA nace en 1959, el mismo año de la victoria de la revolución castrista en Cuba. Sin embargo, más que a motivos ideológicos, su aparición responde a necesidades de acción como respuesta a la represión que sufre el pueblo vasco. ETA surge en la familia nacionalista y comparte con ella la ideología democrática y su visión del pasado histórico vasco, así como sus aspiraciones de libertad. Las diferencias ideológicas, observables desde el principio (aconfesionalidad, etc.), no parecen notables.*

*Tras varios años de estudios y de formación de la militancia, combinados con alguna actividad subversiva, la juventud integrada en ETA celebra su primera Asamblea en 1962, fijando los Principios rectores y que pueden resumirse en un doble objetivo: la liberación de Euskadi y la liberación, en Euskadi, del pueblo vasco. Este punto de partida, una definición muy vaga todavía, conocerá una rápida evolución y en menos de dos años habrá adquirido un contenido concreto.*

*La postura inicial de ETA frente al marxismo es desconfiada, toda vez que se identifica al marxismo con los Partidos Comunistas y la Unión Soviética (stalinista) como un todo monolítico. Un libro de Krutwig, *Vasconia*, abre el horizonte hacia la posibilidad de un comunismo vasco nacional y nacionalista (1963). En adelante ETA, ya anteriormente interesada en los métodos de organización comunista en la clandestinidad y, sobre todo, en los movimientos de liberación de países del Tercer Mundo, tendrá una actitud más abierta y receptiva frente al marxismo.*

*El encuentro de ETA con el marxismo entre 1963 y 1964 ha tenido lugar por dos vías desiguales: por la práctica de la lucha social, por un lado, y por la de la lucha armada o «guerra revolucionaria», por el otro. Un análisis de clase, mostrando que en ambos casos el enemigo es idéntico, el capitalismo, opresor tanto de Euskadi como de la clase trabajadora, posibilita la síntesis en el concepto del «nacionalismo de los trabajadores», opuesto al imperialismo burgués. El Pueblo Vasco, declara ETA, se encuentra sometido a una doble opresión nacional y social. Sólo una Euskadi socialista puede ser la patria libre de los vascos.*

*Por estos años ETA aprende del marxismo y lo utiliza ampliamente en sus análisis, pero nunca se declara marxista: postura lógica con su declaración de ser un movimiento revolucionario, no un Partido. Sin embargo su posición es clara: «(...) La salvación de Euskadi —y Euskadi son sus trabajadores en el sentido más amplio— sólo puede venir de los trabajadores mismos. Por eso el nuevo orden social que preconizamos sólo será posible con unas estructuras que garanticen al trabajador el control de su propia industria y, a través de los organismos creados por él, el control de la economía nacional» (1964).*



Cet article étudie le processus évolutif de la pensée de l'E.T.A. depuis ses origines jusqu'à l'apparition du marxisme en son sein vers 1964. Le marxisme de l'E.T.A. ne devra jamais être compris dans le sens d'une orthodoxie rigide.

L'E.T.A. naît en 1959, année de la victoire de la révolution castriste à Cuba. Cependant, plus qu'à des motifs idéologiques, son apparition répond aux besoins d'action comme riposte à la répression que subit le peuple basque. L'E.T.A. surgit au sein de la famille nationaliste et partage avec elle l'idéologie démocratique et sa vision du passé historique basque, ainsi que ses aspirations à la liberté. Les différences idéologiques, observables dès le début (aconfessionnalité, etc.), ne paraissent pas notables.

Après plusieurs années consacrées aux études et à la formation des militants ainsi qu'à quelque activité subversive, la jeunesse intégrée dans l'E.T.A. célèbre sa première assemblée en 1962, au cours de laquelle sont fixés les principes directeurs; principes qui peuvent se résumer en deux objectifs: la libération d'Euskadi et la libération, en Euskadi, du peuple basque. Ce point de départ, une définition très vague encore, connaîtra une rapide évolution et en moins de dix ans aura acquis un contenu concret.

L'attitude initiale de l'E.T.A. face au marxisme est une attitude de méfiance, étant donné que le marxisme est identifié aux Partis Communistes et à l'Union Soviétique (staliniste) comme un tout monolithique. Un livre de Krutwig, *Vasconia*, ouvre l'horizon à la possibilité d'un communisme basque national et nationaliste (1963). Dorénavant l'E.T.A., déjà intéressée aux méthodes d'organisation communistes dans la clandestinité et, surtout, aux mouvements de libération des pays du Tiers Monde, aura une attitude plus ouverte et réceptive face au marxisme.

Le rapprochement de l'E.T.A. au marxisme, entre 1963 et 1964, s'est produit par deux voies différentes: par la pratique de la lutte sociale, d'un côté, et par celle de la lutte armée ou «guerre révolutionnaire», de l'autre. Une analyse de classe, démontrant que dans les deux cas l'ennemi est le même à savoir le capitalisme, oppresseur à la fois d'Euskadi et de la classe ouvrière, permet la synthèse dans le concept du «nationalisme des travailleurs», opposé à l'impérialisme bourgeois. Le Peuple Basque, déclare l'E.T.A., se trouve soumis à une double oppression nationale et sociale. Seule une Euskadi socialiste peut être la patrie libre des basques.

Durant ces années l'E.T.A. s'inspire du marxisme et l'utilise amplement dans ses analyses, mais ne se déclare jamais marxiste: attitude logique avec sa définition comme étant un mouvement révolutionnaire et non un parti. Cependant sa position est claire: «(...) La salut d'Euskadi —et Euskadi ce sont ses travailleurs dans le sens le plus large— ne peut venir que des travailleurs eux-mêmes. C'est pourquoi, le nouvel ordre social que nous préconisons, ne sera possible qu'avec des structures qui garantissent au travailleur le contrôle de sa propre industrie et, à travers les organismes créés par lui, le contrôle de l'économie nationale» (1964).

# Marx eta iraultza

Beltza

## 1. Amodiozko eta gorrotozko historia

«Marx eta Iraultza» aipatu behar dizuet orain, eta zail samarra gertatzen zait nere historia pertsonala eta hitzaldiaren gaia bereiztea. Nola edo hala, bizi izan dudana ikerlanean sartuko da, eta ideien exposaketan, izandako esperientziak, ilusioak eta nahigabeak ere agertuko dira. Beraz, hitzaldi hau ez da marxologo hotz batek egin lezakeena izango; marxismoak asko suposatu du nire jarreretan, eta horren barneko eta esankor gertatu zitzaidan doktrinari buruz argudio subjektiboak eta, nolabait, apasionatuak ere desarrolatuko ditut.

Hemengo beste asko bezala, Euskadi askatzeko borrokan oso naturalki suertatu nintzen, gizarteak, familiak eta historiak ia etengabe bultzatuta. Anitzen militantzia hola ageri zen: ez gara abertzale bilakatu, esate baterako, konbertitzen den paganoaren antzera; euskalduntasuna eta abertzaletasuna oso uztartu eta elkarlotuak gertatu zitzaizkigun eta, azken funtsean, oztopo guztiak gorabehera abertzaletasuna biziarazteko borrokaren aukera egin genuen; abertzale izatea, berriz, ez zen hautu bat, ia erremediorik gabeko gauza baino.

### 1.1. Marxismoa, «kanpotik etorria»

Marxismoa, bai, bilakabide baten ondorioz deskubritu genuen, kanpotik etorria izanki, eta konbertsioa zen harekiko egin genuena. «Kanpotik etorria» diot, eta honekin esan nahi dudana zera da: lehengo jelkideen seme-alabak garela, eta haientzat arrotzak zirela langileen iraultzari lotutako doktrinak, pentsaerak eta jarrerak. Berdin guretzat, hasieran behintzat; PNVrengandik bereizten gintuen jarrera, independentziaren nahiari eta borroka inmediateari lotua zegoen, ia besterik gabe.

Kanpotik heldu zitzaigun marxismoa, baina, halaber, ez oso urrundik. Deskolonizazioaren gorabeherak, nahiz eta gugandik urrunak espazioz, oso hurbilak zitzaizkigun gure praktika explikatzeko eta egokitzeko; eta Hego Euskal Herrian hedatu zen langileria guztiz presente zegoen hirietan eta gizarte-praktiketan. Hots, orain dela hamabost-hogei urteko Euskadin, borroka abertzalea gaurkotu eta gogortu nahi genuenoi, zeharo hurbilak bihurtu zitzaizkigun, gatazka antiinperialistei eta langileria-aren munta sozialari loturiko pentsaerak.

Eta marxismoan, gauza asko aurkitu genuen. Gure historia, batzuek ukatua eta besteek mitifikatua, sakonki ezagutzeko bide bat; PNV burgesia nazionalaren interesekin identifikatuz, Partido honen erdibideak eta katramilak ulertzeko giltzarria; askatasun osoa iraultza sozialarekin bat eginez, gure borroka propioa zilegiztatze-ko bide zabal bat ere bai, munduan zeharko fronte antiinperialistatan partehartzen genuelako eta, bidebatez, etorkinen problema lazarriari irtenbide baiezkorrak ematen ahal genizkiolako. Eta, zinez, marxismoaren ekarri positibo hauek, oraindik ditudan jarreretan iraun dirautela esango dizuet, nahiz eta ez lehen uste genuen moduan, ez eta orduan zuten osotasun borobilean ere.

Halere, marxismoa ez zen soilki egoera ikertzeko bide zientifiko bat. Hori bakarrik izan balitz, euskal nazionalismoaren atal batek, gureak alegia, XX. mendeko fenomeno kulturalik esankorretariko bat ezagutu zuela esan genezakeen, besterik gabe. Denok dakizuenez, oso handia da materialismo historikoaren eragina gaurko histori eta gizarte-ikerketan; noski, haren metodologiaren parte bat onartzeak edo, marxismoaren zirikaden ondorioz, historiaren edukin sozio-ekonomikoa arreta handiagoz aztertzeak, ez

dute esan nahi historigileak iraultzaile bihurtu direnik. Halere, adibide honek erakusten digu noraino sartua den marxismoa giza zientzien esparruan. Beraz, Euskadira ere heldu behar zuen haren eraginak. Beti bezala, berandu, errepika lezake bat edo batek... Baina, guretzat, marxismoa ez zen soilki entelegatzearen giltzarri hotza: haren baitan, iraultza egiteko estrategia bilatu eta aurkitu nahi genuen. Gogora dezadan, marxismo-leninismoaren kontzeptu ofizialetan, ezagutza objektiboaren egiazko teoria eta praktika iraultzaile jakintsu propioa dela *batean* marxismoa.

Gure aldetik, etorkizun iraultzailea eta komunismoa nahitaezko beharkizun bezala aurkezten zituen mistika baten gisa ikusten ahal zen; oso konfortablea da horrelako doktrina bat; konfortablea, bereziki, zokoratuak, pertsegitu eta gotorki zigortuak aurkitzen diren militanteentzat. Historiaren zentzua gurekin zebilen, eta, minoria klandestino zapalduaren egoera latzean, etorkizunaren hazia zen ernetzen ari.

Halaber, leninismoa, maoismoa eta castrismoa ikertzen genituen, proletalgora, alderdia, minoria zuzentzailea, gerrila eta beste kontzeptu asko elkarrekin lotzeko, Euskadirako egokia zatekeen borroka-bidearen txerka; eta geundeneko egoeratik abiatuz, egokiak nahi genituen estrategia eta taktika, edozein irakurketa, kontaktu edo eztabaida onartuz, argia ager zekigun.

Puntu honetara helduta, aitortu beharra dizuet, egoera intelektual eroso eta betekor batetan instalatzera iritsi nintzela orain hamahiru edo hamalau urte. Euskadiren historia eta egoera lerro nagusietan ulertuta (hala uste genuen, bederen), historiaren mugimenduan sartuta, koiunturaltzat jotzen genituen estrategia egokia aplikatzeko oztopoak, gure ahuleziak sortuztat, baina kemenaren kemenaz gaindigarritzat, bata bestearen atzean irabaztekoztat, militantzia emanaren bidez, iraultza bururatu arte.

## 1.2. Marxismoarekiko desliluramendua

Desliluramenduaren garaia heldu zitzaidan gero. Nondik has? Zergatik hori? Ez naiz oraindik bilakabide osoa ongi konprenitzeko gauza. Maoismoaren krisiak, bere luzean, galdera asko pausa-

tzeko parada eskaini zidan beharbada. Urte batzutan zehar hedatu zen parada hori, noski. Bata bestearen atzetik, eta edozein taiuz, ausnargai hauek izan nituen: naturari buruzko ekialdeko gizarteen galderak; zapalkuntza, larderia, autoritarismoa eta alderdia zeinen elkarlotuak dauden ikertzea; borroka antiinperialisten ondorioz sortzen ziren estatu berrien barne-politikak; eurokomunismoaren komeriak, ezkertiarren antzutasuna...

Historia eta gizartea ulertzeko hain egokia iruditzen zitzaidan marxismoa, munstrokeria baten (edo batzuren) aita zen bihurtua. Komunismorako bidean, trantsizio-aldi bat agindu ziguten fundatzaileek: baina trantsizio-aldi hori, praktikan gihartua, ez zen sozialismoa, baizik eta barnean guztiz zapaltzaileak eta kanpoan gellen eta estrategia nazionalisten sortzaileak ziren Estatuak. Gainera, gizarte kapitalisten altzoan, marxismoaren ondorengoak bitan banatzen ziren: kapitalismoaren kudeatzaile (edo garagista soil) bilakatu ziren sozialdemokratak, eta eurokomunistak; edota gizartea aldatzeko intzidentziarik gabeko mila familia eta praktikatan (maiz, praktika ikaragarritan) banatzen ziren ezkertiarak. Azken hauenganako sinpatia galdu gabe, orokortasuna oso ezkortzat jotzera heldu nintzen.

Eta, 1968ko bide berean, zuzenketa batzuren ahaleginetan sartu nintzen, beste batzuk bezalaxe. Marxismo libertarioan, hain zuzen; Marxen ekarriak ahaztu gabe, eta Marx gazteagan harturik finkapuntua, anarkismoak hierarkiaz eta larderiez egiten duen kritikaz bete nahi genuen esparru iraultzailea. Baina, alde batetik betegarri gertatzen bazen ere, jarrera horrek pipia eta sitsa sartzen zituen marxismoaren enbor trinkoan. Ez da posible marxismoan nahi dena hartu eta beste guztia ahantzi edo ukatzea; sobera doktrina batua eta elkarlotua da, haren kontradikzioak gorabehera, eta, nire ustez, marxismo libertarioa ezin daiteke anarteko urrats bat baizik izan. Batzuk horretan dirautena badakit, halere.

Beharbada, eta marxismoari buruz, Espainiako sasidemokrazia eta gerla mundialaren posibilitate hurbila izan ditut ausnargai nagusiak azken urteotan. Espainiako sozialistek eta komunistek gure borrokari buruz dituzten jarrerak min handia eman didate: ez itxarongarriak ez zirelako, baizik eta internazionalismo proletarioaren ukapen borobilak izan direlako, nazionalismo zapaltzaileaz beterikoak... Marxengandik datozen sozialista eta komunista horiek

ederki frogatu digute zer-nolako endekatzea jasan dezakeen marxismoak; eta usteltzeko gaitasun honek pentsarazten dit, berriz ere, ez ote diren marxismoaren baitan egongo ideologia zapaltzaileen hazi eta hedapenak, beren buruak marxistatzat dauzkatenak zapaltzaileen kolaboradore eta kudeatzaile izatera eramaten ahal dituzten jarrerak eta sineskerak. Zeren, egia esanez, Espainiako komunistak eta sozialistak egiten ari direna, imagina al genezake anarkisten partetik? Nekez, niretzat bederen.

Marxismoan ere zerbait usteldua dagoela pentsatzera iritsia nauzue, eta marxismoa ez ote den ideologia eta jarrera zapaltzaileen osakin bat galdetzera. Halere, marxismoan sinesturik bizi eta hil diren hainbeste iraultzailei errespetua zor diet, eta ez nuke guztiz ezkor izan nahi. Baina, eta blokeen politika?, eta Ekialdeko Estatuon jarrerak? Non koka daitezke? Azken finean, oinarriko militante kristauak bezala egiten ahal da: Jesus zintzoa eta Eliza gaiztoa direla esanez, Jaungoikoa salbatu. Marx salbagarria da, Estatu guzti hauen politika marxismoaren endakatze eta saldukeria bat baizik ez bada.

Ez nabil sendra honetatik. Berriz ere, egiaz gauzaturiko praktikek marxismoan, badela zerbait endekagarri pentsatzera naramate; eta zerbait hori, autoritarismoaren kritikaren faltan datzala esango nuke. Diodan, halaber, marxismoaren krisiaren aurrean eszeptizismo eta ezegitearen putzuan ez amiltzeko, beste nonbait aurkitu nahi nukeela borroka iraultzailearen zergatia eta itxaropena. Agian, zapalkuntza onartzen ez duen etikan, eta beren kateak hausteko zapalduak duten edo izan dezaketen kontzientzian, ezar daitezke itxaropen eta azalpen horiek. Badakit, jakin, marxismo batek horrelako humanismoa eta kontzientzia indibidualak «utopiko» edo «burges txiki» direla baieztatu duena; haien truke, gizarte-bilakabidearen agerpen zientifiko bat eman nahi izan zuen. Apologista batek zioenez (R. Garaudy, 1968an):

«Marxismoa bere aurreko komunismo-forma guztietatik bereizten duena hauxe da: ez duela komunismoaren beharra ideal moral, eskakizun erligioso edo exigentzia ez-razional batetan ezartzen, baizik eta gizarte kapitalistaren egiazko mugimenduaren analisisan, non haren suntsiketara daramaten barne kontradikzioak eta langile-klasea bereziki ikertzen diren. Langile-klasea da kontradikzioak gainditzeko eta gizar-

te-harremanen sistema berria, komunismoa alegia, eraikitze-ko gai den bakarra.

Han zekusan marxismoak bere indar propioa, eta honetan ikusten diot nik ahulezia, gero azalduko dudanez.

## 2. Marxen pentsaera

Baina nere historiatik atera gaitzen, eta sar Marxen pentsaeran. Marxen urteurrena dela eta, gaiari lotuko natzaio; Marx bera izango dut ikergai nagusi, eta haren ondoan emandako hedapenak, nahiz marxismo propioan nahiz gizarte-historian, argibide gisa erabiliko ditut, besterik gabe. Halere, gauzak diren bezala dira: Marx ez da soilki pentsalari bat, teoriko bat; bere bizia, Bakunin-ek idazten zuen bezala, langile mugimenduari zion emana. Eta marxismoaren izenean egindako guztia ere ikergai dugu, praktika eta historia edozein eraikuntza teorikoren argigarriak bait dira.

Demagun, hasteko, Marxengan eta marxismo-aurreko sozialistengan aurki dezakegula berdintasunen bat; hau da, sozialismoaren nahia eta beharkizuna, lehenagoko mugimendu humanista batetan, behintzat, finkatzen direla, gizarte-injustizian eta langileriaren borondate iraultzailean.

### 2.1. Marx desberdinak

Marxengan, esan dut, eta esaera zehaztu beharko nuke. Zeren Marxengan aldi, idazki eta jarrera desberdinak bereiz baitaitezke. Ez naiz oso sakon sartuko Marx gazte eta Marx helduari buruzko eztabaidan. Gogora ditzadan, baina, auzi honi buruzko teoria nagusiak, Louis Gruelek («Le Clerc, le Barbare et le Prince», in: *Les Temps Modernes*, 1983ko martxoa) aipatzen dituen eran.

*Ortodoxoek* diotenez, pentsaera bakar bat heltzen eta zabal-tzen da Marxengan, inongo hausturarik gabe; hasieran, sumindura morala eta zapalkuntzaren kritika abstraktua, gerora, zientziaren

bidez, askapenaren baldintza egikorrek deskubritzeko. Guztiz alderantzizkoa da *Marx gaztea*-gan marxismo osoaren giltzarria aurkitu nahi dutenen jarrera. Alienazioaren kritikak, humanista eta (batzuren hitzez) libertarioak, 1844eko *Eskuizbribuak*-etan agertzen denak, Marxen egiazko dimentsioa ematen diguke. *Kapitala*, lan horien zabalpen bukatugabea dateke, eta azken lanak ez dira garapen endekatuak baizik, Estatu eta instituzioen barneko politikak murriztuak.

*Haustura epistemologikoa*-ren eskola dugu hirugarrena. Marx batzu ba omen dira, bat bakarrik marxista: 1845 aurretik, idealismo alemanaren menpean zegoen Marx; *Kapitala*-eko Marxek, materialismoaren bidez, beste kontinente zientifiko berri bat sortu zuen, non alienazioaren teoriak eta humanismo abstraktuaren ondorioek ez omen bait dute lekurik. Althusser dugu, bereziki, linea honen aitzindaria, eta haren ikusmoldeek eragin handia izan dute gure belaunaldian. Haren ustez, nabaria litzateke haustura alienazioari buruz; *Eskuizkribuak*-etan, lanaren bidez (beste baten poderiopean dagoen lanaren bidez), gizonak bere burua diruaren eta merkantzien pean ezartzen duela dio Marxek: kontzeptu hau antropologikoa dugu, oraindik. *Kapitala*-n berriz, lana ez da haboro subjektu baten eginkizun soila, «gizarte-neurri» bat baizik. Alienazioa kontzeptua ia zeharo desagertua dago *Kapitala*-n. Gisa berean, humanismoari buruzko haustura ere balegoke, prezeski *Feuerbach-i buruzko tesiak*-etan aurki daitekeenarekin konparatuz. Feuerbach-en pentsaeraren oinarria soilki etikoa da; Marxek ez du onartzen hau: gizonaren alde benetan lan egin nahi bada, azpimarratzen du justuki, beharkizun politiko, ekonomiko eta sozialak kontutan hartu behar dira; gizartearen ardatza amodioan ikustea, egiazko errealitateari muzin egitea da, eta idealismo tronpakor batetan amiltzea. Gainera, harreman ekonomiko eta sozialek dute determinatzen gure sentimenduen sorrera. Haustura honetan (edo garapen berri hauetan, behintzat), alde positiboa ukaezina da. Arazoak gero datoz, iraultzaren garaipenaren izenean hobendun ez diren sakrifizioa onartzen denean; baina hau beste auzi bat da.

Azkenean, batzuk (gero eta gehiagok, alegia) Marxen lana *kontradikzioz bete*a agertzen dela diote. Barne-tinkaduraz higitutako lan eskergan, berdin aurki daitezke historia orokorki baldintzatzen duten lege objektiboak, eta imaginazioak edo sinboloek historia



orutzen dutelako kontzeptua; berdin, zentralizazioaren gorai-pa-mena eta langileen autonomiari sostengua.

Zein da, beraz, egiazko Marx? zein, ikertu, ospatu edo arbuia-tuko duguna? Egiatan, ezin nezake neure egin marxismo sobieta-rraren doktrina ortodoxoa, non marxismoaren garapen lineala onartzen bait da, eta Marxen lehenengo sumindura-etikatik laister komunismoa sortuko duen oraingo Sovietar Batasunera haustura-rik gabe heltzen bait da. Halaber, Marx gaztea egiazko Marx dela dioen teoriak, nahiz eta oso erakargarria izan, ez nau egun bete-zen, lehen esan dudanez. Nahiago dut kontradikzioz beteriko la-na ikertu, baina kontradikzio hauetan hari gidari bat badela pen-tsatzan dut. Saia nadin, beraz, kontradikzio horiek agerrarazten eta haria bilatzen.

## 2.2. Marxen kontradikzioak

### 2.2.1. Iraultzaren protagonista: proletalgoa

Has gaitezen iraultzaren protagonistarekin.

Iraultzaren bilakabideari buruz, Marxek ez du soilki esaten in-dustriaren eta produkziobideen garapenak sozialismoa ekarriko duenik; bere doktrinaren ardatzean proletalgoa sartzen du. Prole-talgoa, langileria, langile-klasea (nahiz eta batzuek kontzeptu hauek bereizi), kapitalismoaren ekoizpena da, eta kapitalismoaren ehorzlea izango da; produkzio-harreman sozialek proletalgoa sor-tzen dute, eta proletalgo honek egingo du iraultza. Noski, garapen ekonomikoa harreman sozialekin kontradikzioan sartuko denera-ko jotzen da posibletzat iraultza; eta iraultzaileek ezin dezakete historiaren gurpila behar den zentzuan bultzatu baino, gauzak au-rreratu nahi izatekotan; zentzua, beraz, gure borondateatik at dago emana.

Baina gaurko egoera ikusirik, oso nabariak egiten zaizkigu Marxen teoriaren ahuleria batzu. Marxek proletalgoari lotzen dio iraultza; onartzen du humanitatearen sorreratik datorrela menpe-ratu eta menperatzaileen arteko borroka, baina borroka honen alde ernakorra gizarte industrial-kapitalistan soilki aurki daitekeela azpimarratzen du. Proletalgoa, zientifikoki frogatu nahi duenez,

gauza da klase zapaltzaileak suntsitzeko eta ez du bere azpian klase zapaldu berririk ezarriko.

Proletalgoaren egoera propioa ikertuz, berriz, Marxen aurka bi alde nagusi ager genitzake.

Marxen arabera, igotzen ari den klaseak boterea hartzen du, botere politikoa denean falta zaion gauza bakarra. Burgesiaren adibidea erabili du askotan: noblezia botere politikoaren jabe zen, baina burgesiak kontrolatzen zituen industrigintza, merkatal mundua eta, neurri batetan bederen, laborarien ekoizpena; nahitaezkoa zen iraultza burgesa. Baina, eta baina handia da hau, nobleziak zuzenki eta esankorki zapaltzen zuen klasea ez zen burgesia, laborariak baino. Laborarien menperakuntza eta miseriaren gainean erakia zegoen handiki eta merkatarien munduan; eta merkatarien eta industrialen jatorrian glebatik ihesi egindako baserritarrak aurki bazitezkeen ere, ihes egindako haiek ez ziren laborari-multzoaren bilakabidearen erregela, salbuespenak baino. Proletalgoaren kasuan, ez da gauza bera gertatzen. Marxek ederki deskribatu zuen bere garaiko gizarte kapitalista: plusbalioaren legea hartu zuen oinarritzat, eta plusbalioaz jabetzeko borrokaren ondorioz, proletalگوaren egoera miserablea nola hedatzen eta betikotzen zen erakutsi zuen. Eta, nahiz eta pauperizazioaren, txirotzearen, teoria eztabaiaezinezko balioduna ez izan, gure gizarte kapitalista argi eta garbi dena zera da: proletalگوa ez dagoela, inondik ere, iraultza burgesa egin zuten burgesen egoeran. Erabaki ekonomikoetan duen munta oso eskasa da, eta ez du kasik existitzen berak kontrolatzen duen industriak. Hemen dialektikak salto ikaragarria egiten du hutsaren gainean; ezdeusetik nagusi izaterako pausoa, edo ezin daiteke eman, edo Marxek esplizitaturiko arrazoi eta mekanismoetatik aparte egin beharko da.

Nahi bada, alokatu batzu produkzio- edo gizarte-kontrolaren leku klabeetan daudela esan daiteke: hauek «koadroak» ditugu, teknikari hautuak, manatzen duten «jakintsuak». Proletalگوaren abangoardia dira, ala kapitalisten morroi hoberenak? Bigarren hipotesi (edo baieztapen) hau egiazkoa baldin bada, gero eta ukatua goa gertatzen da proletarioek (marxismo ortodoxoari jarraituz) iraultza egiteko duten gaitasuna. Honela, ondorio lazgarri eta interesanteetan sartzen gara. Hau da: teknikaren hedapena eta boteareen zentralizazioa uztarturik ari dira aitzinatzen, ez teknikaren

garapenak berez horrela eskatzen duelako, baizik eta zentralizazioa emendatzen eta azkartzen duten teknikaren posibilitateak direlako *nabitara* onartzen eta aurrera eramaten direnak. Hots, batu egiten dira teknikarien erresuma produkzioan, eta teknikarien eginbidea gizarte-kontrollean: Mendebaldean, 200 edo 600 Multinazionaletako agintarien eta nagusien pean egiten da; Ekialdean, berriz, Alderdiko burokrata eta nagusien pean. Ondorio lazgarria da, askoren ustez, kapitalismoa eta sozialismoa ez direla erakunde sozial posible bakarrak; teknofaxismo zentralizatu bat, non Estatuak hurbildik kontrolatzen bait du gizarte, hirugarren posibilitate bat bezala agertzen zaigu. Hemendik ikusita, Ekialdeko eta Mendebaldeko Estatuaren arteko liskarra ez da soilki edo nagusiki kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko gatazka, bi teknofaxismo militar eta industrialen arteko esperantzarik gabeko borroka baino.

Esperantzarik gabekoa diot, eta berehala damutu naiz. Damutu, esperantza (utopia bezala) iraultzaren parte bat delako. Aipatu dudan hipotesian, eta ikuspegi libertario batetik begiratuta, borroka iraultzailea ez da soilki ekonomiak bereizten dituen klaseen arteko borroka bat, baizik eta, batez ere, hierarkiak eta gizarte-kontrolak elkarren etsaitzen dituen zapaltzaileen eta zapalduen arteko gatazka. Eta gatazka hori ulertzeko, marxismotik atera beharra dago, beste erreferentzi puntuak hartu beharra, zerbait berri eta zaharren zain, zuloatik aterako gaituen praktika baten bila ibili behar da... Gero itzuliko naiz berriro puntu honetara.

### 2.2.2. Proletalgoaren iraultzazaletasuna

Natorren orain Marxen kontradikzioetara.

Marxek egindako lanetan, gauza asko aurki daiteke; eta, beste irakurketa bat eginez, modu desberdin batez aurkez liteke proletalgoaren teoria: proletalgoa da, alde batetik, menperatua dagoena eta produkziobideen giltzarria bere eskuetan (nahiz eta horretaz ohartu gabe) daukana; era berean, horren kontzientzia hartzen ari den klasea dugu langileria. Eta bilakabide honetan, nahiz eta produkziobideen nagusia ez izan, produkziobide guztiak behar bezala erabiltzeko gauza dela konpreni dezake proletalgoak, burgesiaren

parasitotasuna uler dezake, eta iraultza egiteko gai bihurtu. Marxentzat, beraz, proletalgora ez da soilki miseriara bultzatua den giza multzoa, baizik, eta era berean, bere klase-kontzientzia hartzen ari den klase iraultzailea; komunisten lana (eta honela konprenitzen zituen Marxek bere lan teorikoak eta Internazionalaren eginkizuna) kontzientzi hartze hori arintzea dateke.

Demagun baietz, eta interpretazio horrek lehen egindako kritikari indarra kentzen diola. Halere, bigarren irakurketa hau urrundu egiten da jite materialista eta deterministetatik; iraultza egiteko gaitasunaren arazoan, kontzientziari ematen dio lehentasuna, eta utopiko arbuaiatuen heinera darama marxismo zientifikoa... Nahiz eta hemen «utopiko» batzu, «zientifiko»ak baino gehiago maite diren, nire kasuan bederen. Kontzientzi hartzeko prozesu honetan, Marxek premiazko munta ematen dio langileen kontzentrazioari: *Kapitala*-ko hitzez esateko,

«Explotazioa emendatzen delarik, emendatzen da langile-klasearen erresistentzia ere, gero eta disziplinatua, batua eta organizatua delako, produkzio kapitalistaren mekanika propioarengatik».

Fourier-ek hirurogei urte lehenago beste mintzaira bat izan zuen lan alokatu eta industrialari buruz; ederki deskribatu zuen gizona: zapaldua, humildua, makina bihurtua, bere zorion-instintuak lantegietan zokoratua. Stajanovistek lan-disziplina maite izan badute ere, gaurko langile askok, lantegiak nazkaturik, nahiago lituzkete Fourier-en hitzak, eta ez lukete onartuko lantegian inposatutako disziplina iraultza egiteko eskola positiboa denik. Menturaz ez dakite aski dialektika... Gero helduko diot berriz hari honi.

### 2.2.3. Plusbalioaren teoria

Baina holako zientifikotasunera itzuliz, aipa dezadan beste zerbait: plusbalioaren teoria da marxismoaren ardatz nagusi bat, nire ustez. Eta teoria honetan, etika iraultzaileari eta iraultzaren posibilitateari hotzikara sortzen dieten puntuak aurkitzen dira.

Marxek, emandakotzat, ahituezin eta baliagarritzat kontsideratzen du natura; honetan, XVIII. mendetik datorren antropozentrismo optimista industrialaren beste intelektual bat bezala definienezakeen. Noski, interpretapen hau ez da gizakume guztiena; Europatik at, eta herri-mentalitateetan ere, badakigu onura guztien ama gurgarritzat jotzen dela natura. Baina XIX. mendean doainik emandako zerbait bezala kontsideratzen zuten natura Europa makinistaren semeek, gupida gabe eraldatzeko eta baliatzeko gauza bezala, hain zuzen. Balioa ez dator, hauek diotenez, naturatik, gizonaren indar-lanak sortzen bait du! Dakikezuenetz, aitzinako Greziar, Txinatar eta Egyptiarrentzat, laborantza zen balioen sortzailea, naturaren eginkizun sortzaile propioa bideratzen zuelako; gauzak transformatzen zituzten makinak ez ziren, berez, balio-sortzaile. Fisiokratak, gero, onartu egin zuten teoria hau. Geroago, makinismoaren garaian beste ihardespren bat eman zuten Adam Smith-ek: edozein sistema edo eginkizun ekomikoren jite produktiboa neurtzeko, lanaren erizpide<sup>\*</sup> batua erabili zuten. Lurrak, itsasoak edo makinak ez dute berez balioa sortzen, ekonomikoki mintzatuz haien baitan giza lanaren kantitate (eta kalitate) bat erabiltzen ez bada Marxek onartu eta eraldatu egin zuten Smith-en teoria, lan-indarraren kategoria sartuz. Baina, azken funtsean, balioa giza aktibitatearekin lotua gelditu zen. Batzuk, «falokratiko»tzat jo dute teoria hau, natura pasibo gisa kontsideratzen duelako, eta lana «ar ernatzaile» bezala... Utz dezagun mementuz bederen, sobera urrun garamatzakeen ikuspuntu hau.

Natura, hartaz baliatzeko emana zen ber, «herri primitibo»ak ez ziren «lehen gai»en lurretan bizi ziren basatiak baizik, natura bezain emanak eta baliagarriak zirelarik hauek. Askoren ustez, eta bat nator hauekin, Marxek naturari eta herri primitiboetarako buruz zuten mespretxua, XIX. mendeko ideologia europarrari dago lotua, eta plusbalioaren teoriarekin uztartzen ahal da. Demagun beste abiapuntu bat; XVIII. mendearen bukaeratik Marxen garairarte, honela entelegatzen zen herri «primitibo»en ekonomia: tresneria eta ezagutzarik gabe, indibiduoek ezin dezakete subsistentziarako baizik produzitu; gaineratikorik gabe, ez zegoen trukerik, ez dirurik, ez eta zibilizaziorik ere... Marxek gauza bera pentsatzen zuen; autarkia zen, haren ustez, komunitate primitibo haien bizimodu normala, eta honek explikatzen zuen haien egonkortasuna. Noski, Boas-ek eta Malinowski-k XX. mendearen hasieran egindako aur-

kikundeek atzera bota dute irudi hau; egun, «basati» horiek justu aldrebes kontsideratzen dira: produkzioerik gabeko metatzaille, xahutzaile huts. Ekonomia produktibistatik lehen bezain urrun, eta optika honetatik beti kondenagarri, halere.

Baina herrion naturarekiko eta giza harremanekiko jarrerak esankorrek bazaizkigu gaur, marxismotik at aurkitu izan zaie esannahia.

Edozein gisatan ahituezina zirudien naturak XIX. mendean, eta basatiak zibilizazio industrialak inguratuko eta integratuko zituen gizagajoak besterik ez ziren. Bitartean, metropolietan (eta, beti Marxi jarraituz, hemen zetzan iraultza eta giza etorkizunaren gakoa), langile eta burgesen arteko borroka plusbalioaren inguruan ematen zen, lehenak pobreziaaren aurka, bigarrenak irabaziaren alde. Gaurregun, gauzak ezin daitezke horrela ikus. Ongi dakigu natura ez dela ahituezina, oreka hauskorra duela nabari da, eta indar produktiboen garapenak katastrofe kosmikoa ekar dezakeela (eta badakarrela) begibistan dugu! Ekologiaren doktrina, ekologisten borroka, ez da marxismotik jaioa eta, anitzetan, marxista indutrizale-desarroitzen kontra egin behar da tamalez. Plusbalioaren inguruko liskarrek era berean, ez dute zentzu bera XIX. mendeko suburbio ingelesen eta egungo gizarte kontsumistan. Langileriaren parte batek ez du, aspaldidanik, bizitzeko eskatzen, bai zik ustelkeriak kontsumitzeko, nagusien bizi mailara heltzeko edo hura imitatzeko, publizitateak eta ideologia zapaltzaileak sinestazten dioten era tristean. Eta metropolietan zer banaturik badago, neurri on batean bederen, Hirugarren munduaren explotaziotik dator; explotazio hau, prezeski, natura eta lehengaien lapurketa edo baliaketa soilean finkatzen da.

Noski, marxismoak (Marx ondokoak, batez ere) inperialismoaren kritika egin du, eta nazioarteko lan banaketa salatu du; herri kolonial eta dependenteen borroketan parte hartzen duten militante asko marxista dira. Baina ez al dira marxismoaz janzen beren nazioen enplegu-maila defendatzeko, edo beren bezeria sindikalaren onurak begiratzeko, nazio aberatsetan egiten den plusbalioaren banaketa hori onartzen duten beste asko ere? Marx berbera ez da hobengabea arazo honetan. Kolonizazioari buruz zituen jarrerak, kontradiktorioak haiek ere, ez ziren inoiz kondena hutsezkoak izan; Indiako kasua artoski zuen aztertu, eta, nahiz eta Ingelesen

dominazioak bertako egiturak errotik desegiten zituela esan, nahiz eta ankerkeriak salatu, kolonialismoaren alde positiboak ikusten zituen, nahiz metropolietan egiten zen akumulaziorako, nahiz kolonietan bertan gizarte berrien haziak ereiten zirelako. Ez al zituen proletalgora eta industria egiazko libertatearen aurrealdintza kontsideratzen, etorkizunerako? Hemen, eta Engelsek Austria-Hungariako eslaboen kasuan bezalaxe, injustizia «partzial» bat onartzen zuen, historiaren zentzu askakor orokorraren izenean. Esan ohi da, gero eta orokorragoa den teoria batek gero eta errazago onartzen dituela teoriar sartzen ez diren astakeriak eta injustiziak. Baina itzul gaitezen harira.

Nire ustez, Marxek, teoria eurozentrista batetan sartuta, «atzeratu»enak edo «basati»enak zirelako zituen mespretxatzen kolonizatuen eskubideak. Dialektika, ideologia bihurturik, biziki langeso da.

Are gehiago, esan genezake teoria-ideologia hark protagonista bat behar zuela, langile-klasea alegia, eta protagonista hori alienatuz eta ideologizatuz, gizartearen egiazko martxa eta egoera ukatzera helduko zela. Gainaipatu ditut estatu kapitalistetako langile-alderdien eta sindikatuen jarrerak, beren jite ezsolidario ikaragarriekin. Prezeski, hurbil dugu Frantzia: Algeriako gerlari buruz, esate baterako, detaileak ukan zituzten komunistek, baina ez ziren gobernuaren kontra jazarri; gaur, armen komertzioari buruz, enpleguaren defentsa dute puntu nagusia, bestalde armek duten esanahia edo nora doazen eskomunikatuz; hiritar-eskubideak ukatzen zaizkielarik lan egiten duten etorkinei buruz, ez dira arrazismotik urrun ibili azken urteotan. Ez dugu gauza bat ahaztu behar: gizarte kapitalistetan, langileen erakundeek ez dute beti indar iraultzaile gisa funtzionatzen; interes profesionalen defentsa sar daiteke sistemaren kohesioaren barnean, sistemaren izaera zapal-tzailea gorabehera, zer banaturik denean.

Onar daiteke, eta ni hori sinestua nago, langileria beti zapaldua izango dela, eta potentziaz beti iraultzaile dela. Baina langileria eta iraultza besterik gabe identifikatzea ez da zehatza, nire eritziz berderen; Alain Touraine-k dioenez,

«langileria ez da Historia gurutzatzen duen Jainko bat, klase herritarren era berezi eta pasakorra baizik; era berean, haren lana eta eginkizuna anizkorrak izan daitezke».

Zapalduen interesen aurka ari daiteke langileriaren atal bat, kontextu historiko batetan. «Primitibo»ak eta «lumpen»ak mesprextatuz, marxismoak bere barne-kontradikzio bat garbitu nahi du: ideologia bat dela frogatzen du soilki.

### **3. Marxismoaren anbigutasunak**

Marxismoaren ondorio batzu anbiguoak dira, bitarikoak edo hedatu gabeak, eta anbiguitate hori praktika zapaltzaile askoren sorburua da. Zilegi bekit anbiguitate horiek behin eta berriz azpimarratzea; eta, are, anbigutasunari zentzu bat aurkitzera abiatuko naiz. Aipatu auzietan, sonatuenak gogoratuko dizkizuet.

#### **3.1. Proletalgoaren kontzientzia**

Proletalgoaren kontzientzia duzue bat. Langileen askapena, langileen beren obra izango dela azpimarratu zuen Marxek. Baina, denbora berean, proletalگوak, kontzientzia lortzeko, alderdi politikoan organizatu behar zuela esan zuen. Marxismoaren jarraitzaile ofizialenek, kontzientzia hori kanpotik zetorrela esanez, alderdiaren mistika eta diktadura dituzte asmatu: Kautsky eta Lenin dituzue linea honen arbasoak, eta Stalin ondorengo ezagunena. Ez dute, egia esan, gauza bera pentsatzen «konsejista» deitu marxistek; Lenin, hauen ustez, Marxengandik bereizi egiten da, ukatu egiten du Marx. Gero emango dut honi buruz dudan eritzia.

#### **3.2. Demokrazia burgesarekiko jarrera**

Demokrazia burgesarekiko jarrera dugu beste istilu bat. Marxek ederki salatu zituen sozialismoa jokaera parlamentari eta legalista hutsetan amildu nahi zutenak, baina demokrazia honen instituzioetan parte hartzea onartzen du; eta, nahiz eta biolentziaren



eginkizun historikoa deskribatu, ez du inoiz esan biolentziarik gabe ez dela iraultza emango. Areago, Ingalaterra, Holanda eta EE.BB.etan –hau da, demokrazia hedatuetan– bide bakezaleen bidez iraultza egin litekeela onartzen du. Horiek horrela, beste bi linea datoz gibelean: kontradikzio ekonomikoaren ondorioz eta biolentziarik gabe iraultza itxaroten duten erreformistak, batetik, eta bestetik, harmada herritar–gorriak organizatzen ederki dakitenak.

### 3.3. Trantsizio–aldia

Trantsizio–aldiari buruz, eta hona beste puntu nagusi bat, ikaragarriak dira kontradikzioak Estatu proletari eta proletalgoaren diktaduraz. Proletalgoak botere politikoa hartu egin behar duela dio, eta Estatu erabili behar duela etsaiak suntsitzeko; era berean, indartuz doan Estatu honetan, bere suntsitze propioa umotzen ari dela dio. Marxentzat, naturaren (edo, bederen, gizarte–bilakabidearen) lege objektibo bat zen dialektika; harentzat oso ulergarri zatekeen azkartzen ari zen autoritatea askatasun bihurtuko zela, baina paradoxa hegeliano honek asaldatu egiten zuen Bakunin; honek autoritateak autoritate gehiago baizik ez zuela ekarriko pentsatzen zuelako sinpleki. Sinpleki, eta egiazki: sobera ezagunak dira proletalgoaren diktaduraren ondorioak eta egiazko jiteak, hemen gai honetaz tematzeko.

Diodan, halere, ahulezia batzu dituela Marxengan estatuaren teoriak. Oso eskasa da harentzat burokratea eta politikarien eginkizuna: Klase zapaltzailea burgesia da; Estatu bere tresna du, eta estatuaren zerbitzariak (edo azalezko buruzagiak, burgesiaren morroi baizik ez dira. Beraz, klase zapaltzailea, klase nagusia bera, desagertzen bada, morroiak ere desagertuko dira. Klase zapaltzailea guztiz bat edo bateratua dagoela sinestea, teoria marxistaren osagai nagusi bat da; haren barne–liskarrak ez dira azalekoak baino. Bonapartismoari, Bismarck edo Pariseko Komunari buruzko idazkiak arretaz irakurtzen badira, ordea, noizbehinka badirudi Marxek onartuko zukeela Estatu gizarte osotik aparte jar daitekeela, politikari eta funtzionarien eskuetan, klase–egoerari adi eta

lotua, bai, baina burgesiaren tresna *zuzena* izan gabe; halere, azken funtsean beti atzera joko du Marxek, eta behin eta berriz baieztatuko du Estatu-aparatoa kontrolatzen duen minoriak ez duela inoiz sortu ez botere politiko independente bat, ez eginkizun tekniko ezinbesteko bat. Arazo honi buruz, Marxen testu deskriptibo eta teorikoak kontrajarri ohi dira, eta bigarrenek atxekitzen dute lehentasuna.

Logika honen arabera, burgesiarik gabeko eta sozialismoaren erresumetan, nahiz eta Estatuak jarraitu, estatu-funtzionariak ezin izan litezke proletalgoaren zerbitzari baizik. Bakuninek, berriz, ez zuen hori uste:

«Klase berri bat izango da, zioen, egiazko edo gezurrezko jakintsuen hierarkia berria, eta mundua, jakinduriaren ize-nean, minoria zapaltzailearen eta gehiengo zapaldu berriaren artean banatuko da. Honelako erregimen batek oso arrenkura handiak sortuko ditu masetan, eta Marx jaunaren gobernuak arrenkurak bezain handia izango den harmada beharko du».

Gaurko erregimen marxisten analisisian —esan nahi bait da, analisi kritikoa— linea ideologiko desberdin askoren teoriak aurki daitezke: eskuineko neomakiabelistak (Pareto etab.), anarkistak, trotskystak, kontsejistikak, Djilas eta beste transfugak... Halere, argi dagoena zera da: han badela klase edo kasta zapaltzaile berri bat, eta, batzuren ustez (bat nator haiekin), estatu-boterearen kontrolak produkzio-bideez jabetzeko gaitasuna eman diela. Beraz, botere politikoa eta hierarkia *berez* kritikatu behar dira, eta ez soilki klase nagusien zerbitzari arrunt gisa. Marxek egin ez zuen urratsak, ederki erraztu die bidea burokratei.

Badira Marx libertario, estatuaren etsai ikusi nahi dutenak ere, nahiz eta heterodoxian, marxismo ofizialetik at. Baina marxismoak izan duen munta historikoa ikertu nahi bada, nire ustez, praktika-  
ren erizpidea aplikatu behar zaio, Leninek eskatzen zuen bezalaxe; eta beldur naiz praktikaren erantzunak ez ote duen egiazko marxismoa, koantitatiboki bederen, marxismo ortodoxoa dela adierazten.

## 4. Laburtuz

### 4.1. Autoritarismoa

Kontradikzio hauek aipatu ditut, bereziki, azaleko nahaspila honetan hari gidari bat aurkitu nahiz. Eta, nire ustez, haxe dateke: Marx autoritarioa zela, eta autoritateari buruz zuen jarrera pertsonalaz kutsatu zuela bere ideologia. Prusiano, teuton eta abar, izan litezke eztabaida honetan sar zitezkeen termino merkeak. Ez dut horretan sartu nahi. Zergatik ez dakit, baina autoritarioa zela, bai.

Langile-mugimenduan Marxen garaian gertatu zen liskarrik esankorrena, marxista eta anarkisten artekoa da. Hemen neur daiteke pertsonaia. Bakuninistekin izandako polemiketan, eta batez ere 1872 inguruan gertaturiko hausturan, jite hori ongi agertzen da, ukaezinezko eran.

Marxek eta Bakuninek 1844ean ezagutu zuten elkar, Parisen. Laister (1848an) «Neue Rheinische Zeitung»-en afera agertzen da; Marxen lagun batek, Parisetik igorritako gutun batean, Bakunin Errusiako espia bat zela baieztatzen du, eta George Sand-en lekukotasuna inbokutzen da bertan. Marxek agertarazi egiten du gutun hau, baita, gero, Sand-ek gezurtatzeko egindako izkribua ere. Hemen dator etsaigo pertsonala. Baina askoz handiagoa zen etena ideietan. Bakuninek Marxen lan zientifikoa miresten zuen, eta materialismo historikoa, proletalgoaren eginkizuna eta Internazionalaren ideia Marxengandik onartu zituen; halere, 1870-72an Marxen pangermanismoa kritikatzten du. Pangermanismo honetan, kritika nazional eta nazionalisten gain, Estatuarekiko adorazioa salatzen zuen Bakuninek dagoeneko.

Horiek horrela, 1870-1871n gertatzen dira harreman hauetan Marx hobekien erretratatzten duten gertakariak. Aipa ditzadan Kugelmann-i igorritako «Communication Confidentielle», eta Lafargue-ri idatzitako karta (1870.04.19an); horiekin batean, Londresko Konferentziaren aktak eta lekukotasunak. Eszizioaren arriskua zela eta «ulergarriak» dira beharbada terminoak: teoriak ez daki deus, ezjakina da, berbalapikoa, tontotzarra, edo diktadore moskobita... Baina gogorra da 1848ko aferarekin berriz ere lotu, eta

Bakuninek Europa nahasteko diru errusoa hartzen zuela baieztatzeari.

Funtsean, Lehen A.I.T. oso heterogenoa zen, oso anarkikoa. Han ziren tradeunionistak, sozialdemokratak, bakuninistak,... Marxen asmoa, Den Haag-en (La Hayan) (1872) eta gero zentrua New-Yorka eramanean, erakunde homogeno eta zentralizatua sortzea zen; Bakuninen asmoa kontrakoa zen, noski, autonomia eta deszentralizazioa begiratzeko.

Eta Marxi hierarkiaren eta larderiaren kritika zuzena falta zaio, hain zuzen. Bakuninek idatzia ez zuen ulertu, edo ez zuen ulertu nahi izan:

«Beharrezkoa da diktadura, Estatu baten aurka beste bat sortzeko egiten diren iraultza politikoetan; ezinezkoa da zapalkuntza guztiak batean suntsitu nahi diren iraultza sozialan».

#### 4.2. Iraultza ezberdinak

Hitz batez, eta laburtzeko, Iraultzak konnotazio ezberdinak dauzka. Lana edo lan-indarraren explotazioa desagiteko, marxistak eta anarkistak bat datoz jabego pribatua abolitu behar dela esatean; baina produkzio-bideen jabegoa ezin uler daiteke hierarkia eta autoritate gabe. Burgesia jabegotik erauziz, autoritatearen eta estatuaren problemak berez konponduko zirela baieztatzean, guztiz azientifiko eta utopikoa zen Marx. Aieru bat egin zuen, besterik gabe.

Noski, ezin eska dakioke inori etorkizuna nahitaez igartzea; nekez jakin zezakeen Marxez zer gertatuko zen jabego pribatua abolituz gero, eta jabego pribatuaren gizarte kapitalista ongi aztertzea aski zuela esaten ahal da. Baina autoritarismoaren kutsuaz markaturiko kontradikzioetan finkatu da marxismo ofiziala bere mustrokeria eraikitzeko: ukazina da Marxen erresponsabilitatea. Ukazina dela diot, zeren haren garaian langile ta pentsalari askok esan eta praktikatu bait zuen batera egin behar zela Iraultza soziala posible egiteko edozein hierarkia suntsitzea eta jabegoa abolitzea. Jabegoa, jakinduria, burokrazia, edo alderdiaren barneko egoerek

ematen duten boterea elkarrekin lotuz eta salatuz, iraultzarako beste bide bat erakutsi zuten Bakuninen inguruan mugitzen zirenek. Jabego pribatua abolitzea beharrezkoa da, baina ez da aski; hierarkia guztiak suntsitzea, berriz, beharrezkoa izatez gain, aski dateke.

Marxek ez zuen horrelako ahotsik entzun nahi izan; are gehiago, iraina, kalumnia eta ustelkeria erabili zituen ahotsa isil arazteko. Horregatik, eta marxismo autoritarioaren aurrean gogaitua, erantzule daukat Marx ere eta aitortzen dizuet ez zaidala begikoa.

### 4.3. Balantzea

Hemen amaitzen da, beraz, amodiozko eta gorrotozko beste historio arrunt bat? Auskalo! Gizarte-zientzietan, asko zor diogu Marxi, asko zor diot. Gaur dagoen marxismo ofizialari buruz, gauza bera esaten ahal da? Ezetz pentsatzen dut, boterearen ideologia bihurtu bait da marxismoa.

Langileriaren eta alderdiaren arteko dialektika dela eta, partidoa «jakintsu kolektiboa» dela baieztatu du ortodoxiak, gizarte-bilakaeraren tendentziazko legeen arabera. Tesi hau, *partijnost* deitua, Leninengan aurki daiteke lehen aldiz explizitatu, *Materialismoa eta enpiriokritizismoa* liburuaren laugarren atalean. Hurrengo pausoa, erraz emana, zientzia osoa Alderdiaren interesen arabera eratzea izan da; Sobiet Batasuneko Alderdiaren Historia, hamaika aldiz berridatzia, zientifikotasun horien frogara edo adibide nagusitzat joenezake.

Azken funtsean, marxismoa ideologia hutsa bihurtzen da, ego-zentrikoa eta antidialektikoa. Borrokatzeko tresna bat da, besterik gabe: mundua zintzo eta gaiztotan banatzen du, ikuspuntu desberdinak «saldukeriak» edo «konplotak» baizik ez dira; historia, orainaren zerbitzari soil egiten du, eta zerbitzatu behar direnak, noski, Partidoaren interesak dira. Marxek berak, alienazioarekin eta klase nagusien interesekin lotzen du ideologia, mundu-ikusera aldrebes eta tronpakor bat adierazteko; dudarik gabe, marxismo ofizialak momifikatu egin ditu borroka sozialen ezagutza eta ikerketa, Ekialdean estatuaren boterea goraiatuz, eta Mendebaldean de-

mokrazia burgesaren fetitxismoa onartuz. Beldur naiz, ezagutzei dagokienez, ez ote diren gizarte-kontrola eta bonba atomikoa honelako marxismoak eskain diezazkigukeen «balio» bakarrak... Harelere, marxismo ofizialetik at dauden batzuek, kontsejismoaz eta anarkismoaz nolabait kutsatuak, lanean ari dira, eta gaurko hitzal-diak asko zor die.

Gramsci-ren pentsaerarekin lotzeko, demagun marxismo «ofizialak» positibismo-determinismoa onartu duela batez ere, eta besteek marxismoan dauden indikazio implizitoak, hedatu gabeko posibilitateak. Horrela da, agian, marxismoaren kontinentea oso zabala delako, zabalegia.

Baina, gure Euskal Herri honetan, gure erresistentzia finkatzen duten loturazko arrazoiak aztertzeke ere ez zait aski marxismoa. Ez dakit *Argia*-k Aberrri Egunari buruz atera duen zenbakia irakurri duzuen (970. zb., 1983-IV-4). Beren lekukotasuna ematen dutenen hitzetan, taldearen kohesioa eta borrokatzeko nahia, klasetik aparte dagoen beste errealitate batetan finkatzen direla susma daiteke; hizkuntza, desioa, natura, leinua eta ez dakit zer nahasten dira arrago berezi batetan, marxismoaren kategoria tipikoetan irreduktible den arragoan... Zientzian ere ukatu beharko ote da marxismoa? Ez dakit, baina borrokan ukatua, gauditua dela pentsatzen dut.

B.

---

## MARX Y LA REVOLUCION

## MARX ET LA REVOLUTION

*La primera parte de este trabajo ofrece el testimonio personal de Beltza sobre sus relaciones con el marxismo. Revive la euforia y seguridad que la «conversión» al marxismo comunicaba al militante abertzale de izquierdas de hace 15 ó 20 años. Pero también recuerda la amarga desilusión que siguió a esa primera etapa. El autor enumera los varios factores teóricos y prácticos que le han llevado a la convicción de que la teoría marxista posee en sí misma gérmenes de degeneración, y a la búsqueda del fundamento de la esperanza revolucionaria «en una ética contraria a cualquiera opresión y en la conciencia que tienen o pueden tener los oprimidos para romper sus cadenas».*

*En la segunda parte, Beltza se ciñe al análisis de Marx. No satisfecho con las interpretaciones «ortodoxa», historicista, y althusseriana de Marx, prefiere adoptar el modelo interpretativo de un Marx «contradictorio».*

*Se analiza, en primer lugar, la concepción del proletariado, protagonista de la revolución. Descubre diversas contradicciones tanto a nivel de teoría como de la práctica que ha motivado. Luego, en relación a la teoría de la plusvalía, denuncia el desprecio de Marx hacia los pueblos primitivos, que tendría sus raíces en la mentalidad eurocentrista del s. XIX y en la teoría del «valor», producido exclusivamente por el trabajo. Denuncia asimismo las valoraciones contradictorias del colonialismo, justificado muchas veces «en nombre de un sentido liberador universal de la historia».*

*Las contradicciones de la teoría, Beltza las ve corroboradas en la práctica de los Partidos comunistas, en el fracaso de la solidaridad internacional de los trabajadores. No se puede identificar clase trabajadora y revolución.*

*Por último se refiere a tres ambigüedades teórico-prácticas del marxismo: 1) el proletariado se autolibera, pero necesita ser organizado desde fuera; 2) la violencia cumple una función histórica, pero ciertas democracias burguesas pueden acceder al comunismo pacíficamente; 3) el Estado tiene que desaparecer, pero en la etapa socialista de transición, debe fortalecerse.*

*El hilo conductor de todas estas contradicciones es el talante personal autoritario de Karl Marx, que se refleja también en su ideología. Esto se puede comprobar en las agrias polémicas que sostuvo con Bakunin.*

*Beltza reconoce su deuda para con Marx, pero confiesa que no debe nada al «marxismo ortodoxo». Constata que el bagaje del marxismo le es insuficiente para justificar su lucha en Euskal Herria. Termina preguntándose si no habrá que superar el marxismo en la ciencia, como de hecho se ha superado ya en la lucha.*

La première partie de ce travail nous offre le témoignage personnel de Beltza sur ses rapports avec le marxisme. Il revit l'euphorie et l'assurance que la «conversion» au marxisme communiquait au militant abertzale de gauche d'il y a 15 ou 20 ans. Mais il rappelle aussi l'amère déception qui a suivi cette première étape. L'auteur énumère les divers facteurs théoriques et pratiques qui l'ont mené d'une part à la conviction que la théorie marxiste possède en elle-même des germes de dégénération, d'autre part à la recherche du fondement de l'espoir révolutionnaire «dans une éthique contraire à toute oppression et dans la conscience que les opprimés ont ou peuvent avoir pour rompre leurs chaînes».

Dans une deuxième partie, Beltza se limite à l'analyse de Marx. Non satisfait des interprétations «orthodoxe», historiciste et althusserienne de Marx, il préfère adopter le modèle interprétatif d'un Marx «contradictoire».

L'auteur analyse en premier lieu la conception du prolétariat, protagoniste de la révolution. Il découvre diverses contradictions autant au niveau de la théorie que de la pratique qui en découle. Ensuite, en ce qui concerne la théorie de la plus-value, il dénonce le mépris de Marx envers les peuples primitifs, mépris qui aurait ses racines dans la mentalité eurocentriste du XIX siècle et dans la théorie de la «valeur», produite exclusivement par le travail. Il dénonce aussi les appréciations contradictoires du colonialisme, souvent justifié «au nom d'un sens libérateur universel de l'histoire».

Pour Beltza, les contradictions de la théorie se voient corroborées dans la pratique des Partis communistes, dans l'échec de la solidarité internationale des travailleurs. *On ne peut pas identifier classe ouvrière et révolution.*

Finalement, il se réfère à trois ambiguïtés théorico-pratiques du marxisme: 1) le prolétariat s'auto-libère, mais il a besoin d'être organisé de l'extérieur; 2) la violence joue une fonction historique, mais certaines démocraties bourgeoises peuvent accéder au communisme pacifiquement; 3) l'Etat doit disparaître, mais dans l'étape socialiste de transition, il doit se renforcer.

Le fil conducteur de toutes ces contradictions est le caractère personnel autoritaire de Karl Marx, qui se reflète aussi dans son idéologie. Les vives polémiques qu'il a entretenues avec Bakounin en sont une preuve.

Beltza reconnaît sa dette envers Marx, mais avoue ne rien devoir au «marxisme orthodoxe». Il constate que le bagage du marxisme ne lui suffit pas pour justifier sa lutte en Euskal Herria et achève son travail en se demandant s'il ne faudra pas dépasser le marxisme dans la science, comme, en fait, il l'a déjà été dépassé dans la lutte.



# Marxismoaren sisteman nazioarentzat tokirik bai ote?

Jokin Apalategi

Marxismoa eta nazioa zertan aurkitzen eta zertan borrokatzen diren, ikuspegi ezberdinetatik so eginez ikas liteke. Ikasi ere, azken hamabost urte hauek zehar, ikasi izan da gure Euskal Herrian. Horren lekuko, burutuz gero inprenta dastatu izan duten euskarazko obra batzuk aipatuko nituzke. Aipagarrien bezala, horietako lau izendatuko ditut: Joxe Azurmendiren, *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Bereterretxeren *Nazio arazoa*, Gotzon Garateren, *Marx eta nazioa*, eta Paulo Iztueta/Jokin Apalategiren, *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*. Nik, oraingoan, aurreko lan hauen bideak utziz, marxismoaren sistema egiten duen ardatza deskribatu nahi nuke. Eta hori egiteko, nazioak sistema horretan duen garrantzia edo balorapena azpimarratuko dut.

## I. Zer da marxismoa?

Galdera ausarta, zabala eta zaila, egin dugun hau. Bena-benetan. Izan ere, jakin dakiguna bait da marxismoa XIX. mendean Europako Estatu Industrialduetan ematen

ziren gorabeheren artean borobildutako zerbait dela. Mende hartan landutako ikuspegi-sistema izanik ere, ordea, gaurkoarekin lotura hertsienean jarraitzen du. Zeren, Marxek ikertu zuen produkzio-molde hura eta bertan errol berezi batekin agertzen zигun proletalgoa, aldakuntza guztiekin ere, iraun bait diraute oraino. Honela bada, marxismo hura, analisi-metodo bezala hasi zena, laister, sistema politiko baten teoria gidatzaile bilakatuko zena, finean, mundu-sistemaren ikuspegizat hartuko zuten batzuek.

Bestalde, kuriosoa bada ere, industrietze hori ezagutu ez duten herrientzat eta, ondorioz, oraino proletalgoaren klase berri horren berririk ez dutenentzat ere, gizarte berrirako bidean teoria gidatzaile bilakatzea lortu du. Areago doana, teoria hori gidari duelarik hamarnaka Estatu altxatu da munduan zehar.

Hau guztia kontutan izanik, berehala ondorioztatu behar duguna da, marxismoaren muina zein den agertzea aski eginkizun konplikatu dela. Zeren, muina eta honen osagarriak elkarrengandik bereiztea ez bait da beti erraza, eta, eginkizun horretan saiatzean, ahantz bait genezake sakonenekoa denik ere. Halere, egiteko hau egitea eskatu zaigunez, saiatuko gara marxismoaren zutabe-ardatzak ahalik eta hobekien agertzen.

## Ikerketa

Honela bada, lehenik eta guztiaren gainetik azpimarra dezadan, marxismoa ikerketa-saio bat izan dela. Zer-nolako karrilen gainean egin eta aurrera eraman izan den ikerketa hori? Aldizka eta piskanaka ihardesten saiatuko gara. Sarrera gisa, gogora dezadan, marxologo batzuek, Marxen ikerlana aztertzerakoan, bi Marx bereizten dizkigutela gaurregun. Bata, Marx gaztea litzateke, hots, bere aitzineko edo garaiko pentsalariak esandako edo aurkitutakoein eztabaidan biziko dena. Eta bestea, Marx heldua litzateke, hau da, ordurarteko pentsalarietatik bereizirik, bere ikerketa-lanaz mundu-sistema berri bat teorizatzen heldu dena. Irakurketa hau proposatuz datozkigun artean ezagunena, Louis Althusser filosofo frantsesa dugu. Eta berez filosofi alorreko eritzi bezala altxatzen badu ere bere irakurpuntua, eskola egiten du, eta, nola politikan hala ekonomian, soziologian eta gainerako gizarte-jakintzen

arloetan, arrakasta izanen dute haren eritziek. Honela, diszipulu eta jarraitzaile anitz izanen du gure egunak arte.

Ez goaz bereizketa honen arrazoizkotasunaz eta baliozkotasunaz eztabaida bat irekitzera. Oraingoaz, aipaturiko horretan utziko dugu. Gure oraingo egitekoa, hastapenean esan dugunez, hori baino zehatzagoa eta bestelakoa bait da. Dena dela, jakin dezagun, eta agertu dugun eztabaida honek horretarako bidean jartzen gaitu, marxismoa azterketa anitzen ondorioz burutu eta altxatutako zer-bait dela.

### Hipotesia

Edozein azterketa edo ikerketatan, ikertzaileak hipotesi gidari batekin dihardu. Bidezkoa eta egokia da, orduan, galdera bezala ondoko hau formula dezadan: zein da marxismoa zutitzerakoan Marxek erabili zuen hipotesia? Hemen eta orain, lehen galdera garrrantzitsu baten aitzinean aurkitzen gara. Honi ihardesten hasiz, esan dezadan, aktore sozial bezala sozialgintzan leporaino sarturik ageri zaigula Marx gazte-gaztetatik. Ikertzaile partizipatzaile bat dugu, beraz. Bere ikerketa guztia militante-experientziaren giroan girotuta egingen du. Ez da ikertzaile hotz bat, bere ikergaitik pasioen aldetik moztua; aitzitik, gogoz eta pasioz ikergaiarekin loturik biziko da. Experientziak eraginda, bere hipotesiak etengabe berri-tzen ditu Marxek, gelditu gabe hobeagotzen. Baina, zein da hastapeneko ernamuinean duen hipotesia?

Gizartean, honen osagarri eta aktore garen gizonezko eta emakumezkoak, gure aukeretan, bizikeran eta abar, ez dugula berdintasunik, askatasunik iruditzen zaio Marxi, eta, hori gizartea klasetan eratzeak eta klase horiek etengabeko borrokan sartzeak mantentzen duela jabeturik, egoera hori gainditzeko ahalbiderik egon behar duela eta ezagutza mailan hori deskribaturik izendatzera heltzerik izan behar duela. Hara bada, Marxen ikerlanerako hipotesiaren erroak: gizartean klaseak daude eta klase horiek borrokan dihardute, baina horrek historikoa izan behar du eta, historikoa denez, aterabiderik duena. Arrazoiketa honetatik abiatuz, Marxen lan guztiak aztertu eta ordenatu behar dira. Haren kezka guztia klase-borroka hori gainditzera zuzendua zegoen. Horretarako zer? Klase-borroka hori gaindituko zuen klasearen aukera eta ho-

rren egitekoa seinalatuko dizkigu: *Munduko herrietako langile guztiok elkar zaitetzte!*

### **Klaseak**

Azpimarratu dudan gai honen garrantzia marxismoan haundienetarikoa delarik, saia nadin klaseez eta klase-borrokaz zerbait adierazten.

Marxologian ezaguna da, *Kapitala* liburuarentzat azken atal bezala klaseez idazteko zebilela hil zela Marx. Baina, aurreratu dudanez, haren lan osoa zehar presente dagoen hipotesia gai hori izanik, ez dago Marxek horretaz pentsatzen zuelakoaz inolako dudarik. Zertara labur dezakegu klaseei buruzko haren pentsaera?

Lehen-lehenik, klase sozialaren kontzeptua produkzio-moldearen mailan definitzen saiatuko gara. Explotaziozko edo zapalkuntzazko harremanak ematen diren produkzio-molde guztietan, bata bestearen aurkako diren bi talde sozial agertzen zaizkigu: esklabuak eta jauntxoak, morroiak eta nagusi feudalak, langileak eta ugazabak.

Klase edo talde aurkari hauen existentzia ez zuen Marxek deskubritu. Marxek hori jakin aitzinetik, historilari eta ekonomilari anitzek hitzegiten zuen horretaz. 1852ko martxoaren 5ean, honela idazten zion Marxek J.Weydemeyer jaunari: «Neri doakidanean, ez da ene meritua gizarte berrian klaseak eta klase-borroka daudela deskubritu izana. Nik baino askoz ere lehenago, historilari burges anitzek agertua zuen klase-borrokaren bilakabidearen historia, eta baita ekonomista burges batzuk klase horien deskribapena egina ere. Nirea den bakarra zera da: klaseen existentzia hori produkzio-bilakaeran aldi historiko batzuri bakarrik lotzen zaiela agertzea; klase-borrokak nahitaez proletalgoaren diktaturara garamatzala erakustea; eta delako diktadura hori bera, klase guztien desgertze-bidean eta klasegabeko gizarte baten bidean ibilaldi bat besterik ez dela baieztatzea».

Bidenabar, esan dezagun nortzuk ziren klaseak eta klase-borroka deskribatua zuten horiek: Smith eta Ricardo ekonomistak, eta Thierry, Guizot eta Niebuhr historilariak.

## Produkzio-moldeak

Produkzio sozialaren egoeraren eta produkzioko bitartekoan eta klase sozialaren egoeraren artean ematen den erlazioa da marxismoak gehiagotzen duena, edo azpimarratzen duena. Hau horrela, hau izanen litzateke klase sozialaren definizio marxista: «Klase sozialak, produkzio-molde zehatz baten egitura ekonomikoan norbaitek okupatzen duen leku ezberdina dela eta, beste norbaiten lana beretzen duelako ematen diren talde sozial aurkariak dira. Eta leku hori, hain zuzen, produkzioko bitartekoekin erlazioatzera-koan ematen den forma bereziak emana dator funtsean».

Hemen kontzeptu garrantzitsu zenbait agertu da jadanik. Horietarik da produkzioko bitartekoena. Produkzioko bitartekoa propietatearekin erlazioatua dago eta edukitzean ala ez edukitzean datza haren izatea. Hala ere, propietatea eta honen jabeago edo edukitze erreala bereizirik eman litezke, kapitalismoan kapitalistak bi gauzak batera badiu ere. Bistan dago, bada, produkzio-erlazioak direla klase sozialen definizioan elementu funtsezkoenak.

Orain eman dezagun urrats berri bat gehiago klase sozialen definizioan. Kapitalismoaren barrenean zenbat klase aurkitzen dira? Marxek, bere lanetan eta bereziki *Kapitala*-n, kapitalismoa deskribatzen digunean, edozein produkzio-molderen kasuan bezala, bi klase aurkari agertzen dizkigu: burgesia eta proletalgoa, alegia. Halere, produkzio-molde garbirik ez dagoenez, behin eta berriz beste konposante probisional batzu aipatuko dizkigu; horrela, lurjabeagoarena. Lurjabeena kapitalismoari bereziki dagokion klase bat ez bada ere, ez da haren sorrerarekin bestegabe desagertu, eta hor jarraitzen du bere influentzia edukitzen. Baina ez dezagun ahantz, borroka-orduan, burgesak eta lurjabeak talde berean bil-tzen direla. Hori da azpimarratu nahi dena.

Beste hegi bat zera da: produkzio-prozesu kapitalistak *plusba-lia* eta *kapitalaren erregimen* bera birsortzen dituela: hots, kapitalista eta langile alokatua birsortzen dituela. Eta beste produkzio-molde batzutan ez bezala, kapitalistan, langileria gero eta ugaria-go bilakatzea dela joera. Eta hau biziki inportantea da, Marxek langilerian ezarriko duen gizarte-berritzearen itxaropena aztertze-rakoan.

Oraino, bereiztekoak dira talde sozialak; hots, batzutan klase bilakatuko direnak, bi aurkarien kasuan bezala; eta, bestetan, bien arteko gelditzen direnak, zuzeneko produkzioari lotuta ez egotean eta *gainegitura-ren* zerbitzuan ihardutean: e.b., teknikoak, administratzaileak. Bestalde, klase batean zatikiak ere eman litezke: honela, burgesian, klase bezala industrialak, komertzialak edo finantzatukoak, zatiki bezala bereiz litezke.

Beti aurrera goazelarik, klase- interesa aipatuko dugu. Klase bakoitzak, borrokan dagoenez, interes batzu beste batzuren aurka defendatzen ditu. Interes horiek, espontaneoak eta estrategikoak izan litezke; lehenak, alokairua gehiagotzea, laneko egoera hobetzea eta abar lirarteke; bigarrenak, gizartearen ekonomi egoera menperatu batetik ateratzeko, produkzio-sistema kapitalistaren haustura lukete helburu.

Eginkizun horretan oraino bereiztekoak dira klase-kontzientzia eta klase-instintoa edo jitea. Klase-kontzientzia zuzenki lotua dago klase-interesarekin. Ez da ezagupen psikologikoa. Aldiz, klase-instintoa edo jitea, subjektiboa eta espontaneo da. Eta nola egiten da bataren eta bestearen arteko lotura? Instinto edo jitearen eta kontzientziaren artean, ideologia dominatzailea ageri da. Hor-tik ideologiaren garrantzia: langile-alderdiak proletalgoaren klase-kontzientzia suspertzeko eginkizuna du, hots: bere klase-interessekin kontsekuente eta ados bilakatzen irakastekoa.

### **Formazio soziala**

Urratsez urrats beti aurrera, gure klase-kontzeptuaren zehazketan, formazio soziala aipatzera heldu gara. Molde anitzetakoak bait dira formazio sozialak. Eta formazio sozial bakoitzean, klase sozialek artikulapen berezia izan ohi dute. Honela, formazio sozial horietako edozein analizatzen badugu, zera atzemanen dugu: badirela bitarteko klaseak, eta formazio hori formazio berezi izatera behartzen duten klase iraunkor tipikoak.

Bestalde, klase-egoera ere kontutan hartu beharrekoa da. Produkzio-prozesu sozialean banakoek egitura sozialean okupatzen duten lekua edo duten errola, *klase-egoera* izendatzen dugu. *Klase-posizioa*, aldiz, kojuntura politiko batean, hots, edozeinetan, klase ezberdinek duten parte hartzea adierazteko erabiltzen da.

Dena dela, Marxek hipotesia baiezteko azterketa-gai egin zuen horretara heldu gara bete-betean. Eta, orduan bezala, gaur eta beti jakintza guztien gai edo objektu jarraitzen duen horretara: produkzio-moldera, zein *egitura orokor* batek egiten bait du; hori, berriz, hiru egitura partzialetan banaka liteke: egitura ekonomikoan, egitura jurido-politikoan (legeak, Estatua eta abar), eta egitura ideologikoetan (ideiak, ohitura edo usadioak eta abar).

Halere, zergatik igaro garen klase sozialetatik produkzio-moldeetara eta hauen egituretara arrazoitu nahirik, esan dezagun marxismoarentzat egitura sozialen *eroaleak* edo eramaileak klase sozialak direla. Ez dugu esan, ordea, egitura sozialen *sortzaileak* direnik. Zeren, egitura sozialen barrenean, klaseek zuzenki egiten dutena eta haien influentziatik at gertatzen diren elementuak osagai bait dira. Azken hauetarikoak dira meteorologiaren influentzia eta beste; horretan, halabeharrak ere badu parterik. Ukaezina da.

### Materialismo historikoa

Hipotesiaren egiaztapenean barrena sartzen gara orain produkzioari dagokiona aztertzean. Guretzat bigarren puntu bat da. Bigarren puntu hau, zientzia edo jakintza egiteko modua definitzean datza. Eta formula batetera laburturik esan dezadan, errealtateren batetaz moldatzen dugun imajina, behin eta berriz egokitzen saiatzea dela zientzia egitea. Eta nola egiten du hori Marxek, klase-borroka garaitzerik badagoela eta horretan proletalgoa dela nahitaezko protagonista bakarra demostratzea, alegia? Aitzinean duen produkzio-molde kapitalista arakutzen du eta horretan partaide diren elementu sozialak beren harremanetan neurtzen ditu.

Honela azpimarra dezagun, Marxismoarentzat, prozesu historikoen azken konprentzioa gizon-emakumeek bitarteko materialak produzitzeko erabiltzen dituzten formetan aurkitu behar dela. Hemen, materialismo historikoaren sakonenean gaude. Produkzioak eta produktuak edo sorkariak trukatzeko edo elkarrekin aldatzeko erak egiten dutela esanen bait zaigu ordena sozialaren oinarria. Era honetan, lanaren prozesura ailegatzen gara. Hara zertara muga litekeen: objektua – aldakuntza – produktua – giza partaidetza – lanabesa; eta berriro hemendik aldakuntzara eta abar, zirkulua eten gabe.

Lanaren prozesuan lau elementu bereizten dira, bada: 1) Hartaz lan egiten den objektua; 2) lan egiteko bitartekoak edo lanabesak; 3) produkzio-prozesuan dagoen giza partaidetza; 4) lan-prozesuaren erresultadu den produktua.

Guzti honetan bereziki kontutan hartu behar dena, zera da: lanaren prozesuan bitartekoek duten errola. Izan ere, aro ekonomikoak ez bait ditu egiteko denak mugatzen, nola egiten denak baikik.

Bestalde, lanaren prozesua ez da beti laneko harreman beretan egiten, eta, hain zuzen, harreman-molde berezi bakoitzari produkzio-moldea deitzen zaio. Honekin zera esan nahi da: produkzio-molde bakoitza historikoki mugatua dagoela.

Are gehiago: banakoek egitura sozialean duten funtzioaren arabera eginkizun ezberdinak betetzen dituztela gizartean, hots: ekonomikoak, ideologikoak edo politikoak, eta horiek lanaren zatiketa soziala kontzeptuaz definitzen dira.

Esan dugu, eta bereziki azpimarratu ere, produkzio-harremanak direla historia egiterakoan deigarrienak. Produkzioa harreman teknikoen arabera aztertzen badugu, lehengaiekin harreman zuzenean ari diren produkzioko partaideak eta beste funtzio batzuetan ari diren langileak daudela agertuko zaigu.

Produkzioa bere erlazio sozialen arabera ere azter dezakegu. Honela, produkzio zehatz batetan produktore zuzenen eta produkzioko bitartekoen jabegoaren artean dauden erlazioak agertuko zaizkigu. Dena dela, produkzioko harreman sozial hauek produkzioko bitartekoen propietatearen formen arabera izan ohi dira.

Produkzioko harremanak manufakturan eta industrian iker-tzen baditugu, ondorio batzuk aurkituko ditugu: 1) Manufakturan harreman tekniko eta sozialak ondoko molde honetan konbinatzen direla: kapitalista, aldi berean propietario eta kontrolatzaile dela; eta langilea ez dela propietario, baina darabiltzan lanabesak kontrolatzen dituela. Honela, bada, langilea eta honen laneko lanabesa batasunean ematen dira. 2) Industrian, aldiz, makina-lanabesa agertzen da produkzio-prozesuan eta horrekin langilearen eta laneko bitartekoaren harremana aldatzen da. Ondorioz, langilea ez dago laneko lanabesari nahitaez loturik.



Beste lege bat ere badago: produkzio-prozesu orotan, produktu materialen alboan eta hauekin bat, produkzioaren baldintza sozialak birproduzitzen direla, alegia. Dakiguna da ere, produkzioko bitartekoaren propietarioen eta zuzeneko produktoreen artean ezartzen diren legeen arabera, gainegitura-elementuen parte hartzea eman ohi dela. Honela, konkludi dezakegu, produkzioko erlazio sozialak ez direla gizon eta emakumeen harreman ximpletara mugatzen, zerbait gehiago adierazten dutela.

Oraino produktibitatea beste ikuspegi batetik azter dezakegu: indar produktiboen alorretik, alegia. Indar produktiboak, produktibitatearen ahaltasunetik so eginaz, lan-prozedurako elementuak besterik ez dira. Produktibitate erreala eta ahalezkoa ez dira beti bat etortzen, eta horretan erabaki-indar bakarra gizon eta emakumeen lanerako indarra da.

Lehen aipatua dugu manufakturaren eta industriaren arteko diferentzia. Hain zuzen, industrian, produkzioko bitartekoak mar txan jartzeko, langile-talde baten osotasunaren beharra agertzen da. Ondorioz, indar produktiboak hartuz doazen izakera sozialak berak eskatzen du lan-prozesuaren sozializazioa. Izan ere, gero eta sozialagoak bait dira sorreratik beretik produkzioko bitartekoak eta produktua bere helburuan sozialagoa bait da.

Produkzioko erlazio eta indarrak gero eta korrespondentzia ahulagoan agertzen dira kapitalismoan eta hortik bere bilakaerarako traba eta frenu bihurtzea. Propietate-erlazioen izaera pribatuek gero eta sozializazio haundiagoa duten indar produktiboak frenatzen bait dituzte.

## Egitura

Produkzio-molde bat zer den agertu dugu. Orain, zertzen duen *egitura orokorraz* ihardutera igaroko gara. Izan ere, Marxen jakintzazko ondorioen eragina dela eta, egituraren arazoari buruzko ikuspegia kontestatu nahi izan zaio marxismoari. Edo-eta zehaztuz, egiturari buruzko ezagutza berriak marxismoari kontrajartzera ausartu izan dira, «estrukturalismoa» izendatuz.

Has gaitezen egitura bera zer den agertuz.

Etimologiako zentzuan harturik, egiturak, zerbaiten egintza

edo edozein egitate adierazten du. Jakintz alorrean, zabala eta luzea izan da egitura kontzeptuaren bilakaera. Jakin dakiguna da, matematiketan egitura hitzak zentzu edo esanahia anitzetan aldatu izan duela. Natur jakintzetan, gero eta erabiliagoa da egitura nozioa; honela, materiaren egitura, atomoarena, zelularena eta abar aipatzen dira. Gizarte-jakintzetan, batikbat hizkuntzalaritzak ikerketa-modelo bihurtu du. Berriki, psikologian eta etnologian modelo berbera aplikatu izan dute. Horretarako «hizkuntzekin» pareka bait litezke jakintza horien gaiak «seinaleen logika»ri eta «komunikazioaren logika»ri obeditzen diotenez.

Baina jakintza sozialetan ezin dugu «hizkuntzen» modelo hori erabili, zeren jakintza sozialek, gizona ikertzean, gizartean dagoezenez egiten bait dute, eta gizartea ez da naturatik independente den zerbait. Bereziki, ekonomian, produkzioa da gaia: naturaren ekstrakzio bat izanik, *ondasunen aldaketa* eta zabalketa ere bada. Eta ondasunak ez dira *seinale*. Histori jakintzak, berriz, elementu *materialak* (zeinetarik bait da produkzioa) eta pentsamenduaren *errepresentazioak*, aztertu behar ditu. Claude Lévi-Strauss-ek berak onartu izan du azken bikoiztasun hau, Marxek egindako azpiegitura materialak eta gainegitura psikologikoak bereizketa puntualizatzen zuen une berean. Eta zer da puntualizazio hori? Estrukturalismoa psikologiazko eskemei eta bizitz forma zehatz batzuren «praktikei» bakarrik aplikatu dakiekeela esatea; giza «praxia», aldiz, ez dela estrukturalismoaren gai. Eta giza praxi horren esanahia da gizonak beharraren aurka defenditzerakoan etengabe daraman borroka.

Azkenik, ekonomi jakintzetan egitura zer den galdetzera heldu gara.

Honela eginen genuke mugaketa: 1) Egitura, berehala ikus litezkeen karakteristikaren osotasun bat litzateke; adibidez, produkzio industrial eta laborantzatikoen arteko *erlazio zenbakituak*. 2) «Egituratu» adjektiboa, ekonomiazko mugimendu *ahulei* bakarrik legokieke. 3) Egitura, ikasitako giroaren imajina ekonometriko bat emanen luketen koefiziente karakteristikoen osotasun bat adierazteko erabiliko litzateke. 4) Koefiziente karakteristikoko horiek mugatzeko beharrezko diren datuen osotasuna izendatzeko ere egitura erabiltzean ez legoke gaizki.

Baina ekonomi jakintza ezin muga daiteke ekonomiazko ele-

mentuetara, hots, badute zerikusirik ekonomiazkoak ez diren elementuek ere. Zeintzuk, adibidez?

- egitura fisiko eta geografikoak
- egitura teknikoak
- egitura demografikoak (dentsitateak, adinak, okupazioak)
- erakundezko egiturak (propietatea, estatua, sindikatuak)
- egitura sozialak (kastak, ordenak, klaseak, mobilitateak)
- pentsaerazko egiturak (beharren hierarkiak, lanari buruzko jarrerak, familia eta abar)
- egitura etniko eta politikoak (nazio zapalduak Nazio-Estatuetan, eta abar)

Eta Marxek egin izan duena, hain zuzen, produkzio-molde kapitalistaren eskema egituratzea izan da.

Honekin, gaur oraindik eztabaidatua den Azpiegitura eta Gaignegituraren arazoa harrotzera igaroko gara. Marx eta Engels-en baitan, gizarte batetan *azpiegitura* egiten duena, azken funtsean, ekonomiazko egitura da. Baina, gainerakoa zer? Horretan dago eztabaida. Dakiguna da, adibidez, Stalin-ek bere artikulu batetan Hizkuntza ez zela gaignegitura eta ezta azpiegitura ere, baina bien arteko zerbait, esan zuela. Althusser filosofoak, Gramsci aipatzean, zera dio: Jakintza ezin litekeela gaignegiturara azpiratu. Halere, marxismoa arruntki agertzean, askotan egitura ekonomikoa ez den oro gaignegiturara itzuli izan da, eta, are eztabaidagarriago dena, gaignegitura oro azpiegituraren menpeko zerbaitetara erreduzitu izan da. Kausa eta efektuaren arteko erlazio bezala agertu izan dira. Gaurregun, marxologo serio-samarrek dioskutenez, azpiegitura eta gaignegitura erlazioa kausa-efektuen erlazioa ezbezalako zerbait da. Nolabait agertzeko, gaignegituraren psikologikoa partaidetza berezi bat azpiegituran ez bezala emanen litzatekeela esanen zaigu.

Dena dela, historilari bati planteiatzen zaion arazorik haundiena, bi maila bereizien arteko erlazio estrukturalak bilatzean datza. Ez da aski, gaignegiturak autonomia erlatibo bat duela esatea. Hori baino arazo sakonagoa bait da batzuen eta besteen arteko erlazioen mugaketa.

Honekin loturik dago, baita, gizarte-historia bitan bereizten

saiatzea ere. Batetik, historia gelditua edo hotza eta, bestetik, historia pilatzailea edo beroa. Lehena fenomeno sinkronikoekin berdinduz, eta bigarrena, fenomeno diakronikoekin, eta lehena baka-riek dela seriooki iker litekeena adieraziz, egitura-aldaketen arra-zoiketa gutxietsiz, baztertu egingo litzateke.

### **Marxen bagaia teoriko-kulturala**

Marxismoa teoriatzko arma bat ere bada. Baina, Marx bera teorikoki nola armatu izan zen, bere ikerketa egiteko? Biziki inter-esante deritzogu urrats hau planteatzeari. Izan ere, Marxen des-kubrimenduak erroa batzutan eta larru batzutatik datoz.

Marxismoa bere hastapenean, bere formazioan, XIX. mendeko hiru pentsaera-korronteren oinarrian mugitzen da: aleman filoso-fia klasikoarenean, ingeles ekonomia politikoarenean, eta frantses sozialismoarenean. Gainera, Marxen bizitzan, garrantzi haundie-neko aurrerapen batzuk ematen dira jakintzetan. Horietatik dira, zelula biziduna dela frogatzea, energian aldakuntzak izan ohi dire-la, eta Darwin-ek teorizatutako eboluzioarena. Guzti hau Marxen teorizazioan presente egonen da.

Influentzia hauek Marxek ezagutu zituen garaian beren baitan zer definizio zuten agertuz hasiko gara.

a) Aleman filosofia klasikoa. Ezaguna eta famatua da Marxek Hegel filosofoarengandik jasotako influentzia. Laburturik, Hege-len dialektika-metodoarekin topatzen gara. Hori bai, esanen zai-gu, idealismotik atera eta materialismora bihurtu zuela Marxek. Dialektikak bere oinarrian bi ardatz nagusi ditu: batetik, den guz-tia mugimenduan dago, eta ezmugidari oposatzen zaio, esanen zai-gu; eta bestetik, ez da izakirik beste gainerakoekin zerikusi gabe-rik. Diren guztiak gainerako existentzidun guztiekin erlazionatzen dira.

Oin hauetan mugitzen da dialektika-metodoa, eta hemen lege nagusienak ondoko hauetara mugatuko genituzke: 1) Bizitza eta heriotzaren legea: gauzak, aldi oroz eta beti, beren aurkari bilaka-tzen ari dira. 2) Gauzek, aldatze etengabe horretan, beren baitan dute izate-une bakoitzean direnaren aurkaria. 3) Aurre-ideia hori formula batetara eramanez, hau emanen liguke: a) Baiezpena edo

tesia, b) Ukapena edo antitesia, d) Ukapenaren ukapena edo sintesia. Eta hiru hegi hauek gauza edo izaki beraren konposatzaile direla aldi berean, nahiz eta une bakoitzean hegi batek besteak gainditu. 4) Gauzak edo izakiak aldatzen badira, beren baitan kontradikzioa daramatelako aldatzen dira, hots: aurkaria beregan daramatelako, baina, baita, aurkarien arteko batasuna haietan presente dagoelako ere.

Hau horrela ezarririk ere, urrats bat egin behar da guzti hori historiari aplikatu nahi diogunean. Aterabidea non dago? Alegia, aldakuntza hori nola ematen da gizartean? Orain, materialismo dialektikoa historiara hedatzen da. Eta historia dioenak, aldakuntza dio. Eta gizarteak historia duenez, aldakuntza ere etengabeki du. Baina, zerk explikatzen ditu aldakuntza horiek?

Historia, gizon-emakumeen langintza da. Eta nola egiten dute historia hori? Gizon-emakumeek historia egitean, itzuli guztiekin ere, beren xede propioak ohartuki desiratuz egiten dute. Historia, azken funtsean, ezberdintasun guztietako borondate ugariak kanpoko munduarekin duten zerikusian datza.

Hau da, laburturik, Hegelen influentzia. Baina Hegel Marxen teoriatzko armaketan ez da oro. Aldi berean, Cierzkowski-ren bidez, Fichte-ren akzioa deskubrituko du. Esan dezadan halaber, Fichte izan zela, ateismoa defendatu zuen lehena eta pertsonaren autonomia bideratu zuena. Era berean, Ludwig Feuerbach eta Bruno Bauer topatzen ditu. Hegeliano gazteen mugimenduarekin bat, filosofia kritikoaren bidez, historiaren martxa determinatzeko beharra azpimarratzen zuen. Piskanaka, zeraz jabetzen da Marx: giza izpirituaren eta munduaren bilakaeran, batasun organiko eta armoniko bat ematen dela. Honela, Hegel baztertzen du, zeinek munduaren bilakaera filosofiaren bilakaera progresiboarekin parekatzen bait zuen.

Ibilian ibilian, filosofi ikasketak bururatzeko hautaturiko gaiarekin, bere pentsaera berri izanzen zen hartara heltzen da. Orain, Demokrito eta Epikuroren naturaren filosofien diferentziak ikasiko ditu.

Nola bata hala bestea, materialistak ditugu. Baina, badute diferentziarik. Zertan dauden? Demokrito, naturaren filosofia agertzean, munduaz materialista baina *determinista* agertzen zaigu. Unibertsoa, honela, espazio huts batek eta atomoen kantitate infi-

nito batek eginen dute Demokritorentzat. Espazio horretan, atomoak beti dantzan ari dira, haundienak lasterka bizian eta txikiak ahulago. Horrela, haundiak eta txikiak, itzuli etengabe horretan, elkar topatzera edo jotzera heltzen dira. Horren ondorio, mugimenduak *alboetarako* eta *itzulikoak* izanen dira. Gainera, atomoen artean konbinaketak eta bereizketak gertatzen dira, zeinetan, atomo arinenak kanporantz bultzatuak gertatuko bait dira, pisuenak erdirantz bultzatuak diren ber. Mugimendu horietan gertatzen den guztia, behartuki gertatzen da, ez dago lekurik halabeharrentzat.

Demokritoren naturaren filosofiaren printzipioetatik abiatuz, Epikurok, aldiz, arras baztertzen du ikuspegi determinista hura. Munduan askatasunak baduela lekurik frogatuko du. Eta hori demostratzeko, atomoen jokoan jokabide berri bat ezarriko du: orain arteko atomo-erorketei *lerro zuzeneko* erorketa gehituko zaie. Bestalde, atomoak hirutan bereiziko dira kalitatea dela eta: zakarrak (gauzadia ematen dute); finak (izpiritua ematen dute); eta extrafinak (jainkoak ematen dituzte). Den guztia —hots, hiru izaki-mota horiek— materia edo ekai beraz eginak daude, baina ekai-*forma* ezberdinak dituzte. Bestalde, esan dezadan, jainkorik baden ala ez, ez dela kuestionatzen ere. Garaiko herri-aburuak badi-rela dioenez, explikazio bat muntatzen da horien agertzeko. Bistan da, Marxek, Epikuro laudatuko du eta honen alde aukera eginen. Eta beste gauza gehiagoren artean, Epikurori zera eskertzen dio: gizon-emakumeak jainkoen beldurretik askatu izana. Halere, bada Epikurorengan onartzen ez duenik: askatasun-nozioa abstraktuan kontsideratzea. Inguruak gizonarekin dituen erlazioen marikoan ez kontsideratzea, desegokitzat epaituko du.

b) Ingeles ekonomia politikoaren influentzia da bigarren aipatuko duguna.

Halere, ez gara honetan luzatuko. Izan ere, Marxen *Kapitala* oinarri horietan bete-betean mugitzen bait da. Ingeles ekonomia politikoaren teorigile horiek, Ricardo eta Smith dira. Esan dezagun, fisiokraten eskolakoak zirela. Eta fisiokraten meritua izan zela alokairua, irabazia, errenta merkatal irabazia eta abar, laborantzian produzitzen zen plusbalioarekin erlazionatzea.

Ricardo-k, urrats berri bat emanez, «balioaren determinaketa

eginen du, laneko denbora neurri bezala hartuaz». Honela, alokai-ruaren legea teorizatuko du.

Smith-ek berriz, plusbalioa laborantzaren alorretik ateratzen du, baina, gainerako elementuekin erlazionatzean, erdi-bide batean geldituko da. Gero, Marxek finituko duen bidetik erdi-bidean, alegia. Smith-ek dio: «produkzio-forma kapitalistaren barnean, balioaren legea fikzio hutsa da, nahiz eta teorikoki beharrezko den». Marxek, aldiz, balioaren lege hori erreal dela frogatuko digu.

Baina, hara hor marxismoaren beste oinarri bat.

c) Hirugarren oinarrira heldu gara; hots: frantses sozialismora. Saint Simon eta Fourier dira oinarri honen eragile nagusiak.

1802an Saint Simon-ek *Gutun ginebrinoak* deitu obra argitara zuen. Frantzia Iraultza Haundia eman zenean, Saint Simon-ek hogeitamar urte zituen. Hartan, hirugarren estatu deituak garaitu zituen noblezia eta kleroa. Baina, laister ikusi zen hirugarren estatuko zati txiki batek, burgesia aberatsak, osoki bereganatu zuela botere politikoa. Hau honela, hirugarren estatuaren barreneko kontradikzioa agertuko du Saint Simon-ek; hirugarren estatu hori bitan bereizten du: langileak eta alferrek deitzen dituenetan. Langile noziopean, alokatuak, fabrikanteak, merkatariek eta bankariak sartzen ditu, gainerako guztiak alferretan pilatuz. Bestalde, gauza jakintzat ematen zuen, alferrek galdua zutela, gizartea zuzentzeko eta gobernatzeko kapazitate izpiritual oro eta, ondorioz, horretarako gauza ziren bakarrak *jakintza* eta *industria* batzen zekitenak zirela. Eta Saint Simon-entzat jakintza eta industria batze hori *erlijioaren bidez* egingen da. Horretarako, «kristautasun berri» bat eraiki behar zela zioen, mistikan oinarritua.

Halere, Saint Simon-ek «klase txiroen eta ugarien» hizkuntza erabiliko du. Gainera, «gizon eta emakume guztiek lan egin behar-koto dute» da haren tesia. Berak dio, baita, politika dela produkzioaren jakintza eta politika hori ekonomiak osoki estaliko duela.

Fourier-ek, berriz, 1808an argitara zuen bere lehen lan sakona. Horretan, mundu burgesaren miseria materiala eta morala larru gorritan agertzen ditu. Ideologo entziklopedistetatik hasi eta Iraultza ondokoetaraino luzatzen da haren kritika. Ez da kritiko soil bat, satiriko ere baizik. Lehena da baita Fourier, gizarte batean, emakumearen askatasuna dela adierazten gizarte askatasuna-

ren termometro edo neurri. Lau alditan deskribatzen du Fourier-ek gizartearen historia: basati-aroa da lehena; barbarie-aroa bigarrena; patriarkatua hirugarrena, eta zibilizazioarena da laugarrena. Azken aldi hau gizarte burges deituarekin bat datorrela dio. Eta zera demostratzen du: «orden zibilizatuak forma konplexu, bi-koitz, ekiboko eta hipokrita batetara jasotzen ditu barbarie-aroan sinpletasunik haundienez pratikatzen ziren bizioak». Zibilizazioa «zirkulu biziotsu» batetan mugitzen dela erakusten du.

Fourier-en ondotik, Frantzian, Louis Blanc-en *Lanaren organizazioa*, Felicité Roġbert Lammenais-en *Esklabutza berria*, eta Etienne Cabet-en komunitateari buruzko printzipioak ditugu aipagarri.

Marxekin zuzeneko harremana izan zuenez, Proudhon zertxobait aipatuko dugu.

Proudhonekin 1844-45 urteetan elkartu zen Marx Parisen. Marxek ez bezala, erdiko klaseen, bereziki erdi mailako baserritar eta artesauen interesak defendatzen zituen Proudhonek. Ondorioz, zera zioen: gizarte burgesa ez zela deuseztatu behar, klase horien interesetara egokitu baizik. Halere, Proudhonek erlijioaz zuen jokabidea anitz estimatzen zuen Marxek. Proudhonek, baina, erlijioaren era tradizionala baztertuz, jakintzaren erlijioa egin gura zuen.

Ingelesa bazen ere, marxismo aurreko sozialismoarekin loturik dagoenez, eta garrantzi haundikoa denez, Robert Owen-en kasua gogoratuko dugu. Batik bat, haren *Moral mundu berriaren liburua* aipagarri da.

Lehenik Manchester-en eta New Lanark-en (Eskoizian), gero, lantegi haundi bat zuzendu eta kudeatuko du. Bera dela medio, lantegi horietako langileak 14 orenen ordez 10 egitera helduko dira. Horrela, bada, garaiko baldintzen arabera, langileen alde txukunki jokatu du. Gainera, heziketari garrantzi handia emanen dio; horretarako eskolak sortuko ditu. Halere eta horrela jokatu ondoren, Owen-ek zera esanen digu: langileei ez diet giza duintasunak eskatzen duen egoerarik ematen.

Bestalde, hara nola analizatzen duen New Lanark-eko egoera: 2.500 pertsonako talde hark gizarteari zekarkion aberastasuna



duela mende-erdi bat 600.000 pertsonako talde batek bakarrik zerkarkiola. Orduan, 2.500 pertsonako talde horrek kontsumitzen duen aberastasuna eta 600.000 horiek kontsumi zezaketenaren artekoa nora doa, galdetzen du. Ihardespena argia da: diferentzia hori enpresen jabeen instalazio-kapitalaren gain ehuneko bost ordaintzeko izaten zela, hauek 300.000 libra esterlinako irabaziak horrela jaten zituztela adieraziaz.

Halere, birresan dezagun, lantegi honetako egoera zela Inglaterra osoko lantegi guztietako egokiena giza legee zego kienean.

Baina, Owen-ek esanen digunez, hori horrela ezin onartzeko zen. Owen-en aburuan, aldiz, indar produktibo berri eta erraldoiek berreraikuntza sozialerako oinarri bilakatu behar zuten, eta ontasun kolektiboarentzat bakarrik lan egitera deitzen zituen, hots: gizarteko kide guztien jabego kolektibo bihurtu nahi zuen guztia.

Hara nola sortu zen Owen-en komunismoa: 1823an, inguruan zegoen miseria borrokatzeko, kolonia komunistak sortzea proposatuko du Owen-ek.

d) Marxen baitan garaiko jakintzen aurrerapenak zerikusirik izan zutela esana dugu. Guztien artetik, jakintz aurrerapen bat berezi nahi dugu, Marxengan izan zuen eragin zuzenagatik: Darwin-ek formulatu zuen eboluzioaren teoria, alegia. 1858an argitaratu zen Darwin-en teoria hori: *Selekzio naturalaren bidezko espezieen sorrera* zen obraren izenburua. Zer zioen teoria horrek? Laburturik: bizitzarako borrokan selekzio bat dagoela, eta horretan irauten dutenak izaki garaienak edo egokienak direla.

Marxek, obra hori aipatzen duelarik, honela idazten dio Engels-i: «Nahiz eta ingelesen modura egina den, liburu horrek gure gizarte-ikuspegiarekin ados dagoena natur jakintzetara aplikatzen du». Eta, beste gutun batetan, ondoko hau dio: «Darwin-en obra kontsideragarria da, eta ondo dator kit natur jakintzen alorrean gertatzen dena, gizarte-historiara eramanez, klase-borroka dela agertzeko». Azken hau Lasalle-ri idatzi zion. Eta, Engels-ek, Marxen hilobiaren aitzinean azken agur bezala irakurritako diskurtsoan, hau esan zuen: «Darwin-ek natura organikoaren eboluzio-legea deskubritu zuen legez, Marxek gizon eta emakumeen historiaren eboluzioa deskubritu zuen».

## II. Nazioari buruzkoak

Nazio kontzeptuaz eta kategoriaz zer esan digu Marxek eta honen ondorengo marxismoak? Galdera honi erantzun nahirik, nazio-arazoari buruz marxismo historikoak egin izan duen balioztapena aipatuz hasiko naiz. Balioztapen orokor bat eginen dut, sarrrera gisa. Izan ere, funtsean, eta marxismoaren baitako teoriko ezberdinetan egon litezkeen diferentzia xeheen artean, guztiei koinmuna zaien balioztapen bat aurkitzen bait dugu.

Laburtuz, ondoko honetara bil dezakegu balioztapen orokor hori: XX. mendean *nazioa* ez da pretexto bat besterik, hots, estatuak sendotzeko erabiltzen den pretexto bat. Horren aitzinean, projektu sozialistak internazionalismoaren ikuspegia hautatuko du deliberatuki eta nazio-estatuak kontestatuko ditu. Hau izanen da printzipio orokorra. Baina, printzipioa horrela izanik ere, konkretuarekin aurkitzean zailtasunak agertzen zaizkio projektu sozialista horri. Zeren leninismoak, alde batetik, «egoera zehatzen analisi zehatzak» eskatzen bait ditu, eta, bestetik, projektu komunista berak Estatu sendotuko du, «sozialismoa herri bakar batetan egitea hautatuko duen une beretik».

Halere, bi aldi bereiziko genituzte marxismoan, nazio-arazoa epaitzerakoan.

Lehenean, «nazio-arazoa» *ahantzi* egiten da. Historiari buruzko ikuspegia dela eta, honen motorea ez dela herrien arteko borroka, klaseen artekoa baizik, erakutsiko bait da. «Nazioa», Estatu kapitalista eta internazionalistaren *ideologiako forma* kontsideratuko da.

Bigarrean, «nazio-arazo»rik badagoela onartzen da. Zertan mamitzen den nazio-arazo hori? Eztabaidagarri bilakatzen da marxismoaren baitan.

Halere, marxismoak nazio-arazoari buruz dituen planteiamenduetatik lege bat atera bageneza, hau litzateke: arazo sozialari buruzko kontsiderazio gehiegizko batek itotzen du.

Marx eta Engels-entzat, funtsean, kapitalismoaren maila bati loturik dagoen ideologi forma bat da nazionalismoa; zapalketa nazionalaren kasuak, errealki, kondenaagarriak izan litezke; baina, aldi berean, beharrezkoak gerta litezke, historikoki.

Antzeko jokabidea dute arazo kolonialari buruz: garaipen kolonialak era arbuiagarrian gertatzen dira gehienetan edo beti; baina, historikoki, beharrezkoak izan litezke.

«*Baliozko ikuspuntu bakarra iraultza sozialistarena da*». Honela, nazio-arazoa ikuspegi horren barrenean eta horren arabera epaitzen da; sekula ez, ordea, bera bezala, entitate propioa duen izaki bezala; beti minorizaturik. Erredukzio hori, kontzeptualizazio marxista orokorretik logikoki ateratzen da: hartan nazioak ez bait du funtsezko kategoriaren baliorik, hots: historia, bilakaera sozio-ekonomiko bezala explikatzen da eta, horrela, errealtate mugatzaile garrantzitsuenak talde sozial nagusienak osatutako produkzio-moldearen kategoriak dira, klaseak, alegia. Nazioa, beste «errealtate» gehiago bezala, funtsezko deitzen diren errealtateen interakzioaren epifenomeno (azaleko fenomeno) bezala explikatzen da.

Marxek berak, nazio-arazoak ukitzen dituenean, teoria orokorrean kokatzen diren arazotzat hartu beharrean, estrategia eta taktika-alorreko arazotzat erabiltzen ditu; eta estrategia eta taktika berak ere, klase-borroka motoretzat duen eboluzio historikoaren zerbitzuan darabiltza. Eta, eboluzio historiko horretan, kondnaturik dagoen zerbait da nazioa Marxentzat. Internazionalismoa ez da programa sentimental bat, proletalgoak ez du inolako interes nazionalik burgesiak *iadanik* martxan jarria duen mundu-prozesu batetan: «dagoeneko, muga nazionalak eta herrien arteko borrorak, burgesiaren bilakaeraren arabera, gero eta gehiago desagertariko ditu... Proletalgoak, boterera heltzean, are gehiago desagertariko ditu... *gutxienez zibilizatutako* herrietan proletalgoak daraman jokabide bateratua, bere askatasun bidean lehen baldintzetariko bat da», dio Marxek *Manifestu Komunista*-n. Arazo sozialaren soluzioak nazio-arazoen konponketa berez ekarriko du, bada: «gizonak gizona explotatzea galeraziko duenean, eta nazio batek beste nazio bat explotatzea desagertuko bait da aldi berean», dio Marxek *Manifestu komunista*-n.

Arazoaren baztertze honek esanahi bikoitza du: alde batetik, arazo sozialaren estimazio haundiégia ageri da; eta, bestetik, «nazio haundi»etara erreferitzea eta inola ere ez «minoría nazional»en arazoetara, hots: langile-mugimendua bilakatzen den Nazio-Estatuetara mugatzen dira Marx eta Engels, printzipio hori aipatzean.

II. Internazionala: orokorki hartuta, ihes egiten dio arazo nazional eta kolonialari.

Halere, bi jokabide daude horko kideen artean: batetik, Rosa Luxemburg eta Pannekoek-ena. Funtsean, hau diote: Mugimendu burges nazionalak, nazio-independentzia eta batasunaren eskabideak defendatzen dituzte eta, orduan, proletalgoaren politika nazionalak erradikalki horren aurkakoa eta oposatua izan behar du.

Proletalgoaren interes nazionala mugimendu nazionalaren xede *demokratiko* eta *kulturalak* hartzera mugatu behar da. Proletalgoaren printzipioa internazionalismoa da, nazionalismo guztien aurka.

Bestetik, bigarren jokabide bat dago: horren defendatzaile, Otto Bauer austro-hungariarra dugu. Bauer-entzat, sentimendu «nazionala» eta nazionalismoa ez daude kapitalismoari lotuak. Ondorioz, langile-klaseak «bere egin behar ditu» herrien askatasunaren, batasunaren eta autodeterminazioaren eskabideak. Nazioa kultur izakera batetara mugatzen da. Eta, ondorioz, nazio-arazoentzat aterabide bezala kultur autonomia bat eskatzen da. Nazioa definitzean, kulturara mugatzen da; eta honela, kultura bera duen komunitate bat, nazio bat, lurralde ezberdinetan ager liteke. Bauer-entzat, bada, lurralde-batasuna ez da garrantzizkoa nazioa definitzerakoan.

III. Internazionala: arazo nazional eta kolonialak aipatzen dira estrategia eta taktika arazoen parte bezala.

Aurrez, ordea, Stalinek eta Leninek nazio-arazoari buruz egindakoak daude. 1913an Stalinek obra garrantzitsu bat argitaratzen du Nazio-arazoaz. Nazioa, kriterio «objektibo» deitu batzuk aipatuaz definitzen du. Honela urrats haundi bat ematen da, zeren, Otto Bauer-en eta «nazio-arazoan» internazionalista zirenen posizioak gainditzen bait ditu. Orain, definizio horretatik abiatuz, Leninek nazio-arazoari buruzko planteiamendu «politiko» bat egiteko okasioa eta bidea du. Separazioraino joan litekeen autodeterminazioaren eskubidea proklamatzeko du proletalgoaren eskabide espezifiko bezala. Baina, ez pentsa honekin nazionalismoari amore ematen dionik. Autodeterminaziorako eskubidearen printzipioa ez du nazio-mugimenduak dituen eskabideen defentsa esan nahi; Errusiako iraultzarako giltzarri bezala nahitaezko kontsideratzen duen langileriaren eta nazio-mugimendu antitsarista-

ren aliantza bilatzen da. Halere, Lenin okupatzen da nazioez, baina ez nazio-entitateaz mami bereziko izaki denez. Horren froga da, alderdi erdiratu bakar bat defendatzen duela eta federalismoa arbuizatzen Iraultza aitzinetik. Errusia naziotan separatzea proposatuko denean autodeterminazio-eskubidearen aplikazio bezala, Errusia haundiaren batasuna defendatuko du proletaritzat, marxismoaren erakutsiz.

Azpimarra dezagun azkenik, eztabaida agertzean, autodeterminazio nazionalari langileen autodeterminazioa ezarriko zaiola kontrako bezala. Eta langileen autodeterminazioaren printzipioa ezartzean, federazioaren aterabide bera onartuko duela, Iraultzaren ondotik, zeren Estatuaren batasun-prozesua ziurtatua bait zeukan alderdia eskuetan edukitzearekin.

Hain zuzen, eztabaida hau zela eta, Leninen eta Stalinen artean diferentziak agertu ziren nazio-arazoari buruz. Stalinekin, bortxazko metodoak iragartzen ditu federakuntza hori gordetzeko, eta Leninekin, aldi berean, «Errusia haundiaren chauvinismo»ak menperatutako federakuntza salatzen du. Baina, Estatuaren Batasuna ez da auzitan jartzen. Funtsean, fenomeno nazionala ez da bere baitan hartzen eta beti goragoko interesei zerbitzeko arauen pean onartzen da, hots: Alderdiaren arazoarekin eta, ondorioz, Estatuarenarekin neurtzen da.

Orain, III. Internazionalaren orduan, Koloniez ere nazio-mugimenduaren ikuspegi politiko bat projektatzen da. Kolonietako Alderdi Komunistek bertako mugimendu nazionalarekin aliantzak egitea bilatu behar dute, horien kontrola hartzeko lain sentitzen diren neurrian.

Baina, galdera bat eginen dugu: nazioak ba ote du bere baitan kontenido edo mami berezirik? Estrategia eta taktika politikoetatik aparte, edo borroka sozialen marko formal izatetik aparte, berezko identitatea duen zerbait ba ote da? Uste dugu, Pierre Vilar-ek, 1982ko *Egin* berezian —*Euskadi 1977-1982* deitu alean— egindako artikulutxoak horretaratzen gaituela. Azter dezagun hurbildik.

Dena den, eta hastapen bezala, ez dezagun ahantz, Pierre Vilar nazio-arazoaren alorrean stalinista deklaratu izan dela behin eta berriz. Halere, uste dugu, stalinismotik at doala, *Egin*-eko artikulutxo horretan. Zeren, baldin eta nazioak berezko identitate-mate-

ria zerbait baduela frogatzen badugu, estrategia eta taktika politiko huts bihurtzen diren planteiamenduak berrikusi beharrean gelditzen bait dira, hots: balio historiko bat izan badute ere, zientifikoki gainditzean, marxismoaren lotura berrien beharra eskatuko dute. Zeren, ezinezkorik ez bait dago marxismoarentzat, proposatzen denak zientifikotasun-hegia daramala frogatzen denean.

Zer dio Pierre Vilar-ek?

C'est en Catalogne, en 1927, que j'ai découvert des aspects, nouveaux pour moi, du problème des langues et des appartenances. J'y étais allé en apprenti géographe, observer une *économie*, et voilà que j'apercevais, au coeur de la vie, un grand fait *psycho-sociologique*, qui m'apparut bientôt comme une composante fondamentale de l'histoire ibérique contemporaine, et que quarante ans de franquisme n'ont pas effacé. Pourquoi (et comment) un complexe ethno-linguistique pas tellement différent, en somme, du complexe occitan en France, a-t-il donné en Espagne un résultat *politique* déterminant? Ma réflexion d'historien, depuis les années 1930, a été dominée par ce problème.

J'ai moins étudié le problème basque. Mais il relève évidemment d'une analyse semblable. Surtout, je me suis attaché à lui d'une autre façon. Au début des mêmes années 30, je suis lié, pour une vie de bonheur, à une Bas-Navarraise, basque par toutes ses ascendances, comme moi «montée» à Paris et donc partiellement coupée de ses racines, mas qui n'avait pas oublié que son père parlait admirablement le basque, qu'elle en avait balbutié les mots enfantins, et que, si j'ose dire, elle le «chantait», si j'en juge par le nombre de chansons basques qu'elle a apprises à ses petits-enfants, malgré le temps qui lui a été compté. Enfin, pendant ses dernières années, elle est parvenue à se réinsérer dans son village familial, qui est largement devenu le mien, et celui de mes enfants. Plusieurs mois de l'année, je baigne dans l'atmosphère basque, et observe avec intérêt comment le phénomène ethno-linguistique, très profondément *présent* en Basse-Navarre rurale, débouche çà et là, encore qu'inégalement et très lentement, sur un désir de *maintenance* qui pénètre peu à peu la conscience *politique* des jeunes générations.

Comment se sont inscrits, dans une histoire récente faits «nationaux» où jouent des permanences multiséculaires, mais dont l'efficacité politique dépend des prises de conscience, en conjonction avec des facteurs plus mouvants: structures sociales, luttes de classes, évolutions et révolutions...?

Azpimarragarria benetan, «permanences multiséculaires» nozio hori. Izan ere, nazio kontzeptuaren birformulazio batetarako giltza eman diezaguke.

Et l'Espagne, dans tout cela? Que «l'Occident», pendant quarante ans, ait fait de Franco son enfant chéri, a mesuré sa sincérité «démocratique».

Et qui Franco a-t-il trouvé en face de lui? D'une part la combativité ouvrière, d'autre part les formes variées des résistances catalane eta basque. C'est sûrement cette dernière qui, matériellement et moralement, lui a porté les coups les plus durs. Le conservatisme instinctif des classes dominantes ne le lui pardonne guère: dans une «transition» qu'on a préférée à une «rupture», c'est contre Euskadi qu'on a concentré la quasi-totalité de l'appareil répressif franquiste soigneusement conservé. C'est pourquoi la résistance basque demeure symbole d'*antifascisme*. Quand j'ai vu naguère, sous la signature d'un homme que j'avais cru libéral, demander la «*dératisation*» d'Euskadi, j'ai compris que la ligne de démarcation entre fascisme et démocratie doit être cherchée dans les esprits, non dans les constitutions. Et si j'avais pu croire, aux environs de 1930, que les mouvements catalan eta basque sanctionnaient l'insuffisante «modernité» du vieil état espagnol (ce que, historiquement, pouvait être vrai), il me semble aujourd'hui que l'adaptation des structures ibériques au *monde de demain* passe par la libération de ses nationalités les plus conscientes, les plus avancées, seul contrepoids possible, dans un avenir prochain, aux inquiétantes rivalités des superpuissances.

Marxismo historikoan «nazio-arazoak» aipatzean hainbat kezka eta buruhauste sortu izan dituen abangoardiaren edo alderdi iraultzailearen kontrola eta horri loturik pentsatu behar ziren estrategia eta taktika gainditzen dira orain, Pierre Vilar-ek egin digun deskribapenean. Guri, dugun «nazioari buruzko» ikertzaile-kezkarekin, interes haundienekoa zaigu «nazioa» berezko kategoria bezala definitzeko saioan agertu diguna. Gainera, ohartzen gara, jakitunenak ere, «nazioari» buruzko estrategiazko eta taktikazko ikuspegietan aldi ezberdinetan balioztapen ezberdinak egin eta ukan ditzakeela.

J.A.

### ¿HAY ESPACIO PARA LA NACION EN EL SISTEMA MARXISTA?

### Y A T'IL UNE PLACE POUR LA NATION DANS LE SYSTEME MARXISTE?

#### 1. ¿Qué es el marxismo?

*La primera parte de este «guión para una charla», así lo califica el propio autor, parte de la constatación histórica de la lucha de clases, hecha por Marx. La sociedad de clases será superada por el protagonismo único y necesario, el proletariado.*

En torno a esta hipótesis de trabajo hilvanó Marx diversos conceptos, que el autor trata brevemente: la «clase» definida a nivel de producción, el «modo de producción», la «formación social», «condiciones sociales de producción», «fuerza productiva», etc. El autor ofrece también unas reflexiones sobre la aplicabilidad de la noción de «estructura» al ámbito de las ciencias sociales.

Por fin recuerda cuál fue el bagaje teórico cultural de Marx: la filosofía clásica alemana (Hegel, Fichte, Feuerbach, B. Bauer, etc), la economía política inglesa (Ricardo, Smidt, etc.) el socialismo francés (Saint-Simon, Fourier, L. Blanc, F. Robert, Lammenais, E. Cabet, Proudhon, R. Owen). Además de estas tres fuentes, el autor señala la importancia de los descubrimientos científicos del s. XIX (Darwin, etc.).

## II. Sobre la nación

El autor hace la siguiente valoración del marxismo: la nación es un pretexto para fortalecer los Estados; se establece el principio internacionalista. En la historia del marxismo se distinguen dos etapas: una en la que «se ignora» el problema nacional; otra en la que se admite la «cuestión nacional», sin que esté clarificado el contenido de lo que es nación.

1) Para Marx y Engels, el nacionalismo es una forma ideológica ligada a un cierto nivel del capitalismo. La explotación nacional y colonial, aunque condenables, pueden ser históricamente necesarias. La perspectiva única de valoración es la revolución socialista. El término «nación» carece de contenido propio. El proletariado carece de intereses nacionales. La solución del problema social traerá consigo el de la cuestión nacional.

2) La II Internacional: se manifestaron dos posturas: a) Rosa Luxemburg y Pannekoek: el proletariado debe oponerse al movimiento nacional burgués, y limitarse a defender los objetivos democrático y cultural del nacionalismo; b) Otto Bauer: el «sentimiento nacional» no está ligado al capitalismo: la «nación es definida por la «cultura»; los trabajadores deben hacer suyos los derechos de libertad, unidad y autodeterminación.

3) La III Internacional: recoge la doctrina de Lenin y Stalin. Estos superando los planteamientos anteriores, definen la «nación» por criterios «objetivos», y defienden el derecho de autodeterminación. Con ello, lejos de apoyar los principios del movimiento nacional, se pretende lograr la alianza de los trabajadores y el movimiento nacional antizarista. De hecho Lenin se opondrá a la desmembración del imperio, y a la autodeterminación nacional contrapondrá la autodeterminación de los trabajadores. Propondrá la fórmula política de la federación, con la unidad del Estado asegurada por el Partido fuertemente centralizado.

Respecto al colonialismo la III Internacional establece el criterio de que los Partidos Comunistas de las colonias deben establecer alianzas con los movimientos nacionales en la medida en que son capaces de controlarlos.

Por último se afronta la cuestión de si la «nación» tiene un contenido propio, irreductible. El autor contesta afirmativamente de la mano de Pierre Vilar. El marxismo debería asumir esta realidad en su teoría y en su praxis.



### I. Qu'est-ce que le marxisme?

La première partie de ce «scénario pour une causerie», tel que l'appelle l'auteur lui-même, est fondée sur la constatation historique de la lutte de classes, faite par Marx. La société de classes sera dépassée par le protagoniste unique et nécessaire, à savoir, le prolétariat.

C'est autour de cette hypothèse de travail que Marx élaborera divers concepts, que l'auteur traite brièvement: la «classe» définie au niveau de production, le «monde de production», la «formation sociale», les «conditions sociales de production», la «force productive», etc. L'auteur nous offre aussi des réflexions sur l'applicabilité de la notion de «structure» au domaine des sciences sociales.

Enfin, il rappelle quel fut le bagage théorico-culturel de Marx: la philosophie classique-allemande (Hegel, Fichte, Feurbach, B. Bauer, etc.), l'économie politique anglaise (Ricardo, Smidt, etc.), le socialisme français (Saint-Simon, Fourier, L. Blanc, F. Robert, Lammenais, E. Cabet, Proudhon, R. Owen). Outre ces trois sources, l'auteur signale l'importance des découvertes scientifiques du XIX<sup>e</sup> siècle (Darwin, etc.).

### II. Sur la nation

L'auteur fait l'analyse suivante du marxisme: la nation est un prétexte pour renforcer les Etats; le principe internationaliste est établi. Dans l'histoire du marxisme on distingue deux étapes: l'une où le problème national «est ignoré»; l'autre où l'on admet «la question nationale», sans que le concept de nation soit clarifié.

1) Pour Marx et Engels, le nationalisme est une forme idéologique liée à un certain niveau du capitalisme. L'exploitation nationale et coloniale, bien que condamnables, peuvent être historiquement nécessaires. La seule perspective d'appréciation est la révolution socialiste. Le terme «nation» est dépourvu de contenu propre. Le prolétariat n'a pas d'intérêts nationaux. La solution du problème social apportera avec lui celle de la question nationale.

2) La II<sup>e</sup> Internationale où apparurent deux courants: a) Rosa Luxemburg et Pannekoek, pour qui le prolétariat doit s'opposer au mouvement national bourgeois et se limiter à défendre l'objectif démocratique et culturel du nationalisme. b) Otto Bauer, pour qui le «sentiment national» n'est pas lié au capitalisme; la «nation» est définie par la «culture»; les travailleurs doivent défendre comme leurs, les droits à la liberté, à l'unité et à l'autodétermination.

3) La III<sup>e</sup> Internationale recueille la doctrine de Lenine et Staline. Ceux-ci dépassent les idées antérieures, définissent la «nation» avec des critères «objectifs» et défendent le droit à l'autodétermination. Ainsi, loin d'appuyer les principes du mouvement national, on prétend obtenir l'alliance des travailleurs et du mouvement national antisariste. En fait, Lenine s'opposera au démembrement de l'empire, et à l'autodétermination nationale il opposera l'autodétermination des travailleurs. Il proposera la formule politique de la fédération et de l'unité de l'Etat assurée par le Parti fortement centralisé.

Quant au colonialisme, la III<sup>e</sup> Internationale défend le critère que le Parti Communiste des colonies doivent établir des alliances avec les mouvements nationaux dans la mesure où ils sont capables de les contrôler.

En dernier lieu, la question est posée de savoir si la «nation» a un contenu propre, irréductible. L'auteur répond affirmativement en s'appuyant sur les thèses de Pierre Vilar. Le marxisme devrait assumer cette réalité dans sa théorie et dans sa pratique.

# Marx eta giza pertsonaren problematika

Karlos Santamaria

## 1. Gizaki kolektiboa, gizaki banakoa

Emmanuel Mounier pentsalari pertsonalistak kritika esentzial bat egin zion marxismoari bere *Manifeste au service du personnalisme*-an (1936); hona haren hitzak:

«la lacune essentielle du marxisme est d'avoir méconnu la réalité intime de l'homme, celle de la vie personnelle»<sup>1</sup>.

Alegia: «marxismoaren hutsune esentziala, gizakiaren barne-bizitza pertsonalaren errealitatea ez ezagutu izana da».

Ezagutu ere, gizaki kolektiboa ezagutzen du marxismoak, ez ordea gizabanakoa, gizaki banakoa, indibiduoak, pertsona —dio Mounier jaunak. Ez ezagutze honetatik ondorio bat dator, hain zuzen ere, Mounier-ek bere manifestuan esaten duenez: «Gizaki kolektiboarekiko marxismoaren baikortasunak, gizabanakoarekiko ezkortasun erradikal bat esaltzen du»:

«L'optimisme que le marxisme professe sur l'avenir de l'homme, est un optimisme de l'homme collectif, recouvrant un pesimisme radical de la personne»<sup>2</sup>.

Hitz hauek nahiko ongi erakusten dute, pertsonalistek egiten duten kritika, gizakiarekiko Marxen pentsaerari buruz.

Beste pentsalari pertsonalista asko, Mounier—en gisara mintzatzaren da puntu honetan. Jacques Maritain jaunak, adibidez, honela egiten du bere *La personne et le bien commun* izeneko liburu-txoan<sup>3</sup>: Komunismoa, indibidualismoaren kontrako erreakzio bat da, eta gizakiaren liberazio absolutura jotzen du. Hau egia dela ezagutu beharra dago, dio Maritain jaunak. Baina, komunismoak gizakiaren barnekotasuna ezagutzen ez duenez, komunismotik etor litekeen liberazioa ez da gizabanakoaren liberaziorik izango, gizaki kolektiboaren liberazioa baizik.

Etienne Borne pertsonalista are urrutiago doa gai honen plan-teiamenduan. Honentzat, pertsonaren barnekotasuna ez ezagutzeak iraultzaren bidea ere hersten dio marxismoari, zeren Borne-ren eritziz, gizabanakoa helburutzat hartu gabe, ezina bait da egiazko iraultza egitea<sup>4</sup>.

Baldin marxismoak, prejuizio materialistagatik, gizabanakoaren kontzeptua ezeztatzen badu —dio Borne jaunak—, Historia fisika bihurtzen da, eta ez dago egon, marxismoaren sailean, iraultzaren ustea oinarritzeko modurik.

Esan dezagun, pertsonalistek kritikatzaren duten dikotomia hau —gizaki kolektiboaren eta gizaki banakoaren arteko bereizketa, alegia— Marxen beraren perpaus batzuk bermatzaren bide dutela. Hona hemen, esate baterako, Marxen *Plusbalioaren teoria* liburuaren perpaus bat, nahiko adierazkorra:

«el desarrollo de las capacidades de la especie Hombre [maju-kulekin], a pesar de realizarse por de pronto a costa de la mayoría de los individuos humanos y de ciertas clases de hombres, rompe al final ese antagonismo y coincide con el desarrollo del individuo mismo, o sea que el desarrollo superior de la individualidad tiene que comprarse mediante un proceso histórico en el cual son sacrificados los individuos»<sup>5</sup>.

Marxen testu honen arabera, gizaki kolektiboaren hazkuntzak eta gizabanakoaren hazkuntzak, bat egingo dute azken finean. Baina, oraingoz behintzat, bizi garen gizarte alienatu honetan, bigarrrena —gizabanakoa, indibidua, alegia— sakrifikatu beharra dago gizaki kolektiboaren alde.

Mounier-ek esandakoa Marxek berak bermatzen duela dirudi: gizaki kolektiboarekiko baikortasuna, gizabanakoarekiko ezkortasuna.

Baina arazoa ez da horren erraza. Eritziok guztiz bestelakoak agertzen bait dira Marxen idazkien beste pasartei begiratzen bazaie. Izan ere, Marxen beste testu asko aztertu behar da, Mounier jaunak planteiatutako gaiari erantzunen bat ematen saiatzeko.

Pentsalarì pertsonalistek ez ezik, marxista ezagun batzuek ere kritika bera egiten diote marxismo ortodoxoari. Pertsonari buruzko teoria marxistarik eza kritikatzeko dute, baita huts honetatik aterako daitezkeen ondorio kaltegarriak azaltzen ere, argi eta garbi.

Marxisten artean kritika hau planteiatu duten lehenengoetako bat, Adam Schaff poloniarra izan da. Ez bakarrik lehenengoetako bat, sakonenetako bat ere baizik, nire ustez behinepehin. *Marxismoa eta giza indibiduo*a izeneko haren liburua, 1966 urtean argitaratu zen. Eztabaida asko harrotu zuen liburu honek Poloniako inguru intelektual batzutan. Poloniako gobernuak, haatik, ez zuen gaizki ikusi, liburuan agertutako Schaff-en ideiak nahiko heterodoxoak baziren ere.

Schaff jaunaren eritziz, gaurko marxismoaren egoeran, nahitezkoa da pertsonaren teoria marxista bat eraikitzea. Horren arrazonomendua, gerla ondoko egoeratik abiatzen da. Gerla ondoan —dio Schaff-ek— problematika berri bat agertu zen Estatu sozialistetan. Ordurarte, gizarte sozialista bat eraikitzen saiatu zen jendea, begiak etorkizunean bakarrik jarrita. Gerla bukaeran, berriz, sozialismoa jadanik eraikia zegoen, jendearen eritziz. Sozialismoaren lehen urteetan baino galde askoz haundiagoak agertzen ditu gaurko jende komunistak.

Bestalde, gerla bitartean hainbeste sarraski, suntsidura, bombardaketa, zapalketa, zigor eta oinaze nozitu ondoren, atsegin- eta zorian-desio bat esnatu zen, Polonian eta sortaldeko beste estatu sozialistetan.

Hori dela eta, jende askok, gazteek batez ere, jarrera kritikoa hartu dute indibiduoaren problematikari buruz. Adibidez —dio Schaff jaunak—, jendea konturatu da, jabego pribatua ezeztatzea ez dela nahikoa gizakiaren gaitz guztiak saihesteko. Konturatu da, indibiduoaren heriotza eta bizitzaren zentzuaren problemak iraun dirauela, sozialismoa ezarri ondoan ere: erlijio-senaren proble-

mak, zorionaren problemak, libertatearen problemak, etab. Schaff-ek problema antropologiko deitzen dituenak bizi-bizirik daude gizarte sozialistetan, Schaff berak dienez. Hitz batean —dio Schaff-ek—, problema antropologikoak, gerla ondoko urteez gero joka ari dira sozialismoaren ateetan, gero eta indar haundiagoz<sup>6</sup>.

Batzuen eritziz, problema horiei erantzun marxista bat emateko, hor daude Marx gaztearen izkribuak, orain arte behar den bezala probetxatu gabeak. Baina Marx gaztearen idazkiak oso ilunak dira, eta, gainera, Hegelen idealismoak kutsatuak daude.

«Marx usaba en su juventud —dio Schaff jaunak<sup>7</sup>— un estilo horriblemente ampuloso y prolijo. Las obras de esta época son —en el mejor de los casos— difícilmente legibles para el lector contemporáneo no especializado en este período. Pero lo peor del caso es que el joven Marx es obscuro (...) es verdaderamente de una imprecisión «a lo Hegel», lo que resultaría impensable en el Marx exacto, preciso, de la época siguiente».

Zer egin, bada, gaurko indibiduoaren problematikari marxismoaren arloan erantzun bat emateko? Erantzun honen zailtasuna, honako puntu hauetan azaltzen da, besteak beste.

*Lehenengoa:* Marxen pentsaeratik teoria antropologiko bat laster atera beharra dago gaurko bitartean.

*Bigarrena:* Horretarako iturririk onena Marx gaztearen izkribuak dirateke.

Baina —*hirugarren*— izkribu hauek agertzen zaizkigun gisan behintzat, ez dute marxismoaren hutsune antropologikoa betetze-ko balio.

*Konklusioa:* oztopo hauek gainditzeko, honela jokatu behar da: Marx gaztearen eta Marx helduaren aztarna antropologikoak bildu, aztertu eta sakondu ondoan gizabanakoari buruzko teoria marxista guztiz errigoretsu bat eraiki behar da horien gainean. Zorritzarrez —dio Schaff-ek—, orain arte mundu sozialistan ez da ezer egin arlo honetan, eta hutsune honetatik gaitz asko etorri zaio marxismoari.

«¿Puede uno extrañarse —dio Schaff-ek<sup>8</sup>— de que estos problemas hayan hecho víctimas (en los medios comunistas) sobre todo entre la juventud, y de que se hayan realizado ten-

tativas de existencializar a Marx e incluso de proclamar a Marx existencialista?».

Hau da, izan ere, Schaff marxistaren salaketa, Mounier-en aipatutako kritikarekin nolabait ere bat datorrena. Schaff jaunak batez ere Poloniaren kasu berezia aipatzen duen arren, berehala ikusten da haren kritika guztiz orokorra dela.

Beste pentsalari marxista askok ere eskakizun bera egiten dute: antropologia marxista baten beharra, alegia.

Hor dugu, esate baterako, Lucien Sève marxista ortodoxo eta komunista leiala, bere *Marxisme et Théorie de la personnalité* izeneko liburuarekin. Aitortu beharra dago —dio Sève jaunak— guztiz beharrezkoa dela materialismo historikoaren sailean giza pertsonalitatearen teoria garbi eta eginkor bat. Gaurko marxismoaren hutsune esentziala, argi eta garbi kritikatzeko du Lucien Sève jaunak, eta, salaketa hau egiteko, Mounier-en *lacune* hitz bera erabilten du, hain zuzen:

«Il semble y avoir, pour le moment encore, une lacune réelle à l'endroit de la théorie de la personnalité».

Izan ere, Sève<sup>9</sup> jaunaren ustez, *lacune* hau, hutsune hau, objektiboki ukakortzat hartu behar da materialismo historikoaren egin-kizunerako.

«Le fait que le marxisme n'offre pas aujourd'hui de façon claire et cohérente une théorie de l'individu concret (...) alimente les tentatives perpétuellement infécondes, mais sans cesse renaissantes, de croiser le marxisme avec des théories de l'individualité (...) complètement étrangères au marxisme»<sup>10</sup>.

Beharbada, gurutzamendu hau izan da, hain zuzen ere, Frankfurt-eko Eskolaren kasuan gertatua. Frankfurt-eko Eskolaren historilari den Martin Jay jaunak dioenez, Eskola horretako lagunak laster konturatu ziren materialismo historikoan hutsen bat zegoenaz: «La lacune se trouvait —dio Martin Jay jaunak<sup>11</sup>— dans le domaine de la psychologie».

Fromm eta Markuse-k, batez ere psikoanaliari eskatu zioten erantzuna. Korronte pseudo-marxista bat atera zen hemendik, Mark eta egiazko marxismoarekin zerikusirik gabea. Markusek, adibidez, explotazio ekonomikoaren lekuan, errepresio sexuala delakoa jarri omen zuen. Fromm-en teoriak, halaber, judeotasu-

naren, kristautasunaren, freudismoaren eta marxismoaren nahasketa dira.

Schaff, Sève eta beste pentsalari marxisten eritziz, ezaba liteke nahasketa eta desbiderapen hauen arriskua, antropologia marxista bat izanez gero. Eta eginkizun honen erroa Marxen pentsaeran aurkitzen da, dudarik gabe.

Baina nola berreskura sustrai horiek?

Sève jaunaren ustez, Marxen obra osoaren berrazterketa sakon bat eskatzen du lan honek.

«Je pense en avoir assez dit —dio Sève jaunak<sup>12</sup>— pour faire apparaître la nécessité d'un réexamen systématique et rigoureux de ce que devient dans son ensemble la problématique de l'homme à l'intérieur du marxisme mûr, de l'*Idéologie Allemande au Capital*».

Gizabanakoaren gaia textuinguru marxiano batetan erabiltzeko, derrigorrezkoa da, izan ere, Althusser-en eten epistemologikoaren ideia gainditzea.

Marx helduaren planteiamenduak haren gaztaroko kezka antropologikoetatik zeharo aldendurik bazeuden ere, horrelako planteiamenduetan axola antropologikoek irauin dirautela, hamai-ka bider frogatua dago, Marx helduaren beraren testu ezagun askoren bitartez.

Jakina denez, Althusser-ek ez du onartzen teoria marxista delakoan gizaki kontzeptua sartzeko ustea ere. Alde honetatik, heterodoxotzat salatzen ditu Althusser jaunak Lukaács eta Gramsci.

Althusser-en eritziz, gizaki kontzeptua defendatzen duten marxistak historizismo faltsu batean erori dira, non gizabanakoaren eginkizunari leku zentral bat ematen bait zaio Historiaren interpretazioan.

Althusser-en arabera, gizaki kontzeptua oztopo bat da Historiaren prozesua ulertzeko. Klase borrokan eta masa-mugimenduetan ez bestetan datza hau. Gizakiak ez dira Historiaren subjektuak, ondorioak baizik. Materialismo historikoak ez du ezagutzen, ez gizakirik, ez Historiaren beste subjekturik. Jakina denez, subjekturik eta helbururik gabeko prozesu bat da Historia, Althusser-en ikuspuntutik<sup>13</sup>.

Marx gaztearen ideietatik antropologia marxista bat atera nahi



izatea, guztiz zentzugabekoa da Althusser-en eritziz. Marx gaztearen pentsaera antropologikoa, Feuerbach-en eraginaren ondorio da, besterik ez. Hortik egiazko marxismora igarotzerik ez dago egun ere, beti Althusser-en eritziz.

Baina gaurko munduaren desgizartetasun gero eta haundiagoa problema esentzial bat da marxista gehienentzat. Althusser-en subjekturik gabeko historiak ez omen du etorkizun haundirik.

Antonio Gramsci-ren ikuspuntu historikoa, Althusser-enaren guztiz bestelakoa da. Hau dio Gramsci-k:

«Las fuerzas mecánicas no triunfarán en la historia sin los hombres, son las conciencias y el espíritu los que modelan la realidad y acaban siempre por triunfar... A la ley natural, al curso fatal de las cosas que afirman los pseudo-sabios se ha sustituido la voluntad tenaz del hombre».

Feuerbach-en ideien oihartzuna entzuten da Gramsci-ren hitz hauetan.

Gramsci-k erabilitako gizakia, kontzientzia, izpiritua hitzek, zein esanahi izango lukete antropologia marxista batean, esanahirik izatekotan?

Orain arte esandakoa piska bat laburtuz, zera esango dugu jarraitu baino lehen: komunismoak gaurko problematika antropologikoari —libertatearen gaiari, zorionaren gaiari, eta abarri— erantzun bat eman ahal izateko, gizakiaren teoria marxista batetik abiatu beharko litzateke. Baina teoria hau ez dagoelako, nahitaezkoa da berriz ere iturrira, Marxen pentsaerara, itzultzea. Ikus dezagun, beraz, zeintzuk izango liratekeen Marxen idazkietan, antropologia marxiano baten azterna eta hatz nagusiak.

Hor ditugu, esate baterako: Marxek erabilitako alienazio kontzeptua; Feuerbach-en gaineko Marxen seigarren tesia, gizakiaren esentziari buruz; gizakiaren eta animaliaen arteko diferentziak, Marxek aurkeztu bezala; kontzientzia pertsonalaren eta gizartearen arteko erlazioa; gizakiak, gizakiaren kreaio edo autokreaioa, etab.

Oso ezagunak dira Marxen ideia guzti hauek. Horietako batzuek Feuerbach-i hartuak badira ere, ez du inork ukatuko Marxek orijinaltasun handiz erabiltzen dituenak. Marxek iraulketa bat egiten du kontzeptu guzti horiekin, idealismo hegelianotik materialismo historikora bihurtuz, segidan ikusiko dugunez.

Baina, aldez aurretik, zerbait esan beharra dago Marxen pentsaera antropologikoz, hots: Marxek, bere idazki guztietan eragotzi duela gizaki abstraktuaren ideia. Gizaki konkretuak, hezur eta mamizkoak ezagutu nahi ditu Marxek batere abstrakziorik onartu gabe.

Hegel eta Feuerbach kritikatzin ditu alde honetatik, batez ere *Ideologia alemana* liburuan. Hegelek, gizaki errearen lekuan, nor bere buruaren kontzientzia [*la conciencia de sí mismo*] jartzen du abstrakzio gisara. Feuerbach-ek gizaki teoriko bat ezagutzen du, Marxek dioenez, gizaki errearekin zerikusirik ez duena. Feuerbach-ek, genero nagusi gisa darabil gizakia, ezin konta ala gizon eta emakume dohakabe, miserable, goseti eta gangaildunen ikaragarritzko errealtatea alde batera utzita. Feuerbach-en gizakia-aren faltseapen hau gogorki gaitzesten du Marxek *Ideologia alemana* obraren pasarte askotan.

Ohartaraz dezagun, pertsonalismo kristaua bat datorrela puntu honetan Marxekin. Izan ere, pertsonaren errealtatea nolana hiko abstrakzioaren bidez mugatu nahi izatea, kontraesan bat da. Hori dela eta, pertsonalisten ikuspuntutik ez dago pertsonaren zientziarik, ez ideologiarik ere. Pertsonalismoa, hain zuzen, anti-ideologia bezala aurkezten du Jean Lacroix jaunak bere *Le personnalisme comme anti-idéologie* izeneko liburuan<sup>14</sup>.

Marx, ordea, materialista da, duda gabe, nahiz eta honen materialismoa aitzinako materialismoaren aldean guztiz diferentea izan. Beraz, gizakiari buruzko Marxen usteak materialista izan behar, ezinbestean. Biologismo eta fisiologismo arruntak, gizakia molekula eta zeluletatik esplikatatu nahi duten teoriak baztertu egiten ditu Marxek, zalantzarik gabe. Baina, honekin batera, transzendentzia oro gaitzesten du.

Pertsonalista kristauak defendatzen duten pertsonaren ulerpena, berriz, transzendentia da. Sineste bat, fede bat eskatzen du pertsonalismoak, pertsonaren errealtatea ezagutzeko. Indibiduo biologikoa, fisikoa, guztiz ikusgarri eta ukigarria da. Haatik pertsonaren existentzia ezin froga dezake inork, errealtate transzendente bat delako.

Marxek, aldiz, pertsonaren transzendentzia fantasmagoriatzat hartzen du; hau dela eta, pertsonalistok ez dugu inolako deretxorik lilura faltsuak bizkortzeko puntu honetan. Nire ustez behin-

tzat, ez dago inolako sinkretismorik pertsonalismo kristauaren eta marxismoaren artean.

## 2. Gizakia eta animalia

Hau esanda, esan beharra dago halaber, gizakiaren eta animalia-riaren artean erabateko diferentziak daudela Marxentzat. Ideia hau bazegoen, egon, Feuerbach-en idazki filosofikoetan, fraseologia ponposo batean. Baina Marxek giro berria ematen dio ideia berari. Feuerbach-ek, kontzientzia eta erlijioa direla medio bereizten zituen gizakiak eta animaliak —dio Marxek. Horien arteko lehen diferentzia, ordea, gizakiak bere bizitzaren medioak eta bideak erakitzen ditueneko gertaeran datza.

*Kapitala* liburuaren hirugarren sailean puntu honi dagokion enxemplu argia ematen du Marxek, armiarma eta erlearen enxemplu ezaguna, alegia. Honela dio testu horrek:

«Una araña realiza operaciones que se parecen a las del tejedor; la abeja confunde, por la estructura de sus celdillas de cera, la habilidad de más de un arquitecto. Pero lo que distingue desde un principio al peor arquitecto de la abeja más experta es que aquel ha construido la celdilla en su cabeza antes de construirla en la colmena. El resultado al que llega el trabajo (humano), pre-existe idealmente en la imaginación del trabajador. No es sólo que opere un cambio de forma en las materias naturales sino que realiza al mismo tiempo su propio objetivo, del cual tiene conciencia, el cual determina como ley su propio modo de acción y al cual debe subordinar su voluntad»<sup>15</sup>.

Beraz, guztiz desberdinak dira gizakiaren eta animalia-riaren lanak. Gizakiaren lana, bermadura kontziente eta borondatezko baten ondorioa da, ez animalia-riaren lana bezala, instintu hutsaren ondorioa.

Marxen eritziz, gizakiek, beren lana dela medio, beren burua kreatzen dute. *Pariseko eskuizkribuak*-etan, ideia bera aurkezten du Marxek<sup>16</sup>:

«El animal se identifica inmediatamente con su actividad vital. No se distingue de esta (...) El hombre [en cambio] hace de su propia actividad vital el objeto de su voluntad y de su conciencia».

Ohartaraz dezagun bidenabar, Marxek borondatea eta kontzientzia aipatzen dituela textu honetan, *Kapitala* liburuan bezala. Eta jarraitzen du:

«[El hombre] tiene una actividad consciente (...) La actividad vital consciente distingue inmediatamente al hombre de la actividad vital del animal (...) [El hombre] es un ser consciente y su propia vida es para él un objeto precisamente porque es un ser genérico. Esta es la causa de que su actividad sea una actividad libre». Es cierto que el animal también produce [dio Marxek pixka bat aurrerago]. Construye su nido, su habitación, como lo hacen la abeja, el castor, la hormiga, etc. Pero construye solamente lo que le es necesario para él y para su progenitura. Produce de un modo parcial mientras que el hombre produce de un modo universal. El animal sólo produce bajo el imperio de la necesidad física inmediata mientras que el hombre sigue produciendo incluso cuando se halla liberado de su necesidad física. Y, en realidad, sólo produce verdaderamente cuando está liberado de esta».

Esan guzti hauek, ilun eta nahasiak badira ere, zerbait adierazten digute Marxen pentsaera antropologikoari buruz. Ez bakarrik Marx gaztearen pentsaera, baita Marx helduaren pentsaera ere, lehen aipaturiko textua *Kapitala* liburuan agertzen denez gero.

### 3. Giza kontzientzia

Baina zertan datza Marxentzat giza kontzientzia delako hori?

Puntu honetan guztiz urrun daude elkarrengandik pertsonalista kristauon ideiak eta Marxenak. Pertsonalista kristauen ustez, kontzientzia da pertsonalitatearen mamia eta muina. Gizakiaren barne-barnekoa, ezkutuen, sakonena, non beste inork ez bait du sartzeko deretxorik.

Marxen eritiz, ordea, gizakiaren kontzientzia gertaera sozial bat besterik ez da, berak *Ideologia Alemana* liburuan dioenez.

«La conscience est d'emblée un produit social et le demeure aussi longtemps qu'il existe des hommes»<sup>17</sup>.

Mundu guztiak ezagutzen du 1859 urteko *Grundrisse* direlako-  
etako Marxen perpaus famatua:

«Ez da gizakien kontzientzia gizakien existentzia determina-  
tzen duena, aitzitik, existentzia soziala da gizakien kontzien-  
tzia determinatzen duena»<sup>18</sup>.

Karl Marx eta Friedrich Engels-ek gauza bera esaten dute, bes-  
teak beste, *Ideologia alemana* liburuan:

«Ez da kontzientzia bizitza determinatzen duena, bizitza da  
kontzientzia determinatzen duena»<sup>19</sup>.

Merezi du puntu honetan Marxen pentsaera materialista ongi  
ulertzeko perpaus honen textuingurua ezagutzeak:

«No se parte aquí de lo que los hombres dicen, se imaginan o  
representan sobre sí mismos. Se parte de su proceso de vida  
real. Incluso las fantasmagorías en el cerebro humano son  
sublimaciones que resultan necesariamente del proceso de su  
vida material, el cual puede ser constatado empíricamente y  
reposa sobre bases materiales. Por esta razón, la moral, la re-  
ligión, la metafísica y todo el resto de la ideología, así como  
las formas de conciencia que les corresponden, pierden in-  
mediatamente toda apariencia de autonomía. No tienen his-  
toria, no tienen desarrollo: son, al contrario, los hombres los  
que, desarrollando su producción material y sus relaciones  
materiales, transforman, al mismo tiempo que esta realidad  
que les pertenece, su propio pensamiento y los productos de  
su pensamiento. No es la conciencia lo que determina la vida  
sino la vida lo que determina la conciencia»<sup>20</sup>.

Maximiliano Rubel jaunak dioenez, kontzientziaren autono-  
miaren ukazio hau da, hain zuzen, Marxen materialismoari zentzu  
guztia ematen diona.

Pertsonalista kristauontzat gizakiaren kontzientzia autonomoa  
da, beregainekoa da. Marxentzat, berriz, kontzientzia guztiz mu-  
gatua eta lotua dago gizartearen errealitate materialarekin. Honen  
arabera —kontzientzia produktu sozial denez, alegia—, gizartea  
aldatu arte ez da gaurko gizakien «zoritarreko kontzientzia»  
aldatuko. Izan ere, gaurko gizartean gizakia alienaturik dagoelako,  
ez da agertzen haren egiazko izatea.

#### 4. Alienazioa

Alienazio kontzeptua da antropologia marxianoaren aztarnarik ezagunenetako bat.

Esan dezagun, alienazio kontzeptua ez dela bakarrik Marxen gaztaroko uste bat. Aitzitik, Marxen obra osoa zehar ageri da. Gauza frogatua da, izan ere, alienazio kontzeptuak *Pariseko eskuizkribauak*–etatik *Kapitala* libururaino, Marxen obra osoan irauten duela.

Baina Marxentzat, alienazioa ez da gertaera abstraktu bat. Gaurko egoeran, dio Marxek *Pariseko eskuizkribuak*–etan, indibiduoak alienatuta daude, giza komunitatea ez da komunitate errearen karrikatura bat besterik.

Marxek, *Familia Saindua* liburuan, gizakiaren eta honen errealtatearen arteko banaketa bezala definitzen du alienazioa. Alegia: «un estado de separación total entre el hombre y su realidad objetiva».

Arrazoi du, beraz, Adam Schaff jaunak, hau esatean: «Marxentzat, gizaki egiazkoaren eta gizaki errearen arteko gatazka bat da alienazioa». Gizaki egiazkoa eta gizaki erreala; gizaki erreala, gaurko gizarte alienatuan bizi den gizakia da, noski.

#### 5. Gizakia: «erlazio sozialen osotasuna»

Baina zein da Marxentzat gizaki egiazkoa delakoa? Galdera honek gizakiaren esentziaren gaira garamatza derrigorrez.

Marxek problematika antropologikoari ematen dion erantzuna ulertzeko, beharrezkoa da, Feuerbach–en aurkako Marxen seigarren tesia kontuan izatea. Aitortu behar dugu puntu horretan ezberdintasun handia dagoela Marxen eta pertsonalista kristauen artean, segidan ikusiko dugunez. Guztiok ezagutzen dugu Marxen seigarren tesiaren testu famatua:

«La esencia humana no es una abstracción inherente al individuo humano. En su realidad es el conjunto de las relaciones sociales».

Alegia, gizakiaren esentzia ez da abstrakzioren bat, erlazio sozialen totaltasuna baizik.

Idea hauen interpretazioak makina bat eztabaida biztu du pensalari marxisten eta ez marxisten inguruetan.

Ohar bat egin beharra daukagu aurretik, nahasketatik itzurtzeko. Marx jaunarentzat, edozein gauzaren esentzia ez da zerbait abstraktu izaten; ez da kontzeptu edo ideia abstraktu bat, zerbait konkretu eta erreala baizik. Idealistengandik iheska, edozein sailetako abstrakzioaren lekuan, abstrakzio konkretua jartzen du Marxek, «abstrakzio konkretu» esaera honi kontraesana baderitzogu ere.

Feuerbach-en gizaki abstraktutik gizaki errealerara igarotzerik ez dago, dio Marxek. Beraz, gizakiaren esentzia konkretua erabili behar da.

Non dago, baina, esentzia konkretu hau? Ez dago gizabanakoa: indibiduoak ez du esentziarik izaten. Gizakiaren esentzia gizaki kolektiboan dago. Giza kolektibitatearen erlazioetan ez bestetan dago, esan du Marxek bere seigarren tesian.

Guzti hau dela eta, Marxen eritziz, gizakia zertan datzan jakin nahi dezanak, ez indibiduoari, baizik begien aurrean duen gizarte konkretuari begiratu beharko dio.

Alde honetatik, hasieran aipatu dugun Emmanuel Mounier-en eritzia bermatu egiten dela dirudi. Marxen antropologian, egiazko gizakia ez da gizabanakoa, gizaki kolektiboa baino. Hona hemen, berriro, lehen aipatutako marxismoaren hutsunea.

Hau esatea gehiegizkoa da beharbada. Marxen gizakiazko planteiamenduetan bai bait dago hori baino baikorragorik.

Marxen jarrerak badu, bere logika eta arrazoia. Marxentzat indibiduo isolatua gizatasunaren eredutzat hartu nahi izatea, indibiduoak da, guztiz onargaitza. Gizakia izaki soziala da, ez bakarrik azaletik, gertaera akzidental batzuegatik, bere esentzia eta mamiagatik baizik. Ez da bidezko Robinson Crusoearen gisako gizaki bakarti bat, bere intimitatean guztiz ezkutatua, eredutzat defendatzea.

Bada garaia, izan ere, errobinsada guzti horiek saihesteko.

Bat gatoz, beraz, Marxen perpaus batzuekin. Adibidez, hau esaten duenean: «la verdadera riqueza intelectual del individuo de-

pende enteramente de sus relaciones reales»<sup>21</sup>. Edo beste hau dioenean: «las circunstancias hacen a los hombres más que los hombres a las circunstancias». Inork ez du ukatuko esaldion arrazoizkotasuna.

Seigarren tesia bururaino eramateak, ordea, gizabanakoaren erabateko ukapenera eramán lezake. Exenplu bat, Marxek *Grundrisse* direlakoetan esandakoa: «La sociedad no se compone de individuos; representa solamente la suma de las relaciones y de las condiciones en las cuales se encuentran entre sí los unos respecto a los otros»<sup>22</sup>.

Aitortu beharra daukagu, nahiko gogorra dela textu hau, interpretazio estu bat egitekotan.

Hitzez hitz hartzen badugu, ez dago indibiduorik. Edo, behintzat, indibiduoak ez du batere garrantzi sozialik, batere eskurik gizartearen eraikuntzan. Ez da historiaren subjektu aktibo, subjektu pasiboa baizik.

Nik ez dut uste Marx gehiegikeria horiekin bat etor zitekeenik. Dena den, gure helburuari jarraitzeko, seigarren tesiaren beste ondorio garrantzizkoak mintzatu behar dugu.

Marxen eritziz, gizakiaren esentzia erlazio sozialen totaltasuna delako, pentsatu ohi den baino askoz sakonagoak dira indibiduen arteko eraginak. Erlazio sozialak direla medio, indibiduoek bere buruak kreetzen dituzte. Ez dira kanpoko botere baten ondorio. «Los individuos se crean entre sí los unos a los otros tanto en lo físico como en lo moral» dio Marxek *Ideologia alemana* liburuan<sup>23</sup>.

Hau da, baita, Marxen perpaus famatu batzuren esanahia: «nosotros somos nuestros propios forjadores», «los forjadores de nuestra vida, de nuestra mente».

Schaff jaunak oroitarazten duen bezala, Antonio Gramsci da ideia marxiano hauen profetarik handiena; Gramsci-rentzat, hau da gizakiaren definizioa: «El hombre es un proceso, el proceso de sus propios actos»<sup>24</sup>. «Bai esan zabal eta baikorra!», dio Schaff jaunak perpaus hauek aipatuz. Baliteke puntu honetan egotea antropologia marxianoaren mamia:

«El concepto del individuo como parcela de la naturaleza, como parcela de la sociedad y producto de la autocreación, es decir como resultado práctico de los hombres creadores



de la historia, estos son los fundamentos esenciales de la concepción marxiana del individuo».

Jean Lacroix pertsonalistak honela kritikatzten du gizakia autokreazioaren ondorioztat agertzen duen kontzeptzio hau:

«Para el hombre socialista la historia universal no es nada más que la procreación del hombre por el trabajo humano».

Merezi du, ordea, Schaff-en ikuspuntua pixka bat aztertzeak, batez ere gizakiaren kontzeptua, gizakia gizartearen zati edo partzela bezala agertzen duena. Zer esan nahi du Schaff-ek, gizakia gizartearen «partzela» edo zatitxo bat dela esatean?

Schaff berak ohartarazten duen bezala, pentsaera pertsonalista kristaua eta pentsaera marxianoa zeharo desberdinak dira elkarrengandik.

## 6. Marx pertsonalista ote?

Pertsonalistek indibiduo eta pertsona kontzeptuen arteko bereizketa oinarritzko bat egiten dute. Indibiduoak, gizartearen zati bat da eta, alde honetatik, gizartearen errealitateak zeharo kondizionatua dago. Pertsona, berriz, ez da gizartearen zati bat, zeharo haundiagoa den zerbait baizik: izaki librea, bere buruaren jabea, transzendentea; pentsamendu, zientzia, teknika, ekintza eta abarren kreatora. Nahiz eta gauzarik txikienetan izan, kreatora da pertsona; gauza askoren sustrai eta hasiera; beti miragarri eta harrigarria. Pertsonagandik abiatzen bait dira historiaren bide guztiak.

Personaren barnean dago existentziaren enigmarik haundiena.

Hitz batean: pertsonalisten ikuspuntutik, pertsona ez da gizartearen zati bat, osotasun eta totaltasun bat baizik.

Idea hauetatik dator, hain zuzen, pertsonalista batzuek maiz aipatzen duten *slogan* ezaguna: «el individuo para la sociedad, la sociedad para la persona».

Schaff-ek Marxen pentsaera antropologikoaz egiten duen interpretazioa, guztiz bestelakoa da. Interpretazio honen arabera, gizakia zati bat da beti eta alde guztietatik. Indibiduo biologiko be-

zala naturaren zati bat da. Pertsona bezala, gizarteko erlazioen totaltasunaren zati bat da halaber. Indibiduo biologiko baten gainean igarotzen diren erlazio sozialek haren pertsonalitatea eratzen dute.

Mapa batean gertatzen den bezala: mapa horretan erlazio-sistema bat agertzen da, totaltasun bezala. Hiri jakin batetik igarotzen diren bideek, berriz, sistema partzial bat eratzen dute. Besteak beste, hau da Marxen seigarren tesiaren interpretazioan, gizakiaren kontzeptu konkretua.

Hala eta guztiz ere, Schaff-ek ez du gizaki bakoitzaren originaliterik ukatzen. «Todo individuo constituye un microcosmos particular y su muerte marca el fin de un mundo determinado».

Neri, pertsonalista kristaua naizen aldetik, Marxen pentsaera antropologikoaren interpretazio honek ez dit gauza haundirik esaten. Baina aitortu behar dut —berriro esango dut— pertsonalismoa ez dela zientzia bat, sistema bat, teoria bat, ideologia bat, baikiz sinesmen bat, fede bat pertsonaren existentziaren gainean.

Lan honen konklusio gisa, honako hau esan genezake: batzuek Marx pertsonalistatzat aurkeztu badute ere, nik ez dut uste hau egia denik. Nire eritzi apalean, horregatik, ez dago batere sinkretismorik bi antropologia hauen artean.

K. S.

1 MOUNIER, Emmanuel: «Manifeste au service du personnalisme», in: *Oeuvres, I*, Edit. du Seuil 1961, 519 or.

2 *Ibid.*

3 MARITAIN, Jacques: *La personne et le bien commun*.

4 BORNE, Etienne: «Mounier et le marxisme», in: *Esprit*, 1972, 217 or.

5 MARX, Karl: *Le Capital*, IV, aip. in: SEVE, Lucien: *Marxisme et Théorie de la personnalité*, Eds. Sociales 1969, 96 or.

6 SCHAFF, Adam: *Le marxisme et l'individu*, Lib. Armand Colin 1968, 46 or.

7 *Idem*, 57 or.

8 *Idem*, 58 or.

9 SEVE, Lucien: aip. lib., 27 or.

10 *Idem*, 28 or.

11 JAY, Martin: *L'imagination dialectique: Histoire de l'École de Francfort*, Payot 1977, 197 or.

- 12 Aip. lib., 97 or.
- 13 Ik., adibidez, ALTHUSSER, Louis: *Réponse à John Lewis*, Maspero 1973.
- 14 P.V.F. 1972
- 15 MARX, Karl: *Le Capital*, I, 3, in: *Oeuvres de Marx, I*, Pléiade, 63 or.
- 16 ID.: *Les manuscrits de Paris (1844)*, in: *Oeuvres de Marx, II* Pléiade, 63 or.
- 17 MARX, Karl—ENGELS, Friedrich: *L'idéologie allemande*, Eds. Sociales 1968, 59 or.
- 18 MARX, Karl: *Critique de l'Economie Politique*, in: *Oeuvres, I*, Pléiade, 273 or.
- 19 *L'idéologie allemande*, 51 or.
- 20 *Ibid.*.
- 21 Idem, 67 or.
- 22 MARX, Karl: *Grundrisse*, in: *Oeuvres de Marx, II*, Pléiade, 281 or.
- 23 *L'idéologie allemande*, 67 or.
- 24 SCHAFF, Adam: aip. lib., 85 or.

## MARX Y LA PROBLEMATICA DE LA PERSONA HUMANA

### MARX ET LA PROBLEMATIQUE DE LA PERSONNE HUMAINE

*El autor comienza por constatar la carencia de una teoría de la persona, denunciada tanto por el personalismo cristiano como por ciertos marxistas. Mounier, Maritain, E. Borne, han descrito el olvido de la realidad íntima del hombre, el pesimismo radical respecto al individuo y el optimismo para con el hombre colectivo, la liberación del hombre colectivo a costa del sacrificio de los individuos.*

*Entre los marxistas, Adam Schaff ha sido uno de los que más vigorosamente han reconocido la necesidad de una teoría de la persona. Los problemas del sentido de la vida, la felicidad, la muerte, etc., acosan también al hombre de la sociedad socialista. Los textos de Marx joven no bastan para llenar ese vacío antropológico. Lucien Sève es otro marxista que reconoce esta «laguna» del marxismo. La solución debería buscarse en una profundización de toda la obra de Marx, superando la «ruptura epistemológica» de Althusser, y recuperando los conceptos «hombre», «sujeto», «finalidad», «historia», etc., condenados por él como ideología no-marxista, siguiendo la línea de A. Gramsci, por ejemplo.*

*El autor, en esta segunda parte de su reflexión, enumera y analiza los puntos fundamentales de esta antropología marxista, marcando las diferencias respecto a la antropología cristiana.*

— **Hombre concreto:** Marx ha criticado fuertemente el hombre abstracto de Hegel y Feuerbach, coincidiendo con el personalismo cristiano. Pero el concepto marxista de hombre es materialista, cerrado a la trascendencia. A este respecto es incompatible con el personalismo cristiano.

— *Diferencia entre el animal y el hombre*: Marx, el joven y el maduro, destaca la diferencia entre la actividad animal y la humana. El trabajo humano se distingue por su conciencia, voluntariedad, creatividad, superando el nivel de los instintos.

— *La conciencia humana*: Esta representa realidades muy diferentes para Marx y el personalismo cristiano. Para éste la conciencia es el núcleo de la personalidad, y es una realidad autónoma. Para Marx la conciencia es un hecho social, carente de autonomía, determinado por la «existencia social».

— *Alienación*: Este concepto, presente en toda la obra de Marx, no es algo abstracto. Expresa el conflicto o división del hombre con su propia realidad objetiva.

— *El hombre, «conjunto de relaciones sociales»*: La esencia del hombre está en el hombre colectivo según la 6ª Tesis sobre Feuerbach. El personalismo cristiano está de acuerdo con Marx en la medida en que se afirma que el hombre es un ser esencialmente social y se quiere recalcar la importancia de las relaciones sociales; pero discrepa de la interpretación radical que niega la existencia del individuo o lo entiende como mero sujeto pasivo de la historia.

El personalismo introduce una distinción entre «individuo» y «persona». El «individuo» es parte de la sociedad, está condicionado por ella. La «persona» expresa al hombre en cuanto ser libre, autónomo, transcendente, creador. «El individuo es para la sociedad, la sociedad para la persona». Para el marxismo el individuo, aunque original, es siempre «una parcela de la sociedad».

Termina el autor afirmando que el personalismo se apoya en una fe, y negando que Marx sea personalista, como quisieran algunos.

L'auteur commence par constater l'absence d'une théorie de la personne, dénoncée par le personalisme chrétien tout comme par certains marxistes. Mounier, Maritain, E. Borne on décrit l'oubli de la réalité intime à l'égard de l'homme collectif, la libération de l'homme collectif au prix du sacrifice des individus.

Parmi les marxistes, Adam Schaff a été un de ceux qui a reconnu le plus vigoureusement le besoin d'une théorie de la personne. Les problèmes du sens de la vie, le bonheur, la mort, etc., assaillent aussi l'homme de la société socialiste. Les textes écrits par Marx dans sa jeunesse ne sont pas suffisants pour remplir ce vide anthropologique. Lucien Sève est aussi parmi les marxistes qui reconnaissent cette «la cune» du Marxisme. On devrait rechercher la solution dans l'étude approfondie de toute l'oeuvre de Marx, en dépassant la «rupture épistémologique» d'Althusser et en récupérant les concepts d'«homme», «sujet», «finalité», «histoire» etc. que ce dernier condamne comme étant d'un idéologie non-marxiste, pour suivre la ligne de A. Gramsci par exemple.

Dans une deuxième partie, l'auteur énumère et analyse les points fondamentaux de cette anthropologie marxiste, en soulignant les différences qui la séparent de l'anthropologie chrétienne.

— **L'homme concret:** Marx a fortement critiqué l'homme abstrait de Hegel et Feuerbach, coïncidant en cela avec le personnelisme, fermé à la transcendance et sur ce point il est incompatible avec le personnelisme chrétien.

— **La différence entre l'animal et l'homme:** Marx, dans sa jeunesse et à l'âge mûr, remarque la différence entre l'activité animale et humaine. Le travail humain se distingue par sa conscience, sa liberté, sa créativité et sa possibilité de dépasser le niveau de l'instinct.

— **La conscience humaine:** Celle-ci représente des réalités très différentes pour Marx et pour le personnelisme chrétien. Pour ce dernier, la conscience est le noyau de la personnalité et elle est une réalité autonome. Pour Marx la conscience est un fait social, dépourvu d'autonomie, déterminé par l'«existence sociale».

— **l'aliénation:** Ce concept, présent dans toute l'oeuvre de Marx, n'est pas quelque chose d'abstrait. Il exprime le conflit ou la division de l'homme avec sa propre réalité objective.

— **L'homme, «ensemble de rapports sociaux»:** L'essence de l'homme est dans l'homme collectif selon la 6<sup>e</sup> Thèse sur Feuerbach. Le personnelisme chrétien est d'accord avec Marx dans la mesure où il affirme que l'homme est un être essentiellement social et où il veut souligner l'importance des rapports sociaux; mais il diffère de l'interprétation radicale qui nie l'existence de l'individu ou le considère comme un simple sujet passif de l'histoire.

Le personnelisme introduit une distinction entre «individu» et «personne». L'«individu» fait partie de la société, il en est conditionné. La «personne» exprime l'idée de l'homme en tant qu'être libre, autonome, transcendant, créateur. «L'individu est pour la société, la société pour la personne». Pour le marxisme, l'individu, quoique original, est toujours «une parcelle de la société».

L'auteur finit en affirmant que le personnelisme s'appuie en une foi, et il nie que Marx soit personneliste, comme le voudraient certains.

## Marxismoaz mahaingurua

### P. Iztueta

Arratsalde on, jaun-andreok. Hemen bildu gara, Marxen mendeurrena oroitzeko, eta haren izenean eta ohorez gogoe-ta bat egiteko asmoz. Marxek merezi du hori eta gehiago ere.

Gogoan dut, nola sortu zen Euskal Herrian, 1967an, zala-parta handi samarra, marxismoa zela eta ez zela: Rikardo Arregi zenak sozialismoa modan zegoela esan zuen eta, berehala, Txillardegik «marxismoa modan egon zen» erantzun zion. Orduandantik, gure herri honetan, gauzak zerbait aldatu dira. Denbora honetan, hainbat jokabide eta pentsamol-deren zelaian, borroka handi bat dago eta, nahi badugu eta ez badugu, Marx ere gure artean daukagu; haren alde nahiz kontra egon, gure etxeko dugu. Eta gure etxekoa dugunez gero, bidezkoa da Marxen pentsamendua ezagutzea; eta iturri garbitik ezagutzea.

Ez dugu hemen marxismoa eta honen kideko beste korronteak aztertzeke asmorik; ez dugu, ezta, Marx osorik aztertzeke ez modurik ez asmorik: Marxen zenbait puntu bakarrik ukituko ditugu, gure ustez bizienak diren hiru puntu:

1. Esan bait da, Marxek gizarte-egiturak aztertu zituela bereziki, nola ikusi zuen Marxek gizakia, nola ikusi zuen pertsona bera?

2. Marx bizi izan zen garai hartan, oso bizirik zeuden nazio-arazoak; gogoan dituzue Poloniako kasua, ekialdeko arazoa, Krimeakoa, Irlanda-koa... Zer pentsatzen zuen Marxek nazio-arazoari buruz?

3. Marxek zer nahi zuen, zer bilatzen zuen? agian, gizarte osoaren barruan, iraultza handi bat? gizarteaz pentsatu bakarrik ez, baizik gizartea bera eradaltu errotik?

Galdera hauek erantzuteko, hiru gizon daukagu hemen: Karlos Santamaria, Jokin Apalategi eta E. Lopez Adan «Beltza»: Marx benetan hartu eta ezagutzen dutenak. Ez diet galdetuko marxista diren ala ez; baina esango dizuet, ondo ausnartua, ondo pentsatua daukatela Marx; eta, inportantea, pentsatua eta ausnartua euskaraz, Euskal Herrian. Goi-pentsalari bat da Marx, eta goi-pentsalari baten berri emateak goi-pentsalariak eskatzen ditu. Guzti hori daukagu gaur hemen; eta guzti hori, euskaraz.

Lanerako prozedura bat egongo da: hiruei galdera berak egin zaizkie, eta batak bestearen ondoren erantzungo diote galdera bakoitzari.

## K. Santamaria

1. Marxek gizarte-egituren aldakuntzari bakarrik begiratu al zion eta gizakia ahaztu? Nire ustez, hori ez da egia: Marxek ez zuen gizakia sekula ahaztu. Nire ustez, Marxen helburua, bizitza guztiko helburu esentziala, gizakia salbatzea izan zen, besteak beste: jende langilea, behartsua, zapaldua alienaziotik ateratzea. Marxen abiapuntua ez zen izan ez zientzia, ez teoria, ez ekonomia, ez pentsaera logikoa; baizik, langileen miseriarekiko haserrea eta samindura. Marxen helburu esentziala, Hegelen *Zuzenbidearen Kritika* liburuan aipatzen den inperatibo kategorikoa izan zen: alegia, gizakia arbuiazen, gutxiesten, mespretxatzen eta zapaltzen duten kondizio sozial guztiak ezeztatzea. Hori zen inperatibo kategorikoa, eta hori zen Marxen helburu nagusia ere.

Gizarte burgesaren miseria sozialak zeharo aztertu zituen, hamaika bi-detatik aztertu ere: langileen etxebizitzak bisitatuz, inspektore ofizialen txostenak irakurriz, estatistikak arakatur, etab. Eta galdera hau egin zion bere buruari: nondik dator zabor guzti hau? Eta erantzun: gaitz guztion egiazko kausa ez da zenbait nagusi dominatzaileen gaitzakeria, baizik produkzio-moduak, lanaren zatiketa, klase-borroka, etab. Orduan Marxek zientzia berri bat asmatu zuen. Ez, ordea, nolanahiko zientzia neutrala, baizik zientzia suhar, lehiatsu, iraultzailea.

Nire ondorioa, hau da: Marxek ez du sekula ahaztu gizakia. Marxen egiazko asmoa, hori izan zen: gizartea aldatzea. Gizakia salbatzeko oker zebilen ala ez, hori beste gauza bat da; baina hori zuen helburu.

2. Gai nazionalari buruz, nire eritzia ez da hain optimista: argi eta garbi esango dut, Marxek nazio zapalduen berezko indarrak ez zuen ikusi. Ez zen konturatu nazio-borrokaren benetako garrantziaz, ez zen konturatu

problema nazionalistez. Irlandako problema, Poloniako problema etab. klase-borrokari kontribuzio bezala ikusi zituen, besterik ez: laguntza bat, jakina, iraultza egiteko edo klase-borroka aurrera eramateko; ez zuten berrezko garrantzirik.

Jakina, austro-marxistak aipatzea, Stalinen teoriak aipatzea, gaurregu-neko nazio txikien zapalkuntza ikuspuntu marxistatik interpretatzea... hori beste gauza bat da. Gauza bat bait da Marx eta beste bat marxismoa. Niretzat, Marx oso atzeratua gelditu zen estatu gabeko nazioen egoera aztertzerakoan, ez zuen konprenitu problema hau (badira horretarako arrazoiak, jakina: denbora hartan problema hau ez zen hain ageria, etab.).

Euskadin zein eragin izan du guzti honek? Marxen pentsaerak eragin handia izan du mundu guztian, eta Euskadin ere, dudarik gabe. Baina nire eritzi apalean, Marxen beraren egiazko pentsaera ez da oso ezaguna izan, ez da Marx bera ondo ezagutzen. Marxismoak, bai, joko handia egin du; baina ez edozein marxismok, ez marxismo ortodoxoak. Nire ustez, marxismo ortodoxoa ez da sartu hemen. Marxismoaren ezkerreko zenbait desbiderapen bai, sartu dira (akrazia etab.) Marxismo ortodoxoak garrantzi gutxi du herri honetan.

3. Gizarte-egitura aldatzea... Mundu kapitalistan guztiz murgildurik dagoen herri txiki batean, gurea bezalako herri txiki batean, mundu kapitalistaren gizarte-egiturak aldatu nahi izatea, utopia hutsa iruditzen zait; bitarte honetan, esan nahi dut. Nik ez dut ikusten nola egingo litzatekeen aldakuntza hori, mundu honetan, behar den bezala; ez dut ikusten. Hau da behinik behin nire eritzia.

## J. Apalategi

1. Marxen irakurketa asko dago, irakurketa-modu asko. Dena dela, intelektualan edo jakintsuen artean, 68tik 70erako inguru horretan Louis Althusser filosofo frantsesak egindako irakurketak fama handia hartu du, eta arazo bat baino gehiago ekarri izan ditu. Eta, uste dut, egoki datorrela irakurketa hau aipatzea, zeren, irakurketa horretan oinarrituz, hemen egin den galdera ondo eginga bait dago.

Althusser-ek dioenez, bitan zatitu behar da Marxen obra: Marx, Marx izan aurrekoa eta Marx, Marx izaten hasten denekoa, berezia izaten hasten denekoa. Gaur eztabaidatua da obra horrela bereiztea. Dena dela, badu inportantziarik bereizketa honek, zeren 1844 urterarterko Marxen idatziak humanismoari edo gizakiari buruzko erreferentziez beterik bait daude. Dakizuen bezala, hegelianoa izan zen Marx, Hegelgandik Feuerbach-engan pasa zen, Fichte-ren eragina ere izan zuen. Hauek denak, garai hori dena, filosofi giro hori dena oso humanista zen, nahiz humanismo desberdinak egon. Horien erreferentziez betea dago Marxen hasierako obra. Bigarren Marxek edo *Kapitala*-ren ingurutik hasten den Marxek ez du zuzenki hizkuntza humanista hori erabiltzen; beste terminologia bat, beste kontzeptualizazio bat darabil. Aldaketa oso bat dago.

Marxen bigarren parte honetan ere, bada giza ikuspegi bat. Zertan? La-



bur-labur esango dut: gizabanakoaren baitan —nahi baduzue, intelektu-jokoari leku emanez— bi osagai edo alderdi bereiz litezke (gizabanakoan, diot, giza indibiduoan): forma edo aspektu psikologikoak eta contenido materialak edo sozialak. Marxek, bere obra nagusian, *Kapitala*-n ez ditu forma edo aspektu psikologikoak aztertzen; baina bai gizonari dagozkion contenido sozialak. Eta jabetzen da, gizonak, osotasun bezala, libro izan nahi badu, inguru sozial horretatik ere libratu egin behar duela (eta honetan jartzen du berak azentua). Hor zuzenki gizona ukitzen du. Contenido sozialari dagokionez, *Kapitala*-n egindako aportazioak zeri erantzuten dion esango dut: denok dakigu, gizarte burges batean bizi bait gara, gauzen eta ideien unibertsalitateari errealtate historiko tamaina gabe bat ematen zaiola; unibertsalismoa inbokatzen da eta, hori egitean, gizabanakoari dagokionean, itxuraz mugagabeak diren enpresa-askatasuna, konkurrentzi askatasuna eta hainbeste askatasun defendatzen direnean, itxura horiekin sekula baino gehiago mugatzen da gizabanakoaren askatasuna. Zeren, kapitalismoak gizartea dominatzen duen moduan, indar sozial erraldoien menpeko egiten bait du gizona; gero eta ankerragoa, gero eta latzagoa, gero eta kriminalgoa bait da kapitalismoa. Askatasuna inbokatzen da, baina gero libertate hori estaltzen, itotzen, zapaltzen da: hori da, kapitalismoaren kontradikzio handia.

Eta, hain zuzen, Marxek horri erantzuten dio *Kapitala*-n. *Kapitala*-k, kapitalismoa analizatzen du ekonomia, gizarte, klaseen aldetik; badakizue ideologia burgesak esaten duena: gizabanakoak, bere osotasunean desarroitatzeko, bera izateko, osotasun horretara heltzeko, beharrezkoa duela propietate pribatua. Hori esaten da, baita doktrina sozial aurrelarietan ere. Ba, horri erantzuten dio Marxek: propietate pribatua onartzea, guztion, gehienon propietatea ukatzea da; orduan, expropiazio bat *da*, (hori gogorra da, baina hori esaten du eta, nik uste dut, arrazoi osoa duela hori horrela agertzean). Ondorioz, apropiazio bat egin behar da: propietate kolektiboa berriz inposatu, propietate pribatuak kendu diguna kolektibizatu, guztiontzat zabaldu. Hori da sakonean arazo hau, eta, uste dut, handiki erantzuten diola alde sozialari.

2. Nazio-arazoari buruz, Marxek eta Engelsek argiak dituzte ideiak: lehenik, nazionalismoa kapitalismoaren maila bati loturik dagoen ideologi forma bat da. *Ideologi forma*, Marxen buruan eta Marxen hiztegian, gauza pobrea da, bazterrekoa, galdu behar dena, desagertu behar duena: ideologia eta alienazioa aski hurbil dabilta. Eta hor ematen dute nazionalismoa.

Gainera, nazio zapalkuntzak beharbada kondenagarriak dira, gertatzen diren bezala; baina, historikoki, historiaren progresoa kontuan harturik, agian pasa beharrekoak. Hor ikusten da zeinen inportantzia txikia ematen dioten nazio-arazoari edo nazioari, nazio bezala.

Marxek, bere teoria orokorrean, ez du nazio-arazoa sartzen, Karlosek ondo esan duen bezala (ni ados nago puntu horretan). Besterik zen haren teoriaren muin edo kategoria funtsezkoa: langileen interesak; gainerakoa ingurua da, eta inguru honetan sartzen da nazioa. Teoria orokor horretatik kanpo uzten du nazioa eta, bakar-bakarrik, estrategia eta taktika alo-

rreko gauza bezala; hortik etorriko dira Irlandari edo Poloniari edo beste herriei emandako erantzunak, aldekoak nahiz kontrakoak.

Eboluzio historikoaren barruan, Marxentzat, kondena-tutako gauza bat da nazioa, desagertu behar duena; oraino bizi den kategoria bat da, baina piskanaka desagertuko dena, estatua galduko da, nazioa galduko da, esaten zuen (estatua eta nazioa gauza bera da). Ondorioz, internazionalista izan behar dela esango zuen; nazio konkretuaren kontenidoari proletalgoaren mensajea pasatzen zion.

3. Esan dut, Marxentzat kategoria funtsezkoa, entitate propiodun izaki soziala, klase-borroka dela eta langile-klasearen interesak aurrera ateratzea. Eta bere garaian sendoki ezarriz zihon produkzio-molde industrial luze eta sakon aztertu du *Kapitala* obran. Ondorioz, esango digu, klase-borroka hori gainditzeko ahaltasunik bada goela, eta klase-gabeko gizarte ideal hori «komunista» deituko du. Horretarako bideak aipatzean, esango digu, klase-borrokak nahitaez proletalgoaren diktaduratik pasa behar duela eta diktadura hori klase guztien desagertze-bidean eta klase-gabeko gizarte baterako ibilaldi bat besterik ez dela izango.

Marxentzat, baliozko ikuspuntu bakarra, iraultza sozialistarena da; iraultza soziala bilatzen du, eta gainerako guztia horren inguruan kokatzen du eta horri lotzen edo deslotzen dio. Honetatik zer onar litekeen eztabaidatzekoa da, puntualizazio handiak egin bait litezke. Nik batzu egingo ditut: bistan da gaur oraino klaseak badaudela eta borrokan ari direla. Marxek egindako deskripzioa osoki aplika al lekieke? Uste dut, fenomeno sozial guztiak bezala, klaseak ere aldatzen direla, horien deskribapenean berrikuntzak behar direla.

Bestalde, estatuaren arazoa legoke: iraungo al du, ez du? Marxek uste zuen berehala desagertuko zela, bere bide horretatik. Gaur, ordea sekula baino gogorrago agertzen da estatua, baita herri sozialistetan ere.

## Beltza

1. Ez nuke, azkena mintzatzea gertatu zaidalako, besteek esandakoaz konklusioak ateratzen hasi nahi; beste gauza bat egingo dut.

Marxi nik eskertzen diot utzi zigun metodo zientifikoa; baina eskerron hau ez da berez eskerron iraultzailea. Edozein unibertsitatetan, nahiz Estatu Batuetan nahiz Argentinan, Marxek eman zizkigun gizartea analizatzeko elementuak erabiltzen dira: ezagutzea gaurregun gizarte batetan oso inportanteak direla indar produktiboen garapenak, hedapenak eta momentuak, eta baita giza harremanak ere, gauza arruntak dira edozein filosofiatan, edozein praktika politikotan. Gure praktika politikoan ere, iraultzailea nahi dugun praktika politikoan, ezin gaitzek Marxengandik sobe-ra urundu gizartea ezagutzeko; eta, alde honetatik, noski, eskerrak eman behar nizkion zaharrari.

Halere, Marx eta iraultza aipatzean, nik hiru gauza azpimarratu nahi ditut. Lehenik, zein den egiazko Marx, ikusiz hor Hermeneutika, textu-in-

terpretazio asko dela, eta Karlosek presentatu digun ikuspuntu guztiz errespetagarria beste askok dutela eta, batez ere, Marx gazteagan ikusten dutela egiazko Marx: etika batek bultzatua, langileen sufrimenduaren aitzinean sumindua, zerbitu egin nahi zuen iraultzaile bat. Jokinek presentatu digu Althusser-en beste ikusmolde bat, haustura epistemologikoarena; egiazko Marx, Althusser-entzat, *1844eko Eskuizkribuak*-en ondoren agertzen den zientifikoa da. Zientifikotasun honetan, eta ortodoxoek ere onartzen dute, hausturarik ez da izan; eta Marx gaztea egiazko Marx zientifiko bihurtu zen. Zientifikotasun honetan ikusten diot nik marxismoari lehen ahulezia, ahulezia ez-erik jarrera kontra-iraultzailea ere.

Hau da, Marxek argi eta garbi esan zigun: zuek, ni baino lehenagoko sozialistok, etikan finkatu duzue zuen iraultzaile-nahia. Nik, berriz, deskribatuko dizuet zein den gizartearen egiazko mugimendua; egiazko mugimendu honek nahitaez iraultzara garamatza. Eta hor azpimarratzen ditu, bai gizarte kapitalistaren kontradikzioak, bai proletalgoaren eginkizun berezia.

2. Nazioari buruz, guztiz ados nago biek esandakoarekin: honi buruz ez da interpretazio handirik, Marxek oso gutxi idatzi zuelako honi buruz. Baina bistan da nola Marxek eta bereziki Engels-ek onartzen zituzten lekuen lekuko injustiziak, nahiz eta jakin injustiziak zirela eta azpimarratu injustoa dela Indian gertatzen dena, injustoa Serviako laborariek egiten dena; baina, halere, komunismoa heda zedin munduan zehar, egin den bezala, edo-eta Errusian dagoen erreakzioari hesia jar diezaion, onartzen dugu horrelako injustiziak beharrezkoak direla.

Oso gauza gogorra da iraultzaile batentzat lekuan lekuko injustizia bat onartzea teoria orokor baten izenean. Zenbat eta orokorragoa teoria, orduan eta astakeria handiagoak egin daitezke orokortasunaren izenean, zeren gero eta injustizia gehiago onartuko bait da, ideologia bihurtuko deanean delako teoria. Nire ustez, marxismoak eta Marxek berak esan zue-nean, etika eta humanismoa bazterturik, egiazko jakinduria zientifiko batean finkatuko zuela iraultzaren praktika, okerbidetik sartu zen.

Bigarren gauza bat: ezin dezakegu Marx eta honen garaia bereiz. Marx XVIII. eta XIX. mendeetan Europan zehar hedatu zen ideologia optimista eurozentrista eta produkziozalearen seme zilegia da, besteak bezalaxe. Marxek onartu zuen, eskubide zuten nazio bakarrak, aurreratuak zirela, eta primitiboak mespretxagarriak zirela. Marxek onartu zuen, baita, teknikaren aurrerapenak eta hedapenak libertatera eramango gaituela.

Gaur ongi dakigu, alde batetik, katastrofe kosmiko ikaragarri bat ager daitekeela gure munduan produkzio-indarren hedapena dela medio; beste gauza bat ere badakigu: posible dela ez komunismoa, ez kapitalismoa izango ez den hirugarren gizarte-egitura bat agertzea, hau da, tekno-faxismoa. Tekno-faxismoa aipatzerakoan, aipatu nahi ditut bai ekialdean eta bai mendebaldean hedatzen ari diren gaurko sistema teknokratikoak, non estatuak zeharo kontrolatzen bait du gizartea eta non zibernetika edo zientzia atomikoaren edo gizarte-kontrolaren teknikak hedatuak bait dira halako puntutaraino non teknokratek benetan ederki kontrola bait ditzan.

kete pertsona normalak; kontrolatu, eta zanpatu ere, inongo prekauziorik eta konturik gabe. Bigarren ahulezia, nirekiko, hori da: zein puntutaraino zen Marx ideologia honen dependente eta, hori egia izatekotan, horretan sinestea zein puntutaraino ez den gaur, bizi garen egoeran, erreakzioaren jokua egitea.

3. Marxen marxismoa analizatu nahi badugu, marxismoak berak asma-tutako legea aplikatu behar diogu, praktikaren legea. Marxek berak, eta Leninek bereziki, egiaren erizpide nagusia praktika dela esan zuen, egiatan gertatzen dena. Eta zein da Marxen ondorioa gure gizartean?

Karlosek marxismo ortodoxoa eta besteak aipatu ditu; ni ados nago beste marxismoak ere badirela eta, egia esateko, gaurregun Marxekin erre-kontziliatzeko zerbait egotekotan, heterodoxo horien praktika litzateke, nirekiko; zeren marxismoaren izenean bada injustiziaren kontra borroka-tzeko prest den jende asko, eta jende honek gure errespetua merezi du.

Baina marxismoaren edo marxismo-leninismoaren praktika nagusia non kokatzen da? Batetik, ekialdeko estatuetan eta, bestetik, hegoaldeko sozialdemokrata eta eurokomunistetan. Eta, nire ustez, Marx osoa edo Marx gaztea salbatu nahian dabilzanak, piska bat gure oinarritzko kristau zintzoak bezala ari dira. Hau da, Jesukristo salbatu nahian, eliza kondena-tzen dute; baina elizak Jesukristo saldu egin duela esan behar dute behin eta berriz.

Egiazko marxistek zer dioten, ezin dezakegu esan. Nola jakin nor den egiazko marxista? Baina marxismoaren izenean egindako praktika osoa irakurtzen badugu begi-bistan dago, ekialdean finkatua dagoela estatua-ren domeinua langileen gainean; eta ez bakarrik politikoa, baizik ekono-mikoa ere, lanegietan ematen dena. Eta mendebaldean, hemen, estatua-ren, demokrazia burgesaren, indar produktiboaren, disziplinaren kultua ikusten dugu marxistengan: praktika hau, niretzat, kontrairaultzailea da.

Aipatutako kontradikzioen haria, marxismoa endekatzen duen harra, autoritarismoan aurki genezakeela uste dut. Marxek argi esan zuen prole-talgoa dela historiaren egilea, faktore nagusia. Argi esan zuen, baita, prole-talgoa berez dagoen egoeran ez dela gauza bere eginkizun historikoaren kontzientzia izateko; hori, alderdi batean organizatuz lortuko zukeela. Gero Kautsky, Lenin eta besteek emandako pausoa zein izan da? Alderdi iraultzaren interprete, zuzendari eta intelektual-kolektiboarekin identifi-katu, langile guztien kalterako.

Autoritarismo honek galerazi zion Marxi botere politikoaren kritika egitea: botere politikoaren botere ekonomikoaren ispilua arrunt gisa ikusiz, ez zuen ongi ulertu zein den burokraten, politikarien eginkizuna botere poli-tikoaren bidez gizarte osoa zapaltzeko.

Beharbada sobera negatiboa gertatu zait esandakoa. Lehen esandakora itzuliz, zaharrari eskertzen diot gizartea ezagutzeko bide zientifiko hori; baina, nire ustez, gaurregun iraultzaile izatekotan, ezin daiteke marxista izan.

## P. Iztueta

Hiru hizlarion, azalpenek uste dut bide eman dutela elkarrizketa zabal-  
tzeko gure artean. Oso puntu biziak ukitu dituzte: Karlos Santamariak  
bere pentsamoldea agertu digu, Marxen baitan pertsonaren lekua zein den  
azalduz; bide beretik, Jokinek Marx gazte/zahar bereizketa egin digu eta  
Marx metodiko, zientifiko, *Kapitala*-ko horrek gizonaren egiazko aska-  
pena bilatzen duela esan digu. Nazio-arazoaz, nire ustez, hiruen eritziak  
nahiko ados datoz. Azken puntuaz, iraultzaz, bakoitzak berea ekarri du,  
Euskal Herriko egoerari leku emanez.

Besteoi dagokigu orain aztertuz eta eztabaidatuz jarraitzea.

## Jendartetik

Beltzari. Esan duena, orokorki, guztiz interesgarri iruditzen zait. Baina  
azkenean esan duena, gaurregun marxista izatea eta iraultzaile izatea kon-  
traesan bat dela, gehiegikeria bat iruditzen zait. Alde batetik, eten bat da-  
goela esan duzu Marx gazte eta Marx helduaren artean... Nik uste dut,  
Marx zientifikoa ez zela Marx heldua bakarrik; Marx gaztea ere zientifi-  
koa da. Esate baterako, Marxek dio, kritika egitekotan, erlijioarekin hasi  
behar dela, eta hor ikusten dugu jadanik kriterio zientifikoa Marx gaztea-  
gan. Denbora hartan erlijioa zen nagusi, zapaltzaile eta lehenik kritikatu  
beharrekoa, libre izateko, askatasuna izateko. (Gaurregun, nik uste, guz-  
tiz aldatu da erlijioaren rola mundu honetan; zorionez, fededunentzat ere.  
Ni ordukoaz ari naiz). Adibide honekin, beste asko dago, ikusten dugu  
Marx gazteagan ere badagoela kriterio zientifikoa. Nire eritzi ez dago  
etenik Marxengan. Baina zuk esaten duzu: nik onartuko nuke lehen Mar-  
xen oinarri zientifikoa, hori gaur ere iraultzailea da; bigarren Marxekin  
ados daudenak, ordea, ez dira inola ere iraultzaile. Laborategiko bereizke-  
ta iruditzen zait.

## Beltza

Ez nuen hori esan nahi, behintzat. Ez nuke hemen egiazko Marx zein  
den erabaki nahi. Nik uste dut, bat bakarra izan zela. Haustura epistemo-  
logikoaren teoria oso interesgarria iruditzen zait eta, uste dut, badela  
haustura bat Marxen lanetan.

Zuk aipatu duzun erlijioaren kritika, Marxek batez ere Feuerbach-en-  
gandik hartu zuen. Feuerbach-en teorian, Jainkoa gizonak sortutako gau-  
za bat da, eta gizonak egindako abstrakzio humano hori, giza jitez eta ka-  
rakteristikaz bete, ideala da; eta ideal honi Jainko izena eman dio gizo-  
nak. Feuerbach-ek, gutxi-gorabehera, hori esaten zuen eta hor alienazio  
bat gertatzen zela. Marx gazteak, hori onartuz, lanari aplikatu zion aliena-  
zioa: gizonak lan egiten du, lan hori besteren eskuetan uzten du zeharo,  
eta, orduan, bere lanaren obra eta bere lan propioa gauza arrotz agertzen  
zaizkio, lan propioa kentzen diotelako eta lanaren eginkizuna merkantzia  
huts bihurtzen delako, saltzen eta erosten den gauza bat. Orduan, gizona

alienatua gertatzen da lanaren eginkizunean eta praktikan, bere obra kontrajartzen zaiolako, giza egiturak direla eta.

Baina alienazioaren teoria, adibidez, *Kapitala* idazten hasten denetik ez da gehiago agertzen (nahiz eta gero ikerle batzuk merkantziaren fetixismoa alienazioarekin nolabait lotu). Engoitik, Marx ez da gehiago okupatuko gizon indibidualaren alienazioaz, gizarteak berak sortutako egoera zapaltzailean gizon simple ta zapaldu gehienak biltzen dituen klase langilea nola bizi den ikertuko du.

Zientifikotasunari egindako kritika... Marxek eta honen jarraitzaile askok, etikazko jarrera utziz, askoz iraultzaileagotzat daukate gizartearen egiazko deskribapen zientifikoa egitea eta honen arabera obratzea. Niretzat hori oso ahulezia handia da: zeren gauza bat da jazarpena, errebolta, eta beste bat balizko iraultza (iraultza bezala ulertzen badugu klaseen suntsiketa eta komunismoa). Baina iraultza balizko, hipotetiko baten izenean, ezin daiteke ez ahantz eta ez arbuia jazartzea; eta nazio-arazoaz emandakoarekin batera, beste mila adibide eman nitzakeen. Marxek eta marxistek arbiuatu izan dituzte lekuan lekuko injustiziaren aurkako borrokak, berek markatutako lerro jakintsu, zientifiko eta iraultzailearekin bat etortzen ez zirenean; eta hori, ahulezia bat da eta jarrera kontrairaultzailea. Marx gaztea inbokatzen duten batzuek ere esaten dute hori: *Kapitala*-n egindakoa nahiko txarra dela eta gorputz zientifiko eta baliiodun bakarra, Marx gaztea dela. Baina marxista errespetagarri guztiek normalean Marx osoa onartzen dute, Marxek hemen edo han esandakoa gehiago maitatu arren. Praktikan fidatzen naiz ni, begizkoak hautatzeko. Eta, egia esan, bada jende guztiz sinpatikoa eta iraultzailea, nahiz eta marxista izan. Posible da gaurregun iraultzaile eta marxista izatea; baina, filosofikoki mintzatuz, eta horretan ari nintzen ni, ez da posible.

## K. Santamaria

Eten epistemologikoa aipatu da... Jakina, Marx gazteak eta helduak ez zuten berdin-berdin pentsatzen normala denez; baina eten hori ez dago. Adibidez, *Kapitala* liburuan zortzi aldiz edo gehiagotan aipatzen du Marxek alienazioa: Marx gaztearen kontzeptua da hori: nola aipatzen du *Kapitala*-n? Edo erlea eta armiarmaren exenplua... Althusser-en eten epistemologikoa (hitza Bachelard-enganetik hartu zuen) gaur ez du mundu guztiak onartzen. Kontuz ibiltzea komeni da Marx gazte eta Marx helduaren arteko diferentzia horrekin. Beste aldetik, Marx zientifikoa aipatu da hemen: Marx zientifikoa al zen? Ez da batere argia: *sensu stricto*, ez zen zientifikoa, matematikalarri bat den bezala. Zientzia haserretu bat da harena; ez neutrala, baizik borrokalaria. Eta ez da komeni bi gauzak nahastea, nik uste.

Beltzaren tesiaren parte batekin ados nago: badago, nire ustez, inkompatibilitateren bat marxista eta iraultzaile izatean. Eta, jakina, desbiderapenak sortzen dira. Zeinek du arrazoi, zeintzu dira egiazko marxista? Marxista ortodoxoak? Sobietarrak? Inork ez daki. Eta, bestalde, desbide-

rapenek ere badute beren arrazoia; horregatik agertu dira 68ko maiatza eta.

### P. Iztueta

Galderaren bat sortu artean, Jokini galdetu nahi nioke honetaz zer pentsatzen duen.

### J. Apalategi

Zer da zientifiko izatea? Karlosek esaten zuen, beharbada Marx ez zela zientifikoa, matematikoa den bezala; orduan nik galdetzen dut: Galileo bere garaian zientifikoa zen? Badakizue garaiko ortodoxiak, maioriak, nola tratatu zuen. Nik uste dut, zientzia matematikoa zela harena... Matematiketako zientziak eta giza jakintzetako zientziak, zientzi neurri ezberdinak dituzte. Matematikak berak mundu-ikuspegi bat dudan jartzen duenean edo aldatu izan duenean, Galileoren kasuan bezala, antizientzia bezala tratatu izan da; gero bakarrik onartu da zientifikoa izan zela, eta benetako zientifikoa. Giza jakintzen zientzia bat badagoela dudan jartzea ez dut inola ere onartzen. Marxen puntu batzu badaude giza jakintzetako zientzia direnak, aurrerabide bat direnak, beti iraungo dutenak, betirako oinarri funtsezkoak direnak. Ez dela zientzia bukatu-bukatua, osa litekeela eta osatu behar dela? Ados.

Hemen bereizi egin nahi dira marxismoa eta iraultza, esanez bezala, marxismoa ez dela gaur iraultzaile, iraultza beste zerbaite dela... Marxismoa oso zabala da, marxismoan praktika asko daude, eta praktika kontradiktorio asko, gainera. Exenplu bat, ikusteko marxismoa iraultzaile, eta muturreraino iraultzaile, izan daitekeela gaur ere: hor dugu Nikaraguako kasua edo El Salvadorrekoa: marxismoa inbokatzan dute beren iraultza egiteko; han behintzat iraultzaileak dira. Horrek ez du esan nahi, adibidez, Carrillo edo herri bateko alderdia edo errejimena iraultzaileak direnik. Ezin da esan «marxismoa bukatu da»; marxista iraultzaileak badaude. Eta hau kontu praktikoa da, ez teorikoa.

### Jendartetik

Marxek esaten du, historiaren motorea, proletalgora dela. Lehengo mendean proletalgora hedatzen ari zen; nekazaritza gutxitzen; hirugarren sektoreak ez zeukan garrantzi handirik. Baina kapitalismoa garatu-ala, nekazaritza kapitalismoaren moldeetan sartu da; hirugarren sektorea garrantzi handiago hartuz doa, nahiko klase edo azpi-klase pribilegiatua da. Bestalde, industrian ere ez daude lehengo mendean zeuden baldintza berak: duela ehun urte 14 edo 16 ordu lan egiten zuten, gaur ez da hainbat ordu egiten, eta ez dago hain lan gogorrik; eta makinak ordezkatzan du gizona, eta produkzio-lanaren zati handi bat eginez. Non gelditzen da proletalgora? Nola ikusten duzue proletalgoaren kontzeptua gaurregun? Adibidez, badirudi lotura batzu egon daitezkeela langile- eta nazio-problemen artean.

## J. Apalategi

Marxismoan proletalgoa da borrokaren motore den klasea. Klase-borroka da historiaren motorea. Biziki ondo ezarria da galdera: adibidez, gure herrian nazio-borroka bat badugu; eta, hori bezala, beste esenplu batzu ere eman litezke, eta ez bakarrik nazioei buruz. Nazio-arazoaren —konkretuan, guk hemen daukagunaren— eta proletalgoaren lotura... Klase bezala, proletalgoa gaurdaino klase inportantea da, nahiz eta, klaseen aldakuntza ikertzen badugu, ikusiko dugun, gero eta garrantzizkoagoak direla proletalgoaren hurbilean dauden beste klase batzu. Gero eta inportantzia handiagoa dute, adibidez, industriaturiko herrietako enplegatuen taldeak. Kontzeptu hori, ondo mugatu eta zehaztu gabe dago, eta zehazpen bat behar du, gauzak behar bezala ikusteko. Krisi asko, bai taktikaz eta bai estrategiaz, hortik datozela uste dut: kontzeptu klasikoa pisika bat desleketua gelditu delako, ez duelako behar bezala errepresentatzen.

Inkesta bat egin da egun hauetan Frantzian. Orain arte komunista izandako udaletxe batzuetan desleketze bat gertatu da. Komunismoaren gale-rra hori zergatik eman den jakin nahirik, inkesta batzu egin dituzte: proletalgoaren proportzioa, orain dela 15-20 urtetik hona, herri horietan komunistek irabazi zutenetik hona, zeharo aldatu da, eta komunistek ez dute bere hizkuntza eta bere praktika aldatzen jakin.

Nik ez dut uste arrazoi bakarra hori denik. Dena dela kontzeptu gero eta aldakorragoa da, gero eta hobeto zehaztu beharrekoa, gaur ez bait du aski errepresentatzen. Lehenago esan dut, klase-borroka dela historiaren motorea. Izan da eta bada gizarte batzutan; baina ez da bakarra. Nik horrela esaten dut. Marxismo ortodoxoak ez luke onartuko hau. Niretzat motoreak asko dira, iraultza egiten duten guztiak motoreak dira: iraultza egiten duten fenomeno sozial guztiak iraultzaileak dira, motoreak dira.

Nazio-arazoa sakona da, ez epifenomeno bat. Zergatik da motore kondizio batzuetan eta historiaren une batzuetan? Ez dago behar adina iker-tua. Ni behintzat nazioaren fenomenoarekin zeharo konbentziturik nago; eta uste dut, konprenditzen dela gure herrian gertatzen dena. Noski, nazio guztiek klaseak dituzte; klaseok borrokan ari dira eta paper ezberdinak eduki ditzakete, klase batzuk nazioari indar gehiago ematen diotelarik beste batzuk baino; eta, iraultzaren osotasunari buruz, klase batzuek zabalago eta entregatuago agertzen dira. Hori ere ikertzekoa litzateke gurean. Adibidez, zein klasek erabiltzen duen gaur nazio-arazoa, zeinek aurrera bultzatzen duen, ez bait dut uste denek berdin egiten dutenik. Ikusten da gauza konplikatu dela.

## Beltza

Proletalgoari buruz, esan dut hasieran, ahulezia bat zela marxismoan horrelako teoria zientifiko edo sasi-zientifiko bat eraikitzea. Iraultza egiteko, proletalgoaren kontzeptua ez zait batere gustatzen: iraultzaile definitzeko, zapalduen kontzeptua erabili behar dugu batez ere; eta proletal-



goa zapaldua den neurrian, iraultzaile da, eta, zapaltzailea den neurrian, ez da iraultzailea. Proletalgoa ezin daitekeela inoiz zapaltzaile izan, filosofia merkea litzateke.

Lanaren nazioarteko banaketa kontuan hartzen badugu, hirugarren munduaren problemari begiraten badiogu, edo etorkinen problema Europa kapitalistan zehazki kontsideratzen badugu, posible da gure gizartean eta hirugarren munduan ateratako plusbalioaren banaketa bat egitea, langile batzuzentzat edo langile horien interesak errepresentatzen dituzten sindikato eta alderdientzat egokia den modu batez. Eta orduan, Marx, sobera zientifikoa izan nahiz, sobera arrunta gertatu zen: jende guztiak bihurtu behar zuen proletario; estatirik edo historiarik gabeko nazio guztiek nazio handiak bezalako bihurtu behar zuten; ingelesak, alemanak, errusoak hasieran, gero denak: dena uniformatu.

Nik nahiago dut zapalduen kontzeptua erabili, eta, zapalduen kontzeptuan, Marxek ezagutzen ez zuen aberastasun bat sartu, hau da: desberdintasunaren aberastasuna. Zapalduaren jitea ez bait da bakarrik lan-indarraren zapalkuntza; bada beste zergati asko, eta Euskal Herrian badugu horren esperientzia. Gu gauden lekuan, hain gutxi izanik, uniformitatearen teoriok benetan hiltzaileak dira guretzat.

Berriro nator harira: badira Nikaraguan marxista iraultzaileak (baita Euskal Herrian ere; ezagutzen ditut). Halere, zergatik dira iraultzaile, marxista direlako ala, kasu konkretu honetan, marxismoa inperialismoaren kontra erabil daitekeelako? Ene irudiko, bigarren arrazoiarengatik da.

## K. Santamaria

Proletalgoaren problema, nik ez dut oso ondo ikusten. Adibidez, Marx berpiztuko balitz eta Euskal Herrira etorri, eta galdetuko bagenio non dagoen hemen proletalgoa, agian tutik esan gabe geldituko litzateke. Oso zaila da gizarte honetan proletalgoa non dagoen ikustea. Baina badago munduan beste proletalgo bat: adibidez, nazio atzeratuen proletalgoa, nazio atzeratuak. Horiek proletalgoa dira. Kontzeptuak oraindik balio du eta, adibidez, gure hizkuntza, proletarioa da; guztiz alienatuak gaude. Marxen proletario kontzeptua erabil daiteke; baina berak agian ez luke onartuko aplikazio hori. Proletalgo kontzeptuak oraindik balio duela uste dut. Baina haren lekua aldatu egin da eta beste gauzei aplikatu behar zaie.

Marx zientifikoa zen ala ez? Nik ez dut esan Marx ez zela zientifikoa: Marxen zientzia, beste mota bateko zientzia zela esan dut, ez zela zientzia klasikoa bezalakoa; eta, niretzat, Galileoren exenpluak ez du balio: Galileo matematiko eta zientifiko klasikoa zen; borrokalaria ere bai, baina hori beste problema da. Nik ez dut ukatuko Marxek kontzeptu zientifiko berri bat sartu duela: zientzia neutrala ez, baizik zientzia borrokalaria. Esan behar dut, halere, zientifikoek behintzat nahita esan behar dugu hori, Marxen zientzia beste mota bateko zientzia dela; balio du, dudarik gabe; materialismo historikoa kontzeptu zientifikoa da, baina ez beste zientzien modura.

## Jendartetik

(*Ez da ulertzen mintzo denak esana*)

### Beltza

Karlosek aipatutako materialismo historikoa baliagarria dela pentsatzen dut, eta, nahiz eta beste kontzeptuak erabili, hala nola zapalduen kontzeptua, nazio moderno guztiak klasetan banatuak daude eta klase-interesak kontrajarriak daude; oso beharrezkoa eta mesedegarria da indar produktiboaren garapenaren arabera ikertzea non gauden eta klase-interes kontrajarrien arabera konprenitzea zein diren alderdi edo taldeen jarrera politikoak. Sakondu edo aberastu edo osa daitekeen arren, materialismo historikoa oso beharrezkoa da; ez dut berdin pentsatzen materialismo dialektikoari buruz.

Ideologia hitzarekin ere kontuz ibili behar da. Marxek bi ideologi mota bereizten zituen: alde batetik, klase zapaltzaileen interesak defendatzen dituen mundu-ikuspegi faltsu bat eta, bestetik, textu batzuetan behintzat, mundu-ikuspegi orokor bat, besterik gabe, edukin aseptiko batekin. Bigarren zentzu honetan onartzen badugu ideologia, teoria edo filosofia, nik uste dut utopikoengana (batez ere Fourier eta bakuninismora) itzultzea beharrezkoa dela. Bakuninek asko preziatzen zuen Marx zientifiko gisa; materialismo historikoaren teoria onartzen du; proletalgoari buruz Marxek egindako analisiak generalean onartzen ditu. Guzti hau onartuz, bi aportazio oso inportante egiten ditu: lehena, zapalduak direla iraultzaren protagonistak nonnahi eta noiznahi; eta bigarrena, giza eta herri-eskubide naturaletan sinesten duela. Marxek ez du horrela pentsatzen (aipatu dugu nazioei buruz zuen jarrera). Bakuninen ustez, herri bakoitzak eta pertsona bakoitzak libre izateko eskubide osoa du, eta eskubide hori errespetatu behar da nonnahi eta noiznahi.

Marxismoak ekarritako praktikak ikertzea beharrezkoa da iraultzaileentzat eta praktika hauetan bilatzea eta aurkitzea autoritarismoaren eta ideologismoaren eragina zein izan den, horrelako zepoetan ez erortzeko. Eta nik desiratzen diet Nikaraguakoei, antiimperialismo garbia mantendu eta zapalduen aldeko borrokan jarrai dezatela, praktika errealistan edo esatuaren diktaduran eror ez daitezen.

### P. Iztueta

Hemen esan da Marxek taktikaz bakarrik onartu zuela nazio-arazoa Marxek, edozein Marxek, gazteak nahiz zaharrak, aztertu zuen bezala aztertuz gizartea, hark erabili zuen metodoa kontuan hartuz, posible al da nazio-arazoa konpontzea, bai al du irtenbide logikorik?

### Beltza

Oso erantzun laburra da nirea: guretzat, hemen espainolizatu eta han frantsestu. Hori da Marxen erantzuna.

### J. Apalategi

Oso pikararo da galdera. Gauza bat da Marxek egin zuen aukera, eta esan dugu zer den. Eta uste dut hori dela egia bakarra, Marx horrela irakurri behar dela; gainera, hemen denok kointziditzen dugu. Gero, marxismoa gauza asko da: esan izan da metodo bat dela eta besterik ez; metodo eta teoria gidatzaile bat dela iraultza egiteko (eta badira hamarnaka herri, teoria horrek gidaturik boterera heldu direnak; gero zer egin duten botere horrekin? hori al zen marxismoa? beste galdera bat da); hirugarren, marxismoa mundu-ikuspegi berri bat ere badela; Marx ikertzaile hutsa dela, ikerketa bezala hartu behar dela eta ikerketa bati dagozkion neurriez neurtu behar dela, etab.

Honekin zera esan nahi dut: Marx eta marxismoa biziz edo marxismoa errebindikatuz, badirela nazio-arazoa konprenitzen dutenak. Hor dugu Otto Bauer. Honek argi eta garbi esaten zuen: herrien askatasuna, batasuna eta autodeterminazioa defendatu behar ditugu; herri eta nazio zapalduenak, ez estatu-nazioenak; eta nazio horietan oinarrituriko internazionalismoa egin behar dugu. Haren eta gure konprentzioak ez dut uste berdinak direnik; baina marxismoaren barru-barrutik mintzo da Otto Bauer (2. internazionallean zebilen).

Bazen marxismoa horrela konprenitzen zuenik, sintesia egiten zuenik nazio-arazoaren eta marxismoaren artean. Orduan, printzipioz uka al liteke sintesi hori? Ez dut uste; hori gauza asko ukatzea litzateke.

### Jendartetik

Gaurregun, gure artean, abertzale artean, nazio-arazo honetaz zein inportantzia ikusten duzue ematen zaiola klase-borrokari? Zenbateraino, iraultzaileen artean, lotu da nazio-arazoa klase-borrokarekin?

### K. Santamaria

Jokinek esan du, eta arrazoiz, klase-borroka ez dela motore bakarra. Hemen eta gaur, nik bi motore ikusten ditut: klase-borroka eta nazio-borroka. Zein da bietan inportanteena? Batzuentzat klase-borroka da lehenengoa eta besteentzat nazio-borroka; problema horrek ez du soluziorik, aterabiderik, eta bakoitzak ikusiko du. Marxek ikusi ez zuena horixe da: klase-borroka ez dela motore bakarra, badirela besteak eta horietako bat, dudarik gabe, nazio-borroka da. Batzuek ez dute oraindik ikusi: hemengo jende asko, sozialista asko, ez da nazio-borrokaren inportantzia oraindik konturatu.

### Beltza

Nere buruari askotan galdetzen diot, historiak motorerik ote duen, aurrrera goazen, itzulipurdika gabiltzan, gero eta sakonago murgiltzen... Kontzeptu hori baztertzea hobe dela uste dut, azken finean ideologia teologiko, optimista eta zapaltzailea bait da.

Guri dagokigunez, zergatik batzuek hainbesteko inportantzia ematen diogun nazio-borrokari eta besteek ez? Nik uste dut, beste kontzeptu, beste egoera bat bilatu beharko genukeela. Gero eta argiago ikusten dut leinuaren, tribuaren kontzeptua, Euskal Herrian behintzat. Leinu bat osatzen dugula, familia handi bat; denok gara baten lehengusu edo bestearen lagun. Azkenean, gauza guztiak leinuaren bizi eta hedapenaren funtzioan interpretatzen ditugu. Gure artean, batzuk marxista-leninista dira, beste batzuk anarkista, beste batzuk kristau; baina ez dugu inoiz ukatuko nazioa, ez dugu inoiz onartuko nazioa ukatuko duen teoriarik. Nondik datorkigun horrelako oinarritzko jarrera? ez klase-egoeratik, nahiz eta klase-egoerak baldintzatu, baizik familiaratik, ingurunetik eta, kontzeptu zabal bat erabiltzeko, leinutik.

Gero eta tribu-zalegoa naiz, honelako gauzetan. Txikia ederra da: adio mundu osoa explikatzen duten, munduaren martxa eta historia eta motorea explikatzen dituzten teoriari! Gure egiazko egoera, gure problemak konpondu behar ditugu. Ikuspegi orokorra galdu gabe, baina inoiz pentsatu gabe ikuspegi orokor batean sartuz konponduko ditugula gure problemak.

### P. Iztueta

Piska bat harritu egin naiz, nazio-arazoa, langileria eta bien arteko lotura/ez-lotura aipatzerakoan, hiruotako inork ez aipatzen beharbada nazio-arazoak eduki lezakeen eta nire ustez garbiki duen erlazio zuzena hizkuntzarekin. Pentsatzen dut, nahiko grafikoa dela, nahiko begibistakoa dela, non euskara bizi, han bereziki bizi dela nazio-arazoa; eta, nolabait ere, muga bat ezartzen duela langileriaren eta besteen artean, ez erabatekoa (asko dira motoreak, konforme); baina uste dut nahiko marka berezia jartzen duela hizkuntzak nazio-arazoaren bidean.

### J. Apalategi

Hitz bat esan nahi dut ezker abertzalearen eta klase-borrokaren arteko loturaz. Ezkerrak, tradizioz (XIX. mendean eta XX.aren hastapenetan, mundu osoan eta gure herrian ere), bereizi izan ditu nazionalismoa eta sozialismoa edo internazionalismoa edo komunismoa edo -ismo guztiak; bereizi eta puskatu. Ikusi dugu Marxek nola esaten zuen nazionalismoa kapitalismoaren maila bateko ideologia formalak zela; bide beretik ibili da ezker osoa, ideia horrekin nahiko ados. Euskal Herrian ere esan izan da, nazionalistak burgesak direla, nazionalismoa burgesen gauza dela, eta euskal nazioa defendatzen zuten guztiak burgesen zakura botatzen zituzten.

Gure belaunaldiak Euskal Herriari zerbait ekarri baldin badio, puntu hau ondo garbitzea ekarri dio, praktikan garbitzea: euskal nazioaren defentsan argi eta garbi egonez eta independentziaraino defendatuz dihardugunak eta klase-borroka bere azken funtseraino defendatzen dugunak asko bait gara. Gure belaunaldi honek, orain dela 25 edo 30 urte hasi zuen ibilbide horretan, ekarri duen aportazio handi bat da hau, eta mundu guz-

tian aportazio bezala ikusten da; eskema bat hautsi dugu batasun hori egitean. Nahiz nazio zapaldu bat izan eta nazioaren defentsan egon, klaseak daude nazio honetan. Eta badira klase zapalduenaren alde ikurriña jasorik eta hori zuzenduz nazio-burruka daramatenak.

Honekin hautsi ditugu orain arteko eskema guztiak, nahiz eta oraindik batzuk lehenagoko eskematara bildu nahirik ibili, bitan zatitu nahirik: progresistak erdirazaleak dira, Espainia- edo Frantzia-zaleak, eta besteak burges txiki, sasi-iraultzaile, gezurti, nahastaile. Gaur Euskadin euskal nazioa defendatzen ez duena, langileriaren mugimenduaren izenean arituz ere, antiiraultzailea da. Eta hau garbi dago ikusi nahi duenarentzat. Kanpotik behintzat geroz eta jende gehiago ari da ikusten.

### Jendartetik

Euskal Herria nahiko alienatua dagoela iruditzen zait (burgesia, kontsumo-gizartea etab.). Zein etapatan gaude mementu honetan iraultzari dagokionean?

### Beltza

Nik uste dut nahiko izorratuak gaudela, egia esateko. Baina edozein egoeratan bi alderdi daude: barne-kontradikzioak eta kanpotik inposatzen dizkiguten neurriak. Ados nago Jokinekin, dienean gure belaunaldiak lotura handia egin zuela nazio-borrokaren eta langile-iraultzaren artean. Eta horren ondorioz, bereziki Espainiako demokrata, sozialista edo iraultzaile gehienek onartzen ziguten, Franco hil aurretik, autodeterminatzeko eskubidea eta baita langile-iraultzaren barnean euskaldunen borroka nazionalak zuen garrantzia; noski, halabeharrez, beste erremediorik ez zutelako eta argia zelako onartzen ziguten.

Demokrazia burgesa sartu denetik, gauzak arrunt aldatu dira. Eta, politika errealistaren izenean sozialismo baketsua ekartzeko bidean, Espainiako sozialista eta komunista gehienek ukatzen digute, ez bakarrik autodeterminatzeko eskubidea, baita funtsezko autonomia bat izateko eskubidea ere. Zentzu honetan, kanpoko etsaigoa indartu egin zaigu eta honek nahiko izorratzen gaitu.

Barne-aldetik, ikertzekoa litzateke zergatik orain dela 10 urte Euskal Herrian hedatu zen langile-mugimendu asanblearioa eta kontsumo-gizartearekin eta ohitura burgesekin hausteko mugimendu askakor hura desagertu diren, edo, behintzat, oso zapalduak dauden. Hor bertan badira barne-kontradikzioak, eta ikusi egin beharko da Euskal Herrian alderdiek eta sindikatoek izan zuten borroka zuzentzeko politikak zein neurritako garrantzia izan duen horrelako borrokak zanpatzeko. Laburtuz: uste dut atzerapenaren garaian gaudela, atzerapen handi batean iraultzarako, eta honek bere ondorioak ekarriko dituela.

(Transkribatzailea: J. A. Aduriz)

ORAIN ETA HEMEN

---

GAIAK

---

LIBURUAK

---



## Julio Cortázar

Urtearen gurpilak epeka-epeka, ditiranbo nekrologikotarako aukera eskaintzen du eta ditiranbo hauen idazketa topikoz josita agertzen da beti, hildakoak laudorio jantzienak, lanik aipagarrienak, urrats sendoenak beregan biltzen dituelarik. Hala gertatzen da hildakoaren oihartzuna mehe, eroria denetan, hala suertatzen hildakoaren oihartzun arrakastatsua trumoi baten sendotasuna duenetan ere. Horregatik, lehen taldekoak ugariagoak direnez eta urriagoak bigarrenekoak, lehenengo topiko gastatuek harrapatu egiten dituzte eta herdoildu bigarren taldekoen merezimenduak. Horregatik, baita, egin behar zaie jaramon gutxi ditiranbo nekrologikoei.

Julio Cortázar bezalako idazle bat hiltzen denean arriskua bait dago, laudorioak mereziak dituen ala ez zalantzan jartzekoa, urteroko gurpilak harrapatzen dituen beste hainbat eta hainbaten itzalaren pareko jotzeko arriskua bait dago, eta horrelakoetan bait dira beharrezkoak orain arte bezalako preanbuluak: Julio Cortázar-ekin gaztelar XX. mendean eman duen idazle haundienetarikoa joan zaigula adierazteko, gizonaren limite-egoerak Julio Cortázar-ek bezain ongi inork ez dituela jaso esateko, ipuingintzari maila literario bete eta autonomia eskaini diola aldarrikatzeke.

Hiru maila horiek bait dira, gure ustez, aipagarrienak Julio Cortázar-en obran, ohizko ditiranboen errosariotik ihesi. Lehenik, haren hizkera literarioak herri-erabileren eta erabilera kultoen artean lortzen duen uztarketa aipatu beharko genuke, honela Jorge Luis Borges-ekin batera Europako tradizioari —ingelesari eta frantsesari, *malgré tout*— jaramon eginez, tradizio horren uretan murgilduz, tradizio horretara gaztelera hur-

bildu nahiz. Baina erabilera herrikoiak —porteñoa, jergak...— ahaztu gabe. *Rayuela*-ko ikasleen jerga, pedanteria libreskoa, hitz-jokoak, *Cronopios*-etako intelektualismoa, *El perseguidor*-eko xehetasun itogarria, *Bestiario*-ko freskotasun neurtua...

Aipagarritzat jo dugun bigarren alderdia, Cortázar-ek gizonaren limite-egoerak erabiltzeko agertzen duen maisutasuna zenez, esan dezagun Kafka-ri zor diola maila haundi batean Cortázar-ek arnasa. Baina pragarrak maila kolektibo bat lortzen zuen bere pertsonaiei simbolikotasuna eskainiz. Cortázar-ek ez; argentinarrak maila indibiduala eskaini nahi die bere pertsonaiei, honela Kafka-renak baino patetikoagoak, identifikagarriagoak gertatzen zaizkigularik, gertuagokoak honen pertsonaiaik. *Autopista del sur* ipuin zorrotz, zauritsuan pertsonak/autoak identifikazioaren bidez lortzen duen patetikotasuna dugu adierazpiderik garbienetakoa. Baina ez da kasu bakarra, Cortázar-en ipuinetan egoera hauek etengabe bait daude presente.

Hiru laudorio-gaietarik azkena, ipuingintzari eman nahi izan dion autonomia da eta, honetan, ez dugu ezagutzen Guy de Maupassant-en garaitatik ipuinari gorputz autonomia, jenero propioaren enborra nagusiago eskaini dionik. Eta jenero bereziak erritmoan, hizkeran, kontakizunen halako arnasa etereoan biltzen ditu berezitasunak. Nobelak ez bezalako erritmo etengabe, juxtua (100 metrotako korrikaldiaren eta maratoiaren artean dagoen tartea bezalatsu), hizkera zehatza, makulurik eta abaloriorik gabea, kontakizunetako limite-egoera indefinitu bezain beldurgarriek sortarazten diguten zirrara...

Luza genezake errosarioa misterio gehiagotan: hala nola, bat Cortázar-ek itzulpenari eskaini zion ardura, eta euskaldunontzat ere baliagarria litzatekeena: «hay por lo menos dos clases de lenguas muertas y la que manejan esos escritores [itzultzaila-mota zenbaitez ari zaigu] pertenece a la peor»; beste bat, humorearen papera Cortázar-en obran; beste bat... eta honela aipatuko genituzke intelektualismoa, anbiguitatea, errealitatearen eta irrealitatearen arteko muga difuminatu, lainotsua. Baina gure gaurko errosarioak inor lotara gonbida ez dezan, hona puntu finala. ■ *Anjel Lertxundi*.

## Noiz arte iraungo dugu euskararen burrukan?

Benetan mingarria dela «euskaltzale sutsu» batzuk idatzita-koak irakurtzea! Iazko tako-egutegi batetan, Bilboko *Euskera-*



*zaleak* deritzon taldeak argitaratuan, orritxo bat irakurtzean topatu nuena, adibidez. Zeri buruzkoa zen? Iruditu bide zaizue: euskara batuaren kontrakoa. Beti berdin: atzerakoï ohiturazale hutsek berrikuntza nahi dute zapaldu. Zera diote euskara batuaz: «gorrotozko giro makurrean asmatutako izketa mordolloa» eta «eusko reboluzio marxistaren sinbolo plastikoa». Ohi-turazaleak, bai, baina non utzi dute hain goretsei ohi duten giza-bidea? Ez ote dakite besteen uste, eritzi eta mintzabideak errespetatu egin behar dituztela? Isil daitezela eta bakean utz gaitzabela, mesedez! Bizkaiera hutsa erabili nahi badute, nahi dutena egin dezatela, ez diet ezertxo ere esango; baina gauza berbera eskatzen diet: ez dezatela kalumnia nik maite dudan eta darabil-dana. Errespetat dezagun elkar faborez! Gainera, badirudi marxismoa ere arbuaiatu nahi dutela; bada, ideologia eta filosofia guztiak behar ditugu errespetatu, nahiz eta guk onartu ez.

Bestalde zera dioskute: «Bizkai'ko Euskera Bizkaiera bakar-bakarrrik da. Beste izkerak ez dira gureak». Zelango egozentris-moa! XXI. mendearen ateetan gaudelarik, oraindik probintzial-keriokin? Ez ote gara gizartearen irekitasuna bilatzen ari? Badirudi gure Jaurerri maitea «*ghetto*» bihurtu nahi dutela, oraindino Aranaren «*Bizkaya por su independencia*» liburuarekin dabilzala. Bizkaitarrak, Uribe eta Zornotza merinaldekoak ziren ezagutzen ditudan neure euskaldun arbasoak; bizkaieraz mintzatzen dira ene ama eta amona; baina nik, deustuarra naizelarik, euskara batua nahiago izan dut, Euskal Herria berritu, moderno, gaurkotu eta batua izan dadin egokiago deritzodalako. Bizkaiera ere ondo ezagutzen dut, kultura bezala, eta aintzat hartzen, baina garrantzitsuagotzat jotzen dut hizkuntz batasuna.

Zera gaineratzen digute azkenean: «auxe besterik ez da Euskeraren egiazko batasuna: Bizkaitarrak Bizkaiera ondo ezagutzea eta Gipuzkera errez ulertzea. Ta, era berean, Giputzek Gipuzkera ondo ezagutzea eta Bizkaiera errez ulertzea... Bizkaiera eta Gipuzkera diralako ia euskaldun danak, eundik larogeita amairuk (%93'k) itzegiten dabe bizkaieraz edo gipuzkeraz». Bai ongi dagoela! Euskalki «pobreak» baztertu eta ahantzi. Nolako berekoikeria! Noski, Iparraldeko «h» gutxietsia sar ez dakion penintsulako euskarari. Eta euskal literaturaren oinarriak ahan-tziz batera: badakigu ez direla ez bizkaierazkoak, ez gipuzke-razkoak; nafarreraz egin ziren euskal idazkirik zaharrenak («dugu» ageri da Donemiliagako monasterioan, Errioxan, nafar monjeren batek idatzia), zuberoraz Ertaroko kantarik handiena (*Bereterretxen kantoria*), behenafarreraz lehen euskal liburu-a, dazagugun lehen euskal idazleak egina (*Linguae Vasconum Primitiae*, Bernat Etxepare Eiheralarreko apez erretoreak idatzia), eta lapurteraz Itun Berriaren lehen euskal itzulpena (Johannes Leizarraga beskoiztarra) eta euskal literaturaren lehen lo-

raldia (Sarako eskola: Axular, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, etab.).

Funtsik gabeko huskeria kaltegarriok irakurrita, zera datorkit burura: Ez dakit inoiz garaituko den batasuna euskarari; eta, horrela, noiz izango gara bat euskaldunok? Ulerkortasuna nahi dugu euskarari dagokionez, eta, era berean, bakean eta odolik gabeko giro lagunkoi batean bizi gaitzela. Hizkuntzan hasten baldin bagara banatzen eta elkar zirikatzen, zelan helduko gara batasun orokorrera? Bil bitez lehenbailehen Pedro Agerre Azpilikueta urdazubiar jakitun laudagarriaren euskararen babespean euskerea, euskera, eskuara, eskara, uskara eta üskara! ■

*Luis Alberto Antón Gorbea*

## **Gregor Mendel (1822-1884): Genetikaren jaiotza**

Guraso eta kumeen arteko antzekotasuna azaltzen diharduen zientzia, Genetika, Gregor Mendel-ekin hasi zen, noren heriotzaren mendeurrena aurten betetzen bait da. Gaur egun, Genetika bai atzerantz (esate baterako, odol-taldeak aztertuz, gizon primitiboen sakabanakuntza argitu du nolabait) eta bai aurrerantz ere (mikroorganismoen Genetikak substantzia biokimikoen sintesi eta ingeniarietza genetikorantz gramatza) projektatzen da, baina, oso hasiera motela izan zuen.

Mendel, nekazari-familia bateko semea, agustindarretan sartu zen eta apaiztu. Ondoren, Vienna-ko Unibertsitatean ikasi zuen 1851-1854 tartean, doktoratu egin zelarik. Harrez gero, Brno-ko (Txekoslovakia) monastegian bizi izan zen.

Botanika-zaletasun gotorra zuenez, 1857tik aurrera, eta 8 urtez, ilarrak hazten ihardun zuen komentuko baratzen. Kolozazio eta altuera desberdinetako ilar-landareak aukeratu, polez tatu eta landatu zituen, halako eraz non, heredatutako karaktereak jatorri ezagunekoak bait ziren. Horrez gainera, belau-nik belau-n agerturiko emaitza estatistikoak anotatu zituen oso arreta handiaz.

Lan esperimental honen ondorioz, «Mendel-en hiru legeak» izenez ezagutuak lortu zituen, zeintzuk modu honetara adieraz

bait daitezke: 1) Karaktere heredagarri bakoitza, begien kolorea kasu, «faktore» ( $\approx$  gaur egungo gene) batzuz eraendua da. 2) Faktoreok progenitore bakoitzarengandik datoz, ondorengotan faktore-bikotea eraturik, zeinak karaktere jakin bat sortuko bait du. 3) Progenitoreen faktoreak indar desberdinetakoak izan zitezkeen, zenbaitetan batak bestea meneratzen zuelarik. Esate erraz baterako, ile beltzak ile argia meneratzen du. 4) Hala ere, faktore meneratua ez da deuseztatzen, maskaratzen baizik, osteko belaunaldietan berriro ager litekeelarik. 5) Bestalde, karaktere desberdinak independenteki heredatzen zirenaz ohartu zen Mendel.

Mendel-ek 1866an argitaratu zituen bere lanaren emaitzak aldizkari ilun batetan. Dena den, lanaren separatak zenbait biologo prestigiotsuri bidali zizkien. Berauek ez zuten aintzakotzat hartu. Agian, orduko mundu zientifikoa ez zegoen gertu artean, Mendel-en lanaren garrantziaz kargutzeko. Prezeski, Mendel-en idazlanetik zera ondoriozta daiteke: organismoa independenteki eraendutako ezaugarri-multzotzat jo zitezkeen, ezaugarriok, Darwin-en hautespen naturalak positibo edo negatiboki aukeratuak izan zitezkeelarik. Hau da, hautespen naturalari falta zitzaion funtsa finkatu zuen, dibergentziaren jatorria alegia. Ikusten denez, aurrerapauso galanta.

Dena dela ere, mendelismoa XX. mendearen hasierarte egon zen baztertua, beharbada oinarri materialik ez zuelako: Genetika gorpuzteko, zelularen ikerketan sakondu behar zen aurretik; eta zatiketa zelularra, nukleoaren egitura, kromosomak etc. deskribatzeko zeuden artean. Behin aipaturiko puntuok argitu eta gero, Sutton-ek (1903) erlazionatu zituen, 1900 urtean DeVries-ek berraurkituriko Mendel-en faktore hipotetikoekin.

Harrez geroztik zitogenetikaren arloan burutu den lan gehiena, geneen lokalizazio eta karakterizazioaren bidetik joan da. Watson eta Crick-ek (1953) heredentzi materialaren eraikuntza fisiko-kimikoaren eredia lortu zuten azkenik, hau da, heredentziaren eramalearen (DNAren)egitura deskribatu. 1969an gene-talde bat isolatu zen.

Edozein modutara, Mendel-en erabideak hiru berrikuntza nabari zituen, ordurarteko Biologian agertu ez zirenak. Batetik, experimentua planteiatzeko eta material egokia aukeratzeko modu artatsua. Bestalde, Darwin bezala, populazio handiez baliatu zen, baina tratamendu matematiko zehatza erabili zuen, emaitzak interpretatzeko orduan laguntza handia zelarik. Azkenik, eta bide beretik zihoala, sinbolismo bakuna sartu zuen, eta horretara teoria eta experimentazioa estekatu zituelarik. Hau da, emaitzen interpretazio sinbolikoak, alde batetik, lan-hipotesi berriak iradokitzen zizkion, eta bestetik, aurreanak egitera bultzatzen zuen. ■ *Kepa Altonaga.*

## «Hombres cultos de toda España, SOCORRO!»

Barruak agintzen dit. José Ignacio Uruñuela jaunaren sokorru-oihua zabaldu behar dut. Esperantza batekin: JAKINen irakurleen artean gizon «kulto»ren bat aurkituko dela!

Uruñuela jaunak kultur genozidioa salatzen du. Kultur genozidioa eta kultur itomena. Eta okerrrena: hori dena plangintza baten ondorioz.

Nola ez etorri bat salakuntza hauekin?

Baina, hara!, genozidio hau, kultur itomen hau, ez da euskal kulturarekin gertatzen ari dena. Ez, ez, alderantziz da. Eta gu enteratu gabe. Oker interpretatzen. Zer da egiaz eta benetan gertatzen dena, ba? Ba, 1984eko presupostuetan Eusko Jaurlaritzak ikastoletarako eta alfabetatzerako diru gehiegi eman duela. Hortik arriskuak oro.

*La Gaceta del Norte*-n (1983.12.11) agertu zen artikulu hau. Antzekoak emanak zituen *Tribuna Vasca* zenak. Sozialistena bata, AP ingurukoa omen bestea. Euskaltzaleon/euskaltzaleonganako estimuan ez ote berdinak bi-biak?

Hona, ba, Uruñuelaren idazlanaren pasarterik mamitsuenak: «LOS PRESUPUESTOS DEL GOBIERNO VASCO PARA 1984, LA EDUCACION Y LA CULTURA».

*«Recientemente ha sido publicado un resumen de los presupuestos del Gobierno Vasco para 1984. De su importe total, el 40% se dedica a la educación/cultura, materias englobadas en un solo departamento. Esta alta dotación es un ejemplo a imitar... a primera vista. Lo que ocurre es que los conceptos precisos de estas partidas en lugar de ser Educación y Cultura debieran ser «educación» y «cultura». El proceso de desculturización a que se está sometiendo al pueblo vasco raya en el genocidio cultural. (...).*

*La elocuencia de las cifras es alucinante. Un país que gasta en implantar contra viento y marea una forma cultural (aunque sea tan importante como un idioma) pobre, que no aporta posibilidades de enriquecimiento y que es desconocida para la mayoría de los habitantes, 30 veces más que en investigar, es, sencillamente, un país suicida. Gastar la semilla en la tierra infértil en lugar de usarla en la fértil es una aberración. (...)*

*La casi exclusiva dedicación que este presupuesto da en el terreno que nos ocupa a lo euskaldún nos hace recordar a la política de tierra quemada, la de aquellos que en la guerra quieren poder partir después de cero, aunque sea a costa de un desastre. Es-*

*paña no puede permitirse este despilfarro. Los vascos que no hemos sido los peores participantes en las tareas comunes de todos los españoles, entre ellas, singularmente en las culturales, corremos ahora el riesgo de analfabetizarnos en aras de un vernaculismo mesiánico desbordado de sus propias dimensiones.*

*Los que hemos amado nuestra cultura, la vasca, como es normal amar lo propio, y el que suscribe ha sido a este respecto vicepresidente de la Federación de Txistularis del País Vasco y director del certamen de cine documental de Bilbao creador del Premio Mikeldi, estamos comenzando a odiar lo que se nos está intentando imponer de manera obsesiva y por la fuerza. Esta asfixia cultural en la que estamos siendo sumergidos empieza a ser insoportable. Hombres cultos de toda España, SOCÓRRO». ■  
Joan Larrinaga.*

Gipuzkoako azterketa soziolinguistikoa

## Euskararen erabilpena

Siadeco

### Sarrera

Gipuzkoako Foru Diputazioak *Siadeco* taldeari eskaturiko Azterketa Soziolinguistikoaren Lehen Zatiaren laburpen eta konklusioak aurkezten ditugu hemen, halako ikuspegi orokor bat eskainiz.

Hemen bildu ditugun datuak, hiru ataletan zehatzago aztertu ditugunak berak dira. Atal horiek honela banatzen dira:

1. Euskararen presentzia leku publikoetan (Enparantza, Kale, Pasaleku etab.etan).
2. Euskararen presentzia udal-erakundeetan (Udal-Batzordea eta Udal-Administrazioan).
3. Euskararen presentzia gizarte-zerbitzuetan (Komertzio-Zerbitzuetatik hasi eta Diru-etxe, Garraio eta Zerbitzu Pertsonal eta Profesionalak).

Atal bakoitzaren xehetasunak eta emaitzak azaltzen hasi baino lehen, lan hau nolabait berria eta orain arte egingakoen ezberdina

---

\* Hona lan osoaren fitxa bibliografikoa: *SIADeco: Gipuzkoako Lurraldean euskararen normalizazioaren plangintzaren lehen urratsak. 2. fasea: euskararen erabilpena leku publikoetan, udal-erakundeetan eta gizarte-zerbitzuetan*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Abendua, 1983.

Atal bakoitzaren xehetasunak eta emaitzak azaltzen hasi baino lehen, lan hau nolabait berria eta orain arte egindakoen ezberdina dela esan beharra dago. Berria, bai gaiaren aldetik eta bai metodoaren aldetik.

Gaiaren aldetik, aztertu nahi dena euskararen erabilpen erreala edo efektiboa delako. Orain arteko lanetan (biztanleen zentsua, inkestak, etab.etan), jendearen erantzunak jasotzen dira, jendeak esandakoa, alegia. Oraingo honetan, berriz, jendearen jokaera edo konportamendu errealak jaso nahi izan ditugu. Ez jendeak esaten duena, jendeak egiten duena baizik.

Metodoaren aldetik ere ezberdina da. Lehen aipaturiko lanetan, jendeari galderak egiten zaizkio hizkuntzaren ezagupideaz eta erabilpenaz, hizkuntzarekiko eritziaz eta jarreraz erantzunak eskatuz. Oraingo honetan jendeari zerbait galdetzen bazaio ere, jendeak zer egiten duen obserbatu eta kontutan hartu egiten da, batez ere.

Ikuspuntu honetatik, bildu ditugun datuak informazio aberats eta interesgarria ematen digutela ezin uka.

Atal bakoitzari dagozkion xehetasunak atal bakoitzaren barnean agertuko ditugu.

## 1. Euskararen presentzia leku publikoetan

Euskararen presentzia leku publikoetan bi eratara aztertu dugu. Alde batetik euskara idatziaren eta bestetik euskara mintzatua-ren presentzia. Horretarako, Probintzian zehar, 83 Udalerrietan (Mendaro eta Lasarte ere kontatu ditugu) eta Donostian 13 auzoetan aurrez izendaturiko zenbait puntutan (Kale Nagusia, Herriko enparantza, erosketa-kalea, etab.etan) zenbat euskara ageri den mementuko «flash» baten antzera neurtu nahi izan dugu.

Alde batetik, begiak ireki eta begibistan dagoen guztia irakurri; eta beste aldetik, belarriak adi jarri eta izendatutako egunetan, orduetan eta lekuetan zegoen jendetik (haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak bereiziz) zenbat ari ziren euskaraz hitzegiten kontaketa xehe baten bidez jasoz.

Hona emaitza edo erresultaduak.

### 1.1. Euskara idatziaren presentzia<sup>1</sup>

Kontatu ditugun 10.260 iragarki edo idazpuntuen banaketa hau da:

Euskaraz bakarrik idatziak.....	2.618.....	%25,5
Bi hizkuntzetan idatziak.....	1.385.....	%13,5
Erdaraz bakarrik idatziak.....	6.257.....	%61,0

Erdara da, beraz, nagusi iragarkien munduan. Nagusitasun hau, ordea, oraindik gehiago nabarmentzen da iragarkiak sailka aztertzean. Izan ere publizitate komertzialean eta establezimendu komertzialen izenetan erdararen proportzioa %85,6ra igotzen da, eta euskaraz bakarrik dagoena %6,6ra jaisten da, beste %7,8 bi hizkuntzetan dagoelarik.

Datu hauen argitan zera esan daiteke: euskarak ez duela gaurregun balio komertzialik. Arazo komertzialetan, negozio-kontutan alegia, ez dagoela euskararentzako lekurik. Erdara da nahiko eta bera da nagusi.

Bestalde, euskara idatzia gehien erabiltzen da

Lekuen izen ofizialetan.....	%67,2
Publizitate politikoan.....	%47,6
Elkarteen izenetan.....	%42,4

Erabilpen-mota hauek adierazten dute euskarak balio sinbolikoa ez-ezik, adonu edo dekorazio gisako funtzioak ere betetzen dituela. (Krutwig-ek ere esaten duen «uso heraldikoa», alegia). Batez ere zenbait elkartetako izenen grafia ikusiz gero, euskara gauza bitxi bezala agertzen dela ezin uka, egurrez edo burdinaz egindako hizki bereziak erabiltzen bait dira horrelako tokietan, euskarazko izen dotoreak kanpoan jartzeko, nahiz eta gero barrenean jendea erdara hutsean mintzatu.

Jakina da probintzia osoa ez dela berdina edo homogenoa. Bi motatako diferentziak nabari dira:

#### 1.1.1. Diferentzia geografikoak (bailara edo eskualdeen artekoak)

Euskaraz bakarrik idatziaren presentziarik haundiena Tolosaldean aurkitzen da (%44,5). Azken urteotan Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkartearen eraginez eta bailarako zenbait Udalen laguntzaz egin den lanari esker. Gero Urola (%39,8) eta Kosta (%34,8) datoz. Presentziarik baxucna Bidasoa Behcan (%6,9) eta gero Donostia (%21,7), Goierri Garaia (%22,6) eta Oiartzualdean



(%23,0). Azken hauek dira Probintziaren bataz bestekoaren azpitik aurkitzen direnak. Beste eskualde edo bailaratan Probintziaren bataz bestekoaren gainetik eta euskaldunenak diren bailaren azpitik dabilta.

Eskualde guztietan, ordea, publizitate komertzialari dagokionez, esan behar da ez dela diferentzia handirik nabari. Bailara guztietan %75 baino gehiago erdara hutsean egiten da eta bailara euskaldunenetan ere ez da hortik behera jaisten, gorago igotzen baizik Urolan (%88,7) eta Kostan (%91,3).

### 1.1.2. Diferentzia demografikoak (Udalerri txiki eta handien artekoak)

Espero zitekeen bezala, Udalerri txikietan, 1.000 biztanle baino gutxiago dituztenetan, euskara idatzia gehiago agertzen da Udalerri handiagoetan baino (%50-60). 1.000 biztanletik 5.000 bitartekoetan (%30-50) eta 5.000tik gorakoen artean, berriz, ez dago alde handirik.

Zenbat eta Udalerri handiagoak, orduan eta euskara idatziaren presentzia eskasagoa, beraz. Halere, esan beharra dago, euskaraz idatzia dagoen gehiena lekuen izenei eta elkarteen izenei dagokiela. Alderantziz, publizitate komertzialari dagozkion idazti gehienak erdara hutsean agertzen dira.

Konklusio gisara, garbi agertzen da, beraz, euskara erabiltzerakoan publizitate komertziala egiten duten etxeek eta erakundeek ez dutela aintzakotzat hartzen eskualde bakoitzean dagoen euskaldungoaren proportziorik, ez eta Udalerri bakoitzean dagoenik.

## 1.2. Euskara mintzatuaren presentzia<sup>2</sup>

Gipuzkoako 83 Udalerrietako enparantza, ibilbide, erosketakale, txikiteo-kale, jolastoki eta abarretan 60.000 pertsona inguru (58.910 juxtu izateko) kontatu ditugu. Adin taldeka banatuz:

10.012 .....	haurrak
16.103 .....	gazteak
27.910 .....	helduak
4.885 .....	adinekoak

Bildu ditugun datu hauetatik, bidezkoak diren bi mailatako ponderazio edo pisu-egokitzeak egin behar izan ditugu: Udalerri bakoitzeko jendetzaren arabera bailara edo eskualde mailakoa bat,

eta adin-taldeen egituraren arabera bestea. Izendatutako egun eta orduetan Probintzian zehar euskaraz hitzegiten ari zirenak, datu hauen arabera, ez ziren %25era iristen.

Datu hau behar bezala baloratzeko, kontutan hartzen badugu Gipuzkoan ongi edo zerbait hitzegiteko gaitasuna dutenak %55era iristen direla, euskara erabiltzen dutenak ez dira, beraz, erdira ere iristen. Bestalde, datu orokor hau adin-taldean arabera banatzen badugu, zera agertzen da:

Euskara gehien erabiltzen dutenak, adinekoak direla: .....	%36,2
Ondoren, helduak eta haurrak .....	} %25,3 %26,6
Euskara gutxien erabiltzen dutenak, gazteak direla: .....	

Ageri denez, ikastola eta beste ikastetxei esker noski, badago errekeruprazio-seinalerik haurren aldetik. Agian ez da oso indartsua eta ikuskizun dago gazte izatera iritsitakoan jarraituko duen ala ez.

Daturik harrigarriena gazteen erabilpenari dagokiona da, noski; eta kezkarriena ere bai, hauen artean bait dago ikastoletatik pasa den jendearen multzo handi bat. Bestalde, jakina da hizkuntzaren etorkizuna, ona ala txarra, horien baitan dagoela.

Datu hauek hobeki ulertzeko adin-taldean artean ezagupide-maila kontutan hartzen badugu, lehenaz gainera gauzak argitzen dira. Ongi edo zerbait hitzegiten dutela esan dutenak kontutan hartuz zera ageri da:

	<i>Ezagupidea</i>	<i>Erabilpena</i>
Adinekoen artean (zerbait eta ongi) .....	%62,0	%36,2
Helduen artean .....	%57,7	%25,3
Haurren artean .....	%56,5	%25,6
Gazteen artean .....	%56,1	%16,4

Datu hauen arabera euskara ongi dakitenen talderik handiena ez bada ere, gazteen taldea euskara ongi edo zerbait dakiten taldeen parean agertzen da. Hauek dira, beraz, euskararen ukipenik handiena izan dutenak, batez ere ikastoletatik eta beste ikastetxetatik pasa direnak. Halere, hauek dira euskara gutxien erabiltzen dutenak.

Euskara idatziarekin gertatzen den bezala, euskara mintzatua ere Probintzia osoan giro bera ez dagoela esan beharrik ez dago. Hemen ere bi motatako diferentziak agertzen dira.

### 1.2.1. Diferentzia geografikoak (bailaraka dauden diferentziak)

Euskararik gehiena Urola bailaran egiten da (%76,8), gero Kosta eta Tolosaldean (%50 eta %46). Ondoren Goierri Behean eta Deba Garaian (%38,3 eta %34,4). Probintziaren batz bestekoaren azpirik datoz, bestalde, Deba Behea (%24,3) eta Goierri Garaia (%19,9) eta batez ere Donostialdea (%12,5) eta Bidasoa Behea (%17,2).

Iku daitekeenez, Probintziako bailararik industriatu eta hiritartuenak dira erdaldundenak, Donostialde osoa eta Bidasoa Behea batez ere. Eskualde horietan euskararen presentzia benetan eskasa da. Arrisku handi bat nabari da bailara hauetan: euskara itzuliezinezko, errekeratuezinezko puntu batetara iristekoa alegia. Eskualdeak edo bailarak osoan hartuta horrela gertatzen bada, adin-taldeak kontutan hartuz gero diferentzia horiek berdintsuak jarraitzen dute. Izan ere, kasu guztietan gazteak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak, gero haurrak eta helduak eta adinekoak (zaharrak) gehien erabiltzen dutenak.

### 1.2.2. Diferentzia demografikoak (Udalerrri txiki eta handien artekoak)

Udalerrrien tamainak zerikusi handia duela garbi azaltzen da. Izan ere, zenbat eta Udalerrri handiagoa, orduan eta euskararen erabilpen txikiagoa. Prozesu oso nabarmena da. 3 edo 4 maila egin daitezke:

1. 1.000 biztanle baino gutxiago dituztenak (88,2-78,1)
2. 5.000 biztanle baino gutxiago dituztenak (63,6-50,3)
3. 20.000 biztanle baino gutxiago dituztenak (28,7-29,3)
4. 20.000 biztanle baino gehiago dituztenak (14,4-11,6)

Udalerrriaren tamainaren arabera adin-taldetako euskararen erabilpenak ere badiu zenbait berezitasun. Adibidez 1.000 biztanle baino txikiagoetan euskara gutxien erabiltzen dutenak haurrak dira, eta ez gazteak. Tamaina horretatik gorakoetan, berriz, gazteak dira guztietan gutxien erabiltzen dutenak. Badirudi herri txikiak haurren artean, datu-bilketa egin zen egunetan kanpotar batzuk ere kontatu zirela. Eta horiek gehienak erdaldunak ziren.

Konkusio gisara euskara mintzatuari buruz esan daitezkeen gauzarik garrantzitsuenak, honako hauek dira:

- Euskaldunen artean, euskaradunen artean alegia, erdiak baino gutxiago direla euskara erabiltzen dutenak.
- Bereziki euskaldun gazteak direla euskara gutxien erabil-

tzen dutenak eta fenomeno hau harrigarria ez—ezik kezka-garria ere badela.

- Haurren aldetik errekuperazio—seinale batzuk ageri direla. Haurrek euskara gazteek baino zerbait gehiago erabiltzen bait dute. Ikuskizun dago, ordea, erabilpen hori iraunkorra den ala gaztaroan bukatzen den.

Guzti honek adierazten diguna, sakon—sakonean eta zalantzarik gabe, zera da: egia bada erabiltzen ez den hizkuntza batek ez duela irauten, euskarak daraman bidetik bere egunak ez direla oso ugariak izango.

Bestalde, egia bada hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez ez dutelako erabiltzen baizik, euskara egoera horretara hurbiltzen ari dela ezin uka.

Azkenik, euskara—er dara hizkuntzen arteko indar—erlazioa erdararen aldera zeharo desorekatua dagoela ikusirik, honek esan nahi du hizkuntzaren sustutuzio—prozesua (erdarak euskararen lekua okupatua duela, alegia, ez administrazio edo komunikabideetan bakarrik, baizik eta gure herrietako enparantza, kale eta jolas—tokietan) gure Probintzian ere oso aurreratua eta finkatua dagoela.

## 2. Euskararen presentzia Udal—Erakundeetan

Arlo honetan, inkesta bidez jaso nahi izan den informazioa bi-koitza edo bi eratakoa zen:

1. Alde batetik, 1979.eko Udal—Hauteskundeen ondorioz sortu ziren Udal—Batzordeak, Batzorde Politikoak alegia, euskararen aldetik zer—nolako egoeratan aurkitzen ziren jakitea, nahiz eza-gupide aldetik nahiz erabilpen aldetik.
2. Beste aldetik, Udal—Administrazioan euskarak zenbaterainoko sarbidea izan duen, alpdaldiko urteetan, lehen aldiz, herritarrek aukeratutako Udal—Batzorde horien eraginez.

Nola kasu batean hala bestean, jakin nahi zen, ea zenbat pertsona, nahiz zinegotzien nahiz funtzionarioen artean, ziren euskaldunak (euskara—dunak, noski) eta ea zenbaterainoko lekua egin dioten euskarari, nola hitzez hala idatziz, Udal—Batzordeetan eta Udal—administrazioan. Jakin nahi izan genuen baita zer—nolako erabakiak hartu dituzten joan diren 4 urte horietan (Udal—Zerbitzuetan euskararen erabilpena gehiagotzeko.

## 2.1. Euskararen presentzia Udal-Batzorde Politikoetan

### 2.1.1. Udalerrien mailan

Guztira 83 Udalerri kontatu ditugu (Mendaro eta Lasarte ere bai).

#### 2.1.1.1. Euskararen ezagupidearen aldetik

- Gipuzkoa osoan ez dago Udal-Batzorde bat ere zinegotzi euskaldun gabekorik. Guztietan bada norbait baino gehiago. Gutxien dituenak 4 ditu.
- Udal-Batzordeko partaide guztiak euskaldun direneko kasuak %53,8ra iristen dira: 43 Udal-Batzorde.
- Udal-Batzordeko partaide gehienak euskaldun diren kasuak %91,6ra iristen dira: 76.
- Udal-Batzordeko partaideak euskaldun/erdaldun berdin direnak %2,4 dira.

Udal-Batzordeko partaide gehienak Erdaldun direneko kasuak %6,0 besterik ez dira: 5 (Irun, Errenteria, Pasaia, Donostia eta Olaberria).

Euskararen ezagupidearen aldetik, beraz, garbi dago euskaldunak direla Udal-Batzorde gehienetan maioria nabarmena. Egoera hau ikusita, esan daiteke euskararen erabilpenaren aldetik ere horrelako zerbaiek espero izatea bidezkoa litzatekeela.

#### 2.1.1.2. Euskararen erabilpenaren aldetik

- Lehenik, Udal-Batzordeko ordezkarien erantzunak aztertuko ditugu; horien arabera:
  - %73,3 (60/83) Udal-Batzordekidek euskara gehiago erabiltzen dute beren artean.
  - %65,1 (54/83) Udal-Batzordekidek euskara gehiago erabiltzen dute herritarrekin.
- Ageri denez, euskararen erabilpena puntu asko jaisten da ezagupidearekin konparatuz gero; halere, nahiko goitik agertzen dira erantzunak; eta zinegotzien jokoerak aztertzerakoan ikusi ahal izango dugu garbiago zenbateraino erabiltzen den euskara Udal-Batzordeetako bilkuretan.

### 2.1.2. Zinegotzi edo kontzejalen mailan

Guztira 938 zinegotzi edo kontzejal kontatu ditugu (Batzuk falta dira: bajak, dimisioak etab.)

#### 2.1.2.1. *Euskararen ezagupidearen aldetik*

Horiematik 760 \*(%81,0) euskara ezagutzen dutenak dira. Jaki-na denez, Udal-Batzorde bakoitzeko gutxienez 5 pertsona aukeratu ziren. Guztiak kontaturik Gipuzkoan ez dago Udal-Batzorderik 4 zinegotzi euskaldun baino gutxiago duenik.

Garbi ageri da hemen, Udal-mailarako zinegotziak aukeratzekoan euskaldun izateak zerikusi dezente izan duela. Izan ere, probintziako jendetza osoak duen euskararen ezagupide %55ekoa denez, Udal-Batzordeetako zinegotzien artean askoz altuagoa da (%81).

Gezurra dirudi, proportzio horiek kontutan izanik, euskararen erabilpena maila batera nola ez duten jaso. Ikus dezagun zertan den:

#### 2.1.2.2. *Euskararen erabilpenaren aldetik*

- Euskara bakarrik edo erdara baino gehiago erabiltzen dutela diotenak

Barnekoekin: %70,0  
Herritarrekin: %65,7

- Bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituztela diotenak

Barnekoekin: %0,5  
Herritarrekin: %15,7

- Erdara euskara baino gehiago edo bakarrik erabiltzen dutela diotenak

Barnekoekin: %29,5  
Herritarrekin %18,1

Hemen ere, nahiz eta erabilpena ezagupidea baino bajuagoa izan, erantzun nahiko optimistak agertzen dira.

Gero, Udal-Batzordeko pleno edo bilkuretan edo Komisio berezietan proportzio horiek asko jaisten dira.

Izan ere, euskara bakarrik erabiltzen dutenak %44,6 besterik ez bait dira. Beraz erdiak ere ez dituzte beren bilkurak euskaraz giten.

Euskara idatziari dagokionez, berriz, oraindik askoz beherago jaisten dira proportzioak. Euskara idatziz erabiltzen duten zinegotzi euskaldunak ez dira %19,3 besterik ere herritarrekin erabiltzen dutenak oraindik gutxiago: %15,9 besterik ez. Datu hauen azpian dagoen arazoa bikoitza da, noski: Euskara utzi eta erdarara erraz pasatzen dela Udal-Batzordeetako bilkuretan; eta, bestalde, euskaraz eskolatu gabeko jendea dela gehiengoa.

## 2.2. Euskararen presentzia Udal-Administrazioan

Gipuzkoa osoan 3.343 Udal-enplegatu kontatu ditugu. (Ez dira hemen sartzen ez ebentualak ez durute baterako kontratatatuak).

### 2.2.1. Euskararen ezagupidearen aldetik

3.343 funtzionari horietatik 1.095 (%32,8) dira euskaldunak. Beraz, Udal-funtzionarioen artean hirutik bat bakarra da euskaldun. Probintziako jendetza osoaren batz bestekoa (%55) baino dezente bajuagoa. Udal-funtzionarioen artean, erdaldun gehiago dago, beraz, herritarren artean baino.

Ezaguna da horien artean Udal-Administrazioan urte asko daramatzan zenbait funtzionari erdaldun eta euskalduntzeko asmorik ere ez duena dagoela.

Nolanahi ere, esan beharra dago Udal-funtzionarioek euskara ez jakiteak berebiziko traba suposatzen duela Udal-Administrazioan euskarari sarbidea eman ahal izateko.

Jakina da, baita, Udal-funtzionario erdaldunak ezin diezaioketela herritar euskaldunari zerbitzu egoki bat eskaini, herritar erdaldunari eskaini diezaiokena bezain egokia behintzat ez.

Alderdi honetatik eta probintziako eskualde edo bailaretako egoera kontutan harturik, esan beharra dago, euskararen ezagupidez Udal-funtzionarioiak hobe egokitzen direla eskualde euskaldunetan (Urola, Kosta, Tolosaldea, Goierri Behea, etab.) erdaldun-ductan baino (batez ere Donostian, Oizartualdean eta Bidasoan). Horietan dira gainera ugariak, Udalerrien tamainaren arabera.

### 2.2.2. Euskararen erabilpenaren aldetik

#### 2.2.2.1. Euskara mintzatua

Udal-Administrazioetik jasotako erantzunen arabera, zera agertzen da: Euskaldun diren funtzionarietatik erabiltzen dute:

— Euskara bakarrik edo gehienbat:

Bertakoekin %36,8  
Herritarrekin %45,2

— Bi hizkuntzak berdin:

Bertakoekin %5,7  
Herritarrekin %4,9

— Erdara bakarrik edo gehienbat:

Bertakoekin %57,5  
Herritarrekin %49,9

Garbi dago, Udal-enplegatu euskaldunen artean erdara gehiago erabiltzen dela euskara baino.

Erreferentzia bezala enplegatu euskaldunak hartu ordez, Udal-enplegatu guztiak hartzen baditugu, orduan euskararen erabilpena horrela jaisten da:

— Euskaraz bakarrik edo gehienbat:

Bertakoekin %11,8  
Herritarrekin %14,4

— Bi hizkuntzetan erdibana:

Bertakoekin %2,5  
Herritarrekin %1,6

— Erdaraz bakarrik edo gehienbat:

Bertakoekin %85,7  
Herritarrekin %84,0

Erdara agertzen da nagusi eta indar handiz, gainera. Euskal Administrazioa euskalduntzen hasi bada, han dago oraindik zeregina. Izan ere, zenbait Udal-Zerbitzutan ez diote oraindik inolako sarbiderik eman ez euskara idatziari ez mintzatuari. Administrazioen hizkuntza erdara da, eta kitto. Nahiz eta Eibarko alkateak eta, egoera hori aldatu nahian, «Euskaraz eta Kito!» slogana kaleratua izan. Probintziako zenbait eskualdetan euskara mintzatuaren erabilpena ongi egokitzen da herritarrekin eta enparantzetan edo gizarte-zerbitzuetan baino ere gehiago oraindik.

#### 2.2.2.2. Euskara idatzia

Udal-Administrazioan hitzez euskara gutxi erabiltzen bada, idatzizko erabilpenari buruz jasotako datuak oraindik makurra goak dira.

Izan ere, funtzionari euskaldunetatik euskara idatziz normalki



erabiltzen dutenak %11,1 eta %30,9 besterik ez dira. Gainerakoek oso gutxi erabiltzen bait dute.

Bailarako edo Eskualdeko datuak aztertzen direnean, zera agertzen zaigu: alderdi honetatik euskara mintzatuaren aldetik baino okerrago egokitzen direla eskualde bakoitzeko beharretara.

Izan ere, hasu gehienetan euskaraz taxu piska batez idatziko duen norbait aurkitzen lanak izaten dira. Itzultzaileak ez denean behintzat, eta Probintzian zehar 41 Udalerrietako funtzionarioak ez dira euskaraz ezer idazteko gai, edo ez dute behintzat inoiz idazten. Eta horietakoak bailara guztietan ageri dira, baita euskaldunetan ere (Urola, Kosta, Tolosaldea, Goierri Behea): zenbait lekutan dagoen funtzionari bakarra erdalduna delako edo daudenak euskaldunak izan arren, alfabetatu gabeak direlako. Lehen ere esan dugu eta berriro ere esan beharra dago: badagoela Udal-Administrazioa euskalduntzen zer eginik!

### 3. Euskararen presentzia Gizarte-Zerbitzuetan<sup>3</sup>

Aurreko ataletan, euskararen presentzia leku publikoetan (enparantza, kale, jolastoki, etab.etan), alde batetik, eta Udal-Erakundetan, bestetik, aztertu ditugun bezalatsu aztertu nahi izan ditugu Gizarte-Zerbitzuak ere.

Aztertu ditugun Zerbitzu-motak hauek izan dira:

1. Komertzio-Zerbitzuak (taberna eta jatetxeak barne direlarik).
2. Diru-etxe eta Asegurantzak-Zerbitzuak.
3. Garraio eta komunikabide-Zerbitzuak.
4. Osasun- eta Gizarte-Ardura-Zerbitzuak.
5. Ostatu- eta Atsedeen-Zerbitzuak.
6. Zebitzu pertsonal eta profesionalak.

Datu-bilketa egiterakoan, bi bide erabili ditugu:

- Alde batetik, zerbitzu bakoitzeko arduradunekin elkarrizketaxo bat eginez, enplegatuen artean zenbat ziren euskaldunak jakiteko eta horietatik zenbatek, bai enplegatuen artean bai kanpoko jendearekin hitzegiterakoan, euskara erabiltzen duen jakiteko.
- Beste aldetik, konstatazio edo kontrastapen bat eginez zerbitzu horietako bakoitzean, bertan denboralditxo bat igaro-

tzean ea euskara idatziaren eta mintzatuaren presentzia zenbaterainoko zen neurtzeko.

Bi prozedura hauen bidez jakin ahal izan dugu gizarteko—zerbitzuetan dauden enplegatuen eritziak zenbateraino egokitzen diren errealitatearekin. Beste era batean esanda: enpleguak emandako eritzia gero errealitatean egia gertatzen den ala ez, frogatu nahi izan dugu, erabilpen erreala edo efektiboa zenbaterainokoa den jakiteko.

### 3.1. Ikuspegi orokorra

Bildu dugun informazioaren laburpen gisa, zera esan dezakegu:

— Guztira kontatu ditugun zerbitzuen kopurua .....	2.250	ingurukoa izan dela
— Bertan kontatu ditugun enplegatuen kopurua.....	7.583	ingurukoa izan dela
— Horietatik euskaldun direnak .....	3.491	%46,0
— Horietarik euskara beren artean erabiltzen dutenak .....	1.693	%48,5
— Horietatik euskara herritarrekin erabiltzen dutenak .....	1.672	%47,9

Datu horien arabera: enplegatu guztietatik erdiak ere ez dira euskaldun. Enplegatu euskaldunetatik erdiek ere ez dute euskararik erabiltzen ez beren artean ez herritarrekin hitzegiterakoan. Enplegatuen kopuru osoarekin konparatuz gero euskara erabiltzen duten enplegatuen proportzioa ez da %22koa besterik.

Datu hauen arabera, zerbitzuetako enplegatuen artean euskararen ezagupidea, jendetza osoaren artean baino zerbait baxuagoa (%55-46) den bezala euskara erabiltzen dutenena ere zerbait gutxiago dela esan behar (%25-22). Datu hauek esan nahi dute zerbitzuetako enplegatuen artean euskaldunen proportzioa herritarren artean baino baxuagoa dela.

Bestalde zerbitzu bakoitzean egindako egonalditxoan frogatu ahal izan dugunez, euskararen erabilpen erreala horren azpitik dago. Izan ere, euskara idatziari dagokionez:

Euskaraz bakarrik idatzitakoak ez dira .....	%5etik pasatzen.
Bi hizkuntzetan idatzitakoak ez dira .....	%15era iristen.
Guztira, beraz, euskara idatziaren presentzia ez da .....	%20ra iristen.

Kartel, iragarki, ohar eta izen guztietatik %80 baino gehiago erdaraz bakarrik idatziak daude. Idaztien mailan, erdararen nagus-

sitasuna nabarmena da. Hor ez da euskararentzat lekurik gelditzen.

Antzeko zerbait gertatzen da euskara mintzatuaren erabilpenarekin ere. Nahiz enplegatuen artean nahiz herritarrekin hitzegiterakoan, enplegatu euskaldunetatik ia erdiek erdaraz bakarrik hitzegiten dute. Horiek, euskaldunak izan arren, ez dute inoiz euskararik erabiltzen. Beste erdiak baino zerbait gehiago dira euskara erabiltzen dutenak, baina horietatik ere hirutik batek enplegatuen artean eta hirutik bik herritarrekin erdara erabiltzen dute. Euskara bakarrik erabiltzen dutenak ez dira enplegatu euskaldunen artean hirutik bat baino askoz gehiago. Erreferentzia bezala enplegatu guztien kopurua hartzen badugu, euskara bakarrik erabiltzen dutenak ez dira %18ra iristen enplegatuen artean eta herritarrekin hitzegiterakoan berriz %15era ez dira iristen.

Zifra hauek adierazten digute, Gipuzkoako Gizarte-Zerbitzuetan euskarari zenbaterainoko lekua egiten zaion eta noraino iritsia dagoen euskararen ordezkapen- edo sustutuzio-prozesua.

Euskararen erabilpena ez da zerbitzu-mota guztietan berdina. Euskara gehien erabiltzen duten zerbitzuak, berauen eritiziz behintzat, komertzio-zerbitzuak (taberna eta jatetxeak barne direlarik) eta zerbitzu pertsonal eta profesionalak dira (%50 baino gehiagok erabiltzen dute).

Gutxien erabiltzen dutenak Garraio- eta Komunikabide-Zerbitzuak (Renfe, Posta edo Korreo Zerbitzuak barne direlarik) eta Ostatu- eta Atsedeen-Zerbitzuak dira (%22tik 35era bitartean erabiltzen dute). Probitziaren batuz bestekoaren inguruan, —beraz, erdiek baino zerbait gutxiagok— erabiltzen duten zerbitzuak Diru-etxe eta Asegurantz-Zerbitzuak eta Osasun- eta Gizarte-Ardura-Zerbitzuak dira.

Konstatazio bidez erabilpen erreala aztertutakoan ere, gauza berdintsua azaltzen da.

Komertzio-Zerbitzuetan erabiltzen da euskararik gehiena (taberna, jatetxe eta harategietan batez ere, eta gutxiago jantzi, oinetako edo elektragailu-dendetan). Erdiak baino gehiagok euskara bakarrik erabiltzen du. Ondoren, baina maila apalagoan, Gizarte-Zerbitzu berezietan (batez ere erlijio-zerbitzuetan), zerbitzu pertsonal eta profesionaletan eta Diruetxe- eta Asegurantz-Zerbitzuetan. Sail hauetan, ordea, euskara bakarrik erabiltzen dutenak ez dira hirutik bat baino askoz gehiago.

Azkenik, presentziarik eskasena Ostatu- eta Atsedeen-Zerbi-

tzuetan dago (zinema, dantzaleku etab.etan) eta, batez ere, Garaio- eta Komunikabide-Zerbitzuetan. Sail honi buruz esan beharra dago, badirudiela ez direla oraindik jabetu euskara ere hizkuntza ofiziala dela, praktikan ez bada ere teoriaran bederen. Datu hauek agertzen dute argi eta garbi euskarak bizi duen marginazioa zerbitzu hauetan.

### 3.2. Ikuspegi zehaztuak

Aurreko zatian probintziako gizarte-zerbitzuetan euskara idaztearen eta mintzatuaren presentzia zenbaterainokoa den agertu dugu. Jakin badakigu, ordea, probintziako zona edo zati guztiak ez direla berdinak. Bestalde, zona bakoitzaren barnean ez da berdina egoera ezta herri txiki eta handietakoa. Horregatik bereziko ditugu batetik ikuspegi geografikoa eta ikuspegi demografikoa bestetik.

#### 3.2.1. Ikuspegi geografikoa

Lehenbiziko datua: Euskararen ezagupidea, gizarte-zerbitzuetako enplegatuen artean zenbat diren euskaldun, alegia. Probintziaren batz bestekoaren azpitik, 4 bailara aurkitzen dira. Horien artean bajuena Bidasoa Behea (%9,4), gero Donostia Hiria (%27,5), Goierri Garaia (%39,8) eta azkenik Oiartzualdea (%41,6).

Beste muturrean aurkitzen dira beste 4 bailara euskaldunenak. Hala nola Urola (%88,5), Kosta (%78,2), Tolosaldea (%71,4) eta Goierri Behea (%68,3).

Bien artean gelditzen dira Deba Behea (%65,7) Deba Garaia (62,7) eta Hernanialdea (%56,3).

Bigarren datua: euskararen erabilpena. Enplegatuek emandako erantzunen arabera, euskararen erabilpena beti ere ezagupidea baino bajuagoa izan arren, bailara euskaldunetan probintziako batz bestekoaren gainetik dago enplegatuen artean nahiz herritarrekin hitzegiterakoan. Hala nola Urolan (79,5-54,0), Tolosaldean (70,4-78,4), Kostan (56,5-63,0) eta Goierri Behean (57,4-63,7).

Gero datoz, ezagupidearen kasuan bezala, beste 3 bailarak probintziaren batz bestekoaren zerbait azpitik dauden Deba Garaia eta Behea eta Hernanialdea.

Azkenik, 4 bailara erdaldunenak: Bidasoa Behea, Oiartzualdea, Donostia eta Goierri Garaia.

Datu hauek, erabilpen errearen konstatazioa egindakoan, behera jaisten dira kasu gehienetan; baina batez ere bailara erdaldunenetan, hala nola Bidasoa Behean non enplegatu euskaldunak (%89,2-84,7) erdaraz bakarrik mintzatzen bait dira. Goierri Garaian (65,2-71,4), Donostian (62,6-61,9).

Bailara euskaldunenetan, gehienetan behera egiten badu ere, bestetan, Urolan batez ere eta zerbait gutxiago Kostan, Tolosaldean eta Goierri Behean, euskararen erabilpen erreala probintziaren batz bestekoaren nahiko gaintetik agertzen da.

Bildu ditugun datu hauen eskutik, konklusio gisa esan daiteke, euskarak bizi duen marginazio sozialaren ondorioz euskara erabilzteak inolako estimulurik ez duen neurrian, luzarora hizkuntzaren abandono edo utzitzen jeneralizatu bat ekar dezakeela. Ez litzateke lehenbiziko kasua izango, ez eta Euskal Herrian ere.

### 3.2.2. Ikuspegi demografikoa

Eskualde bakoitzak berezitasunak baldin baditu, beste horrenbeste esan beharra dago Udalerrien tamaina kontutan hartzen denean. Izan ere, euskararen ezagupide eta erabilpenaren aldetik Udalerri txikien edo erdi-mailakoen eta Udalerri handien artean dauden diferentziek adierazten digutena ez bait da Udalerrien artean dagoen mailaketa bakarrik, baizik eta euskararen ezagupide eta erabilpenak zer-nolako lotura duen demografiako dinamikaekin. Hizkuntzak zein etorkizun duen, alegia. Hizkuntza, berez, ezer ez bait da, hiztunik gabe.

Nola ezagupidearen hala erabilpenaren aldetik, espero zitekeen bezala, alde handiak ageri dira Udalerri txiki eta handien artean. Bien arteko muga bat 5.000 biztanle dituzten Udalerrietan ageri da (%75eko ezagupidea eta %60ko erabilpena). Beste muga bat, 20.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan (%30etik beherako ezagupidea eta %25etik beherako erabilpena). Tartean 5etik 20 milara bitarteko Udalerriak (%50etik gorako ezagupidea eta erdiak baino gehixegoko erabilpena). Harrigarria da, guztiak enplegatu euskaldunak izanik, horrelako diferentziak egotea batzuetatik bestetara. Bestalde, erreferentzia enplegatu euskaldunena ez, baizik enplegatu guztiena eginez, diferentziak oraindik gehiago nabarmentzen dira. Lehenbizikoak %50etik gora gelditzen badira ere, erdikoak 25etik 50era bitartean daude, baina Udalerri handie-

tako proportzioak %10etik behera jaisten dira. Horixe da hain zuzen, euskararen presentzia erreala aztertu dugunean agertu dena. Udalerrri txikienetan ia denek euskara erabiltzen badute (%80 baino gehiagok) eta mila biztanletik gorakoetan nabari dela beherakada bat (%60 baino gehiago), gero bost mila biztanle baino gehiago dituztenetan dagoela beste muga bat, %25 baino gehiago eta hogeit hamar mila biztanle baino gehiago dituztenetan bestea, %15 baino gutxiago. Ez dugu ahanzi behar lehenbiziko bietan ez dela Gipuzkoako biztanlego osoaren %10 ere bizi. Alderantziz, azkeneko sailean, 7 udalerriren artean probintziako biztanlegoaren erdia baino gehiago hartzen dutela.

Zati honen sarreran esan dugun bezala, demografiak duen zerkusia eta garrantzia kontutan hartzen baditugu, laster konturatu gara, euskarak daraman prozesuaren joerak aldatzen ez badira, erdalduntze-prozesua erabat nagusitzeko arrisku bizia dagoela. Jenderik gehiena bizi den Udalerrietan egiten bait da euskararik gutxiena, edo erdararik gehiena; eta jakina da Udalerri handiek dutela demografi aldetik dinamikarik handiena. Beraz, gehien ugarituz joango direnak erdaldunak izango dira eta euskaldunen proportzioak beheraka jarraituko du, orain arteko jokabideak aldatzen ez badira behintzat.

## Konklusio orokorrak

Aurreko ataletan aztertu ditugun datuak elkarrekin konparatuz gero, atera ditzakegu zenbait konklusio edo ondorio orokor nola euskararen ezagupideari hala erabilpenari dagozkionak.

### 1. Euskararen ezagupidea

Biztanleen zentsuaren azterketa egin zenetik jakina den bezala, zera ageri da:

- Euskaraz ongi edo zerbait hitzegiteko gai direnak, ..... %55 direla
- Udal-zinegotzien artean euskara dakitenak, ..... %81 direla
- Udal-administrazioko funtzionarioen artean, ..... %33 direla
- Gizarte-zerbitzuetako enplegatuen artean, ..... %46 direla

Datu hauen argitan garbi ikusten da hutsunerik handienak non dauden: Udal-Administrazioan eta baita Gizarte-Zerbitzuetan ere. Ez bata eta ez bestea ez bait dira herritarren arteko propor-

tziora iristen. Alderantziz, Udal-zinegotzien artean euskararen ezagupidea askoz altuagoa da.

Bi ondorio garbi atera daitezke, konklusio gisa:

- Udal-Administrazioa batez ere eta baita Gizarte-Zerbitzuak ere ez daudela, hizkuntzaren aldetik bederen, herritarren beharrei erantzun bat emateko kondizio egokietan.
- Gezurra dirudiela, Udal-Batzordeetan zinegotzi euskaldunen proportzioa altua izanik, nola ez duten euskararen erabilpena gehiago bultzatu. Udal-Batzordeetako bileretan ez-ekik, baita Udal-Administrazioan ere.

## 2. Euskararen erabilpena

### 2.1. Euskara idatziaren aldetik

- Leku publikoetan euskara idatziaren presentzia guztira %25,5era iristen bazen ere, lekuen eta erakundeen izenci esker gertatzen zela horrela esana dugu. Publizitate komertzialen %6,6ra jaisten bait zen eta, gainera, zona euskaldunak ez direla kontutan hartzen publizitate komertziala egiterakoan.
- Udal-Administrazioan euskara idatziaren erabilpena zeinen eskasa den ere garbi ikusi dugu. Horretan bai kontzejalak eta bai funtzionariak bat datoz: inor gutxik erabiltzen duela, alegia. Gauza bera gertatzen da Udaletxeetan dauden iragarki, ohar, inpreso etab. ekin ere. Oso gutxi, ia ezer ez dagoela euskaraz bakarrik, zerbait gehiago bi hizkuntzetan eta gehiena erdara hutsean.
- Gizarte-zerbitzuetan, berriz, euskara idatziaren presentzia orokorki harturik, beste ataletakoa baino eskasagoa da. Euskaraz bakarrik idatzia dagoena justu iristen bait da %5era eta beste %15 bi hizkuntzetan idatzia. Gainerako guztia, %80 baino gehiago, erdaraz bakarrik idatzia agertzen da.

Guzti hauek kontutan hartuz, konklusio hauek ateratzen dira:

- Euskara idatziak ez duela sarbiderik ez Udal-Administrazioan ez Publizitate komertzialean, ez Gizarte-Zerbitzuetan. Guztietan nahiko arrotza gertatzen bait da.

- Euskara idatzia erabiltzerakoan ez dela aintzakotzat hartzen ezertarako lekuan lekuko euskaldunen proportziorik. Zonarik euskaldunenean ere, publizitate komertziala erdaraz egiten bait da.
- Euskarak balio sinboliko eta dekoratiboa besterik ez duela gure gizartean, lekuen izenak, propaganda politikoa (mitinak, pintaketak, etab.) eta elkarteen izenak adierazteko bazarrik erabiltzen delako.
- Hizkuntza idatziak duen garrantziak, kanpoan idatzia barenatzeko prozesuaren bidez, gaurregun gehienbat erdararen alde jokatzeko duela, euskara idatziaren presentzia hain eskasa delako.

## 2.2. Euskara mintzatuaren aldetik

- Leku publikoetan eta herritarren artean euskara mintzatuaren erabilpena %25 eskasekoa zela agertzen genuen. Euskara jakin %55ek baldin badaki, erabili erdiek ere ez dutela erabiltzen, alegia.  
Bestalde, erabilpenik bazuena, gazteen artean agertzen zela ikusten genuen, %16,4 besterik ez bait zen. Zerbait gehiago, baina eskas baita ere, helduen eta haurren artean; eta gehiena, adinekoen (zaharren) artean.
- Udal-Batzordeetako jokaera, euskararen erabilpen erreala-  
ren aldetik, nahiko eskasa izan dela ere agertu da, nahiz eta gehienek euskara ezagutu. Azkenean, herri txikietako Udal-Batzordeetan, ez beti, erabiltzen dute euskara, baina edozein aitzakia (funtzionario edo tekniko erdalduen presentzia) nahikoa da erdarara pasatzeko eta honetan jarraitzeko.
- Udal-Administrazioaren aldetik, berriz, datuek agertzen dutenez, egoera eskasagoa ageri da oraindik. Jakin ere, hirutik batek besterik ez dakielako eta erabili, dakitenetatik erdiak baino askoz gutxiagok erabiltzen duelako. Herritarrei zerbitzu egoki bat eskaini ahal izateko, asko falta dela ezin uka eta gauzak aldatzen hasi beharko dutela. Badirudi, izan ere, halako aldatu nahiez bat edo inertzia bat dagoela funtzionarioen artean euskararen erabilpenari sarbiderik ez emateko.
- Gizarte-Zerbitzuek, ezagupidearen aldetik, eta erabilpena-



ren aldetik ere, Administrazioiko funtzionarioek baino egoera zerbait hobea agertzen badute ere, euskararen erabilpena zerbitzu mota batzuetara mugatua dago. Gehiena Komertziora (jatetxe, taberna, harategi etab.) eta zerbitzu pertsonaletara. Askoz gutxiago Diru-etxe, Osasun-Zerbitzu, Gizarte-Ardura-Zerbitzuetara. Ia ezer ez Garraio-Zerbitzuetara edo Ostatu eta Atsedeen-Zerbitzuetara. Gizarteko zerbitzuen artean ere, beraz, gehienak euskararen aldetik motz gelditzen dira, herritarren hizkuntz egoerari egokitzeko orduan. Asko falta da oraindik euskarari dagokion sarbidea lortzeko.

Atal honen konklusio gisa, zera esan dezakegu:

- Egia baldin bada, Joxean Artzek dioen bezala, hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik, eta euskaldun gehienek erdara gehiago erabiltzen dutela euskara baino, leku publikoetan eta batez ere Udal-Erakunde eta Gizarte-Zerbitzuetan ikusirik garbi dago euskararen etorkizuna nahiko ilun agertzen dela.
- Euskararen iraupenari begira jarriz gero, grabea dela ezin uka Gizarte-Zerbitzuen aldetik eta batez ere Udal-Administrazioaren aldetik dagoen desoreka herritarren hizkuntz egoerarekiko.
- Euskararen erabilpena hain eskasa izateak garbi agertzen digu erdara/euskararen arteko indar-erlazioa zeinen desorekatua dagoen erdararen alde eta euskararen kontra. Horrela, hizkuntz ordezkapen edo sustutuzio-prozesua oso aurreratua dagoela ezin uka. Batzuen ustez, itzuli ezinezko *point of no return* edo errekuperatu ezinezko puntura iristeraino.
- Probintzia osoari begira, itzuli ezinezko puntura iritsita gaudela esatea gehiegizko badirudi ere, probintziako bailara batzuetan (Donostialde osoa eta Bidasoa Behea) arrisku handia dagoela, neurri garrantzak hartzen ez badira, betiko erdaldunduak gelditzeko ere garbi dago.
- Jakina da errezetarik edo formula magikorik ez dagoela egoera honi buelta emateko. Baina garrantzi handia du lehenik egoeraren berri zehatz-mehatz jakiteak, nondik hasi behar den jakiteko. Ez bait dira berdinak Urola edo Kosta eta Donostialde eta Bidasoa Beheko egoerak. Ondoren hartu beharko dira erabakiak eta ekintz programa zehatz bat

burutu, non zer aldatu behar den erabaki eta gero. Buru-belarri lan eginez, errekurso eta baliabideak martxan jarritz, egoera horren aldaketa posible egiteko. Helburuak epeka markatuz eta lorpen edo frakaso guztien kontrol zehatza eginez. Okerrak zuzendu eta epe berrirako helburuak markatu, ekintz programa burutu eta errekursoak martxan jarritz.

Horrela jokatzeko ez bada, nekez lortuko da, medio edo baliabide arruntekin bakarrik, orain arte bezala jarraituz alegia, oraingo tendentzia aldatu eta hizkuntzaren normalizazio batetara iristea.

*Siadeco*

<sup>1</sup> Orain aurkezten dugun ikerketaren lehen atal honen helburua, euskara idatzia-riaren presentzia ageriko ezaugarrietan neurtzea da. Jakin nahi duguna, hain zuzen, horixe da: Ea zenbaterainoko lekua egiten zaion euskarari mota guztietako ageriko ezaugarrien mundu horretan. Kontutan hartu ditugun arloak hauek izan dira:

- a) **Publizitatea (Kartelak, pintadak, anuntzioak)**
  - Komertziala (kanpoan edo erakustokietan)
  - Politikoa (kanpoan edo erakustokietan)
  - Bestelakoa (kanpoan edo erakustokietan)
- b) **Lekuen izenak (Izen ofizialak eta idatziak)**
  - Herrien edo Auzoen izenak (errotuloak)
  - Plaza edo enparantzen izenak
  - Kaleen izenak
  - Etxeen izenak
- c) **Establezimenduen izenak**
  - Denda eta Almazenen izenak
  - Taberna eta Jatetxeen izenak
  - Banketxe eta Aurrezki Kutxen izenak
  - Beste Zerbitzuen izenak
- d) **Elkarteen egoitzen izenak**
  - Elkarte politiko eta sindikalen izenak
  - Kultur elkarten izenak
  - Jolas eta kirol elkarten izenak
  - Jan-edan elkarten izenak
  - Bestelako elkarten izenak

Ageriko ezaugarri guzti hauen artean bildu den informazioa zera da: zenbat agertzen ziren euskaraz bakarrik (zuzen eta oker idatziak), bi hizkuntzetan edo erdaraz bakarrik.

Esan beharra dago azterketa hau ez dela exhaustiboa izan, baizik eta Gipuzkoako Udalerrietako kale nagusietara mugatu dela.

Horrela jakin nahi izan dugu, Gipuzkoako Udalerrietan bizi den jendeak Udale-

rriko Kale nagusian begibistan ikusten duen guzti horretatik zenbat ikusten duen euskaraz idatzita.

Datu horiek 98 Udalerri zatietan jasoak izan dira. Udalerri bakoitzean kale nagusia bezala aukeratua izan den kalean eta Donostiako hiriburuan 13 kaletan (Hiri barneko 6 kaletan eta 7 auzoetako kaletan). Pasaian, berriz, bere 4 auzoetan.

Esan beharrik ez dago datu hauek ez direla jeneralizagarriak udalerri mailan. Izan ere kale nagusian gertatzen dena ez da nahitanahiez beste auzoetako kaletan gertatzen. Datu hauen konparagarritasuna Udalerri bakoitzeko kale nagusietara mugatzen da. Beraz, konpara daiteke Udalerri bateko kale nagusian gertatzen dena beste Udalerri bateko kale nagusian gertatzen denarekin, alegia, baina ezin da Udalerri bakoitzaren barnean kale nagusian gertatzen dena beste guztietara jeneralizatu.

Konparagarritasuna oraindik egokiagoa da bailara- edo eskualde-mailan. Eskualdea osatzen duten Udalerrietako kale nagusietako euskararen presentziaren berri ematen bait digu. Orduan, eskualde batean gertatzen dena beste eskualde batean gertatzen denarekin konpara daiteke, eta argigarri gertatzen da batean eta bestean gertatzen dena elkarren parean jartzea, eskualde bakoitzeko giroaren berri ematen bait digu.

Datuen esannahia, ordea, probintzi mailan gertatzen da interesgarriena, jakina den bezala, berak ematen bait digu probintzian zehar, han eta hemen 98 kale-zatitan jasotako datuekin, probintzia osoan euskara idatziaren presentzia zenbateraino-koa den.

Lehen ere esan dugu Probintziako Udalerrietako Kale nagusietako giroa ezin dela hartu Udalerri bakoitzak dituen kale guztietako giroaren adierazgarritzat. Izan ere, jakina da Udalerri handietan zenbait auzotako kaletan kale nagusian baino giro eraldunagoa dagoela. Beraz, bildu dugun informazio honetan garbi dago euskara idatziaren erabilpen-maila altuagoak agertzen direla exhaustiboki kale guztietan informazioa bildu balitz baino. Beraz, ziur esan dezakegu zera da: euskara idatziaren erabilpena, Gipuzkoako probintzian zehar, ez dela hemen agertzen dena baino handiagoa. Izatekoan ere, apalagoa edo baxuagoa.

<sup>2</sup> Orain aurkezten ditugun datuak mementuko «flash» edo argazki baten gisa-koak dira: Gipuzkoako probintzia osoan 1983 ko Otsailaren azken astean, salbuespen bakar batzuk izan ezik, jasotakoak, alegia.

Lehen aipaturiko 98 Udalerri edo auzoetan datuak biltzeko, Otsailaren 26 eta 27 egunak izendatu ziren: larunbata eta igandea, hain zuzen. Larunbatean, goiza eta arratsaldea hartu behar ziren batez ere, erosketak egiten eta txikiteo edo poteoan kalean zehar zebiltzaten artean euskararen erabilpena neurtzeko. Igande goiza eta eguerdia, berriz, enparantzetan, parkeetan eta beste jolas-tokietan datuak jasotzeko.

Bestalde, Udalerri bakoitzean aurrez definituriko puntuetan (herriko enparantzian, parkean, pasealekuan, kalean etab.) eta izendaturiko orduetan, mementu horretan eta leku horretan, zenbat pertsona zeuden kontatu behar zen eta horietatik zenbat ziren euskaraz hitzegiten ari zirenak kontutan hartu. Datuak jasotzerakoan, gainera, leku horretan zeuden pertsonen adina ere kontutan hartu behar zen, haurrak (0-14), gazteak (15-24), helduak (25-64) edo zaharrak (65 eta +) ziren bereizteko eran. Jakina da, izan ere, guztiak zaku berean sartuz gero, adin-taldeen artean dauden diferentzia nabarmenak galdu cgingo liratekeela. Horregatik adin-taldeen bereizketa egitea eta jasotzea beharrezkotzat jo genuen.

Datu-bilketa egiteko leku edo puntu bezala (txosten honen eranskinen ageri den inkesta-ereduan ikus daitekeenez) honako 8 hauek izan ziren.

1. Udalerriko edo auzoko enparantza nagusiena.
2. Parke edo Jardín nagusiena.
3. Jenderik gehiena ibili ohi den pasealekua.
4. Erosketa gehien egiten den kalea.
5. Txikiteo gehien egiten den kalea.
6. Pelotaleku, frontoi edo antzeko jolastokia.
7. Futbol zelaia.
8. Beste jolastoki bereziak (pizsina, polikiroldegia, etab.).

Orain arteko oharretan eman ditugu datu-bilketari buruz behar ziren argibideak. Pasa gaitzen orain emaitzei buruz zenbait ohar egitera. Hauek ere metodologiazkoak, noski.

Gipuzkoako 98 Udalerri eta Auzoetako enparantza, ibilbide, kale eta beste leku publikoetan kontatu ziren pertsonak ia 60.000 (juxtu-juxtu 58.910) izan ziren. Biztanleen Zentsuaz aparte, inoiz egin den datu-bilketarik zabalena eta oparoena. Zifra hori, ordea, Udalerri eta Eskualdez Eskualde bildutako datuen batueta besterik ez da.

Errepresentatibitateari dagokionez, datu horrek ez du, beraz, kontutan hartzen eskualde bakoitzak duen demografiako pisu berezia, eta horrela kontatu diren 60.000 pertsonako multzo horretan eskualde bakoitzeko biztanle bakoitzari pisu ezberdina ematen dio, batuketa egiterakoan.

Izan ere gertatzen da, Urola edo Kosta bailarako jendetza Bidasoa edo Donostialdekoa baino askoz urriagoa izan arren, batuketa-sistema honetan ematen zaien pisuagatik, Urola edo Kostakoak gehiago errepresentatuak dauden bitartean, Bidasoa edo Donostialdekoak gutxiegi errepresentatuak aurkitzen direla.

Beraz, datu horiek zuzenketa bat eskatzen dutela, garbi dago. Eta bere onera ekartzeko eta bere esannahi jatorra adierazteko, ponderazio edo pisu-egokitze baten beharrea aurkitzen dira.

Delako Ponderazio edo pisu-egokitze hori egiteko erabili dugun sistema, Udalerri bakoitzak Eskualdearen barnean duen jende-proportzioa, ponderazio-indize bezala hartzea izan da.

Horrela, eskualde batzutako biztanleak besteetakoak baino errepresentatuagoak egoteko arriskua, deseginik gelditzen da.

Bada oraindik beste maila bateko ponderazio edo pisu-egokitze batzu egin beharra ere. Izan ere, orain arte aipatu ditugun datuetan jendetza adina kontutan hartu gabe ibili gara. Jendetza osoa bakarrik kontutan harturik, alegia.

Gertatzen dena, ordea, zera da: bildu diren datuetan agertzen diren haur, gazte, heldu eta zaharren proportzioak une horretan leku publikoetan, enparantza, parkean edo kalean zeuden pertsonenak zirela. Horrek ez du, ordea, esan nahi Udalerri edo Eskualdeko jendetza egiturari dagokion haurren, gazteen, helduen eta zaharren proportzioak leku publiko horietan zeudenak direnik. Harrigarria litzateke horrela gertatzea. Askoz normalagoa dirudi leku-publikoetan aurkitutako proportzioak eta jendetza osoarenak bat ez etortzea. Normalean haurrak eta gazteak leku publikoetan beren adin-taldeen kopuru osoen proportzio handiagoan ibili ohi dira, helduak eta zaharrak baino. Beraz, haurrek eta gazteek errepresentazio gehiegi duten bitartean, helduek eta zaharrek gutxiegi dutela garbi agertzen da.

Horregatik, beraz, adin-taldeen proportzioek ere ponderazio edo pisu-egokitze

bat eskatzen dute. Bailara bakoitzeko adin-egitura izan da erreferentzia bezala erabili duguna, zuzenketa edo ponderazioa egiterakoan. Bera delako ponderazio edo pisu-egokitzeak kontutan behar den bezala hartzen dituen.

<sup>3</sup> Atal bakoitzean bezala, hitz batzutan labor-bilduz, datu bilketa nola egin den adierazten ahaleginduko gara.

Udalerrri bakoitzean Gizarte-Zerbitzuetako datu-biltzeari buruz emandako oharrek honela zioten:

#### Lehen orrialdea nola bete behar den

- Orrialde honetan zerbitzu bakoitzean zenbat enplegatu diren eta horietatik zenbat euskaldun eta euskararen erabilpena bertakoen artean eta kanpokoe-kin zenbaterainokoa den jaso behar da.
- Orri honetan izendatzen diren zerbitzuetatik kale nagusian dauden zerbitzu-mota bakoitzeko zerbitzurik handieneko datuak bildu behar dira.
- Kale nagusian aurkitzen ez diren zerbitzuak dauden lekura joan eta bete behar dira (Trenbide geltokia, Osasun Zerbitzuak eta antzekoak).
- Zerbitzu bakoitzeko arduradunarekin elkarrizketa bidez jasotako datuekin bete behar da.

#### Bigarren orrialdea nola bete behar den

- Orrialde honetan euskara idatziaren presentzia jaso behar da.
- Orrialdeko lehen zutabean, zerbitzuaren barnean, ormetan ageri diren kartel, egutegi etab. kanpoan inprimatuak izan direnak jaso behar dira.
- Bigarren zutabean, bertakoek egindako idazkiak (oharrak, anuntzioak etab.).

#### Hirugarren orrialdea nola bete behar den

- Zerbitzuan pasatako minutuetan nola enplegatuen artean hala hauek herritarrekin hitzegiterakoan, zein hizkuntzatan mintzatzen diren, jaso behar da.

Datu-bilketari buruz esan dugunaz gainera, beste metodologiako ohar bat ere egin beharra dago eta hori datuen ponderazio edo pisu-egokitzeari buruzkoa da.

Izan ere, zenbait zerbitzutan enplegatu bakarra dagoenetan adibidez, ezinezkoa gertatzen da enplegatuen arteko elkarrizketa edo/eta era berean herritarrik ez dagoenean enplegatuak herritarrekin elkarrizketa egitea.

Horregatik, aldi bakoitzean, zenbat pertsona kontaktu diren jaso dugu eta proportzioak egiterakoan kontutan izan dugu aldian aldiko kopurua.

Bestealde, euskara idatziari dagokionez, orrian agertzen ziren ehunekoak (%) zerbitzu bakoitzeko enplegu osoari erreferentzia eginez ponderatu ditugu. Horrela zerbitzu bakoitzean agertzen den euskara idatzia hobeto baloraturik gelditzen dela uste dugu.

Azkenik, euskara mintzatuaren erabilpenari dagokionez, ponderazio-kriterioa euskara ezagutzen duten enplegatuena izan da. Horrela garbiago gelditzen dira euskararen erabilpenaren proportzioak.

## 1983ko euskal liburugintza

Joan Mari Torrealdai

JAKINen irakurlearekin nire urteroko konpromezuari atxekiz, aurreko urteko liburu-produkzioaren azterketari lotuko naitzaio aurten ere. Eta betiko moduan lotu ere, hau da, zenbakiei hurbildik segituz, iruzkin orokorrakoak egin ahal izateko urtekoa baino aldi luzeagoak behar direlakoan.

Lan honen oinarria liburuaren informazio zehatza da <sup>1</sup>. Hortik abiatuko naiz zenbait arazo sistematikoki arakatzean, halanola, sailak, gaiak, liburu-motak, literatur generoak, etab. Ez naiz gehiegi luzatuko, urte batetik bestera sorpresa handi-handirik egon ere ez dago eta. Sakontzeak ere ez du merezi aurkezpen-gisako sarrera bat egitea bait da ene asmoa.

### 1. 400 liburu eta ia 60.000 orrialde<sup>2</sup>

Urtea	Tituluak	Orrialdeak
1978	191	36.000
1979	242	35.000
1980	219	38.000
1981	200	42.000
1982	316	54.000
1983	401	59.000

Hona hemen azken urteotako liburuen tituluen eta orrialdeen eboluzioa. Urtez urte, ia beti, gauza bera esanez hasi izan naiz, hots: sekula baino liburu eta orrialde gehiago atera direla. Aurten ere berdin, liburugintzaren gorakada aipatuz hasiko naiz. Gorakada aski nabarmena, gainera; eta nabarmenaz gain esperantzagarria: produkzio-aparatuan jadanik finkatua ematen du liburugintzak. Egoera iraunkortzat jo genezakeelakoan nago. Oraingo editorialak hobeki prestatuta bide daude koiuntura eta gorabehera politiko eta ekonomikoei aurpegi emateko.

Liburuen gorakada hau pozgarria da beste alde batetik begiraturata ere. Ikus-entzungailuak (irradi-telebistak) eta liburua ez dira elkar ukatzaile suertatu. Izan, elkar laguntzaile dira. Gurean lankidetzaz hori ez da oraindik praktikan ikusi, baina dagoeneko ikusia dago sortu berri diren irratiek eta telebistak ez diotela liburuari lekurik kendu. Orain bigarren urratsa lehenbailehen ematea opa behar diogu euskal kulturari: liburuaren eta entzun-ikusizko komunikabideen arteko elkarlana lehenbailehen sortzea. Itxurazkoa bakarrik bait da Marconiren eta Gutenbergen Galaxien arteko gerra, McLuhan-ek bestelakorik aldarrikatu bazuen ere. Arriskuak oro ez ditugu gurean oraino gaindituak. Baina arriskuak arrisku, kultura batek ezin du liburua ez baztertu, ez bigarren mailan utzi, bazterrezinezko eginkizuna duelako liburuak edozein kulturatan eta areago gurean. Ondo gogoan eduki beharrekoa da liburuaren historia, nola lagundu duen hizkuntza nazionalen hedapena eta sustapena eta zein loturik egon den Ilustrazioari. Gurean funtzio horiek betetzeko tratamendu instituzional hobea behar du euskal liburuak; telebistak eta irratia izan dutenak nabarmenago uzten bait du liburuaren zurzatasunaren bidegabekeria.

Laukira itzul nadin. Inoizkorik liburu gehien atera da 1983an, beraz. Eta inoiz baino orrialde gehiago ere bai. Liburu bakoi-tzeko orrialde-kopurua, aldiz, aurreko urtean baino txixixea-goa da: 1983ko euskal liburuak 146,5 orrialde ditu batezbeste-ko.

Optimismoari draga jarriz, eta liburuaren osasun-termometroa irakurketa dela jakinik, erants dezadan ez dakigula gauza handirik irakurketari buruz. Titulu gehiago ateratzen da, hori bai, baina tiradak ere handiagoak ote? Alegia, biztanleko liburu-eskaintza handiagoa ote gaur? Hori bait da inportantea. Jakin ez dakit, informazio-iturri fidagarrien faltaz. Ditudan zeharkako eta zatikazko informazioekin uste dut tituluen gorakada honek ez duela berdinek izan aletan. Bestalde, Rafael Callejak dioe-

na: «Hay que considerar con cierta cazorra cautela las cifras que afectan a la edad de las señoras, a la renta de los ricos y a la tirada de los libros y periódicos».

## 2. Tituluak eta gaiak: ehunetik 61 irakaskuntzarako

Kaleratu ditugun 400 liburu horiek zertaz diren jakin nahi dugu orain. Zehatzago aztertzen hasi orduko esan genezakeela uste dut aurreko urteetatik hona ez dela aldakuntza harrigarrik. Orduan falta zena, orain ere falta da; eta orduan nagusi zena, orain ere bai. Bestalde, kontzentratze-joerak ere berdin darrai; bide beretik, esan nahi dut.

Hainbat aldiz azpimarratu dugun barne-desoreka handi hori litzateke, nire ustetan, euskal liburugintzaren berezitasun nagusienetakoa. Horixe da arestian aipatu dugun kontzentratzea. Gai-sail gutxi batzutan biltzen da produkzio ia osoa. UNESCOren gaitaularen araberako sailkapenean, 8 sail dauzkagu aurten deus gabe eta beste hainbeste liburu bat edo besterekin; 16 sail denetara, zeinetan ez bait dugu deus idatzi.

Uler dezagun elkar: gai horietako batean klasifikatzerakoan, gaia ez-ezik tratamendua ere kontutan eduki behar da. Adibidez: 12 sailean, «Matematika» gaikoan, ez dugu liburu bat ere sartu, nahiz eta gai horietako liburu dexente agertu zerrendan. Gertatzen dena da, liburu horiek denak irakaskuntzara zuzenduak direla, 8. sailean klasifikatzeokak, beraz. Eta horrelatsu beste kasu askotan.

Euskal liburugintzaren kontzentratze-fenomenoa neurtzeko, aski da zera jakitea: lau sailek produkzio osoaren %83 osatzen dutela. Hona zeintzu diren sailik erabilienak:

Ordena	Saila	Gaia	Kopurua	%
1	01	Orotarik	105	26
2	08	Irakaskuntza	91	22,5
3	21	Literatura	90	22
4	11	Euskara	51	12,5
5	03	Erljioa	22	5,5



Horra non dagoen indarra, lehen lauetan. Literatur liburuak eta irakaskuntz liburuak, biek batean, %83 suposatzen dutela esana dugu. Eta hori, aurreko urtean baino bi puntu t'erdi gehiago da. Hona lau nagusien datu gehiago, konparazioak egin ahal izateko:

1978:	% 60,5
1979:	% 77,5
1980:	% 77,5
1981:	% 85
1982:	% 80,5
1983:	% 83

Honek garbi erakusten digu, urtea joan eta urtea etorri, gai-sailak beti berdinak direla, bateko; eta besteko, liburugintza osoa-  
rekiko sail gutxi hauen pisua ikaragarria dela.

Bitan bana genitzake lau sailok: literatura eta irakaskuntza. Irakaskuntza lehenengo, zeren eta helburu honetarako egindako liburua %61 da, aurreko urtean baino hiru puntu gehiago. Liburu-klase horren barruan, euskara ikasteko tresneriak ez du gora egin; bai, ordea, eta asko gainera gazte- eta haur-literaturak (2,5 puntu) eta batez ere irakaskuntz liburuak (5,5 puntu). Euskaraz publikatzen den guztiaren %61 irakaskuntzara begira prestatua dela jakiteak badu muntarik; ala ez? Liburu-mota honen barruan, seinala dezagun, zatirik handiena liburu funtzionalarena da, testu, metodo, hiztegi eta holako. Eta beste zati on bat (%26, hain zuzen ere), haur- eta gazte-literaturari dagokiona.

Honela bada, modu batera kontaturik, %61 du irakaskuntzak. Eta beste modu batera kontaturik (helduen eta gazteen literatura, biak bat eginda), %48 du literaturak. Dena den, eta nahi den modura kontaturik ere, lehengoan gaude: sail gutxi batzutan kontzentratzen da produkzioa, eta hainbat sail hutsik dago. Non daude saio-liburua, dibulgaziozkoa, kultur liburua, dokumentu-liburua, sakel liburua? Urteroko galdera da. Erantzuna ere baietz urterokoa izan!

### 3. Liburuaren jatorriaz oharrak

Esan beharrik ez dago, publikatu diren 400 liburu horiek ez direla denak 1983an lehendabizikoz argitara eman, ez eta euskaraz zuzenean sortu.

Zertan esanik ez da, 400 liburu horiek, barne-balioak aparte utzita ere, jatorriaren aldetik ez dutela denek berdin balio. Idazle-ekintza oso desberdina suposatzen du itzulpen batek, berrargitalpen batek, euskal lan original batek.

Textuaren sorrerari buruzko analisi honetan, nik bereizi ditudan kontzeptuak honako hauek dira: elebitasuna, berrargitalpena, itzulpena, sorkuntza. Hona bakoitzari zor zaiona:

Elebitako liburua.....	% 9
Liburu itzulia.....	% 21,5
Liburu berrargitaratua.....	% 23,5
Euskaraz lehendabizikoz sortua.....	% 55

Zenbaki erlatibotan, aurreko urteko tamaina bera du sorketak. Itzulpena, aldiz, igo egin da (14tik 21,5era); baina, kasu honetan, 1982ko datua zen ahula eta ez iazkoa goregia. Berrargitalpena ere jaitsi egin da, pittin bat. Konparaketak aparte, beste honetan dago auzia: tamaina onean al gabilta, itzulpenean, zein berrargitalpenetan zein kreaziozko lanetan?

### 3. 1. Kontzeptuz kontzeptu

Liburu-mota bakoitzaren produkzio-kotak ikusi ditugu. Baina ez da aski. Argitasun gehiago eskaintzen du kontzeptu bakoitza nagusiki non ematen den ikusteak. Hona hemen zenbait taula:

#### Sorkuntza

Ordena	Saila	Zenb. abs.	%
1	21	65	29
2	01	62	28
3	08	42	19
4	11	19	8,5
5	03	15	6,5

## Berrargitalpena

Ordena	Saila	Zenb. abs.	%
1	08	31	33
1	11	24	25,5
3	21	20	21
4	01	10	10,5
5	03	6	6,5

## Itzulpena

Ordena	Saila	Zenb. abs.	%
1	01	37	43
2	08	21	24,5
3	04	11	12,5
4	21	7	8
5	06	5	6

## Elebitasuna

Ordena	Saila	Zenb. abs.	%
1	11	12	33,5
2	04	7	19,5
3	01	6	16,5
4	06	5	14
5	21	1	2,5

Lan erraza du irakurleak, taulak banan banan hartuta. Nere irakurketan, hiruzpalau puntu seinalatuko ditut nik, neure aldetik:

Euskaraz berrikitan sorturiko liburu-produkzioan literaturak du lehenetasuna, eta hori datu oso positiboa da. Portzentaia berdintsuekin agertzen dira lehen bi lekuetan helduen eta gazteen literaturak.

Berrargitalpenari dagokionez, garbi ikusten dugu batipat irakaskuntz liburuetan gertatzen dela fenomeno hori: %58,asko da. Helduen literatura gazteenaren aurretik etortzeak harritu egin nau piska bat. Ez dakit zergatik den horrela: gazteen literatura-ren tiradak handiagoak edo/eta berriagoak direlako, agian?

Itzulpena, bai, hori haurren eta gazteen literaturan ematen da: %43, eta gutxi, oso gutxi, helduenean. Azpimarratzekoa da, bestalde, itzulpenaren araberrako ordena honetan, ez dagoela lehen bost horien artean 11. saila (euskara irakasteko liburua). Beste kontzeptu guztietan bai, eta hemen ez. Euskara irakasteko/ikasteko gure geure metodologia propioa erabiltzen dugula adierazi nahi ote du horrek?

### 3.2. Sailez sail

Liburuaren jatorriari edo sorrerari dagokion alorrean jarraitzen dugu. Kontzeptu berak (euskal liburu sortuberrria/elebitakoa/-berrargitaratua/itzulia) beste era batez edo beste ikuspegi bate-tik arakatuko ditugu orain.

Esana dugu, sail gutxi batzutan biltzen dela produkzioaren parte handi bat. Sail nagusi horiek hartuko ditugu orain banan bana, eta horien baitan kontzeptu bakoitzaren pisua zenbaterainokoa den neurtuko. Liburu-mota bakoitzean zein jokabide daramaten editorialek antzeman ahal izango dugu honela.

Saila	KONTZEPTUA			
	Euskarazkoa	Elebitakoa	Berrargitaratua	Itzulia
Orotarik	59	5,5	9,5	35
Irakaskuntza	46	1	34	23
Euskara	37	23,5	47	2
Literatura	72	1	22	7,5

(Lauki honek argitasun-ohartxo bat behar du: ezker-eskuin irakurtzeko da lauki hau, eta ez goitik behera; baina kasu: zenbaki guztien baturketak ez du beti ehun emango, liburu bat bera bi laukitxotan sar daitekeelako; adibidez, liburu bera itzulia eta berrargitaratua izan daiteke, eta orduan bi tokitan sartzen dugu, bidezko denez).

Sail bakoitzeko barne-konposaketa zein esanguratsua den ez dut zertan azpimarratu beharrik. Alderdiak oro baloratzen ez dut joko orain. Bakar-bakarrik, lehen egin dudanaren antzera, irakurketa arin bat egingo dut.

Haur- eta gazte-literaturaren eremuan kreaziozko liburuak dator lehen lekuan. Itzuliak ere badu garrantzirik, halere; ez dakit nahikoa, handiegia ala txikiegia. Berrargitalpenak apenas duen pisurik. Are gutxiago elebitako liburuak, zorionez; elebitasun-formula arriskutsua iruditzen bait zaigu kontrakoa.

Kreazio-lan zuzena ez da erdira ere iristen irakaskuntz alorreko testu eta metodologi liburuetan. Irakaskuntz sistema propioan ez gabiltzan seinale. Berrargitalpenak, bai, horrek badu pisurik.

Euskara irakasteko/ikasteko liburugintzak gainerako alorretako liburu-moten lehenetsun-eskema hautsi egiten du. Laukian ageri denez, beste denetan euskarazko kreazio-liburuak du lehenetsuna beti. Hemen ez. Berrargitalpenaren erreinua da hau, ia erdia modu horretan plazaratua da izan ere. Kreatuz bagerik, atzera inprimatuz soluzionatzen dira nonbait bezero berrien premiak. Elebitako liburuen portzentaia hori ez da esanahitsua, hiztegiak-eta sartzen bait ditut epigrafe horretan.

Helduen literaturan kreazioaren aldeko partea beste inon baino nabarmenagoa da: %72. Aurreko urtetik hona kreazioaren aldeko aldaia oso positiboa gertatu da. Berrargitalpena jaitsi egin da, zenbaki absolututan zein erlatibotan, nahiz eta berdin-berdin kaleratu narratiba lehen eta orain. Eta azkenik, normalean al da horren itzulpen gutxi argitara ematea?

#### 4. Helduen literaturaren barne-sailak

Ordena	Azpisaila	Azpigaiak	%
1	214	Elaberria	31
2	217	Ipuina	17,5
3	216	Olerkia	14,5
4	212	Bertsoa	12,5
5	211	Historia. Kritika	13,5
6	213	Antzerkia	11

Banan banako errebasoa emango diegu azpisailoi ere.

Zalantzarik gabe, merkatuko irteerarik handiena duen generoa narratiba da. Literaturaren eremuan publikatu denaren ia erdia (%48,5) narratiba izan da aurten ere. Narratibaren barruan, elaberria da gehiena, ipuinaren ia doblea. Baina kasu!, alde hori txikiagoa da kreaioari dagokionean. Elaberria asko puztutzen duena, berrargitalpena da, ia produkzio berria bestekoa bait da berriz inprentaratu den nobela.

Ipuina eta narrazio motxa datoz bigarren lekuan eta, esan bezala, kreaioari dagokionez, ia-ia elaberriaren parean. Ipuinen erreinuan lehiaketen eragina ageri da nabarmen, Santurtzikoa, Donostiako Hirikoa, Café Iruñakoa, GAKekoa... Antza denez, genero bezala bere lekua finkatuz doan narrazio-mota da hau.

Poesian ere sarien markak ikusten ditugu. Berrargitalpenen artean, Lizardi, Aresti eta B. Atxaga daude. Aurtengo produkzioak eman dizkigun irakaspenen artean bat, zera da: belaunaldi berriak ez diola muzin eta zaputz egin olerkiari. Hor ditugu lekuo *Susa*-koen ekin eta sari zenbaiten emaitzak.

Bertsolaritzaren sailean, 1982an ospaturiko Bertsolari-Txapelketako bertso-bilduma da aipagarriena. Berri pozgarria da, baita, utzi samartua zuen argitalpen lanari indarrez heldu diola berriz *Auspoa*-k.

Antzerkiaren saila bestetan baino hornituago dator aurten. Berrargitalpen, itzulpen eta sorketa, denetik dago hor, gaztetxoan eta helduen antzerkia ere bai. *Antzerti*-k bultzada bikaina eman dio sail honi. Bai behar ere!

Oharra: Liburuen fitxa bibliografikoan, tituluaren ondoan eta parentesi artean, datu hauek ematen ditut: i= itzulpena; b= berrargitalpena; e= elebitakoa.

<sup>1</sup> Zorrak aitortzera nator. Ezinaren parekoa gertatuko litzaidake lan hau burutzea JAKINen bulegoko laguntzarik gabe. Biziki zaila, Joseba Jakak liburuak oro banan bana arakatzeko aukera emango ez balit. Izan ere, liburuak eskutan eduki gabe eta behin eta berriz maneiatu gabe, nekez atera dakioko liburuari horrenbeste informazio, alegia: titulu, egilea/itzultzailea, argitaletxea, herria, edizio-urtea, jatorria (berrargitalpen/itzulpen/original), bilduma, gai-sailkapena, ISBN, prezioa. Informaziorik handiena JAKINen orri hauetan eskaintzen dut, tituluaren zerrendan, gai-sailkapenean eta iruzkinetan.

Zenbait elkarte eta argitaletxeren laguntzak ere eskertu nahi ditut hemen. Zenbait datu eskaini didatenen artean daude Élhuyar, Erein, X. Gereño, GIE, Haranburu, Idatz, Labayru, Santi Onaindia.

<sup>2</sup> Pare bat ohar liburugintza bertatik bertara aztertu nahi duenarentzat. 401 liburu eta liburuskak zenbatu ditut. Zentzu hertsian gehiago dira, tituluen zerrrendan agertzen diren adina behintzat. Bat bezala zenbatu ditudan zenbait bildumatako liburuskak bana bana hartuz gero, 440 izango lirateke guztira, eta 456 izan litezke denak, «Pitufo» eta guzti. Nondik, ba, diferentzia hauek? Nik ez ditut, analisirako, liburuskak oro mekanikoki kontatzen. Textu-masari jaramon eginik, korrektibo hau erabili ohi dut: textu-masa oso gutxiko liburuskak, sortaren batean daudenean behintzat, bat bailiren kontatzen ditut (titulu bat bakarra, baina orrialde guztien suma). Bat bezala zenbatu ditudan bilduma nagusiak hauek izan dira: La Galera, Kresaletako eta eguzkitako ipuinak, Ibai, Apurrak, Txalupa. Eta beste hauek, hitzik ia ez dutenez, ez ditut aintzat hartu ere kalkuluetan: Spot, Pitufoak, Lagun...

«Separata»rik ere ez dut aintzat hartu. *Eusko Ikaskuntza*-k makina bat atera du, baina ez ditu merkatu-sisteman sartu.

Hona, ba, labur nire erizpideak eta arrazoiak.

## 1983ko liburuak: gai-sailkapena

Sailak	Zenb. abs.	%
01.- Orotarik. Bibliografia. Liburutegien zerrendak. Kazetaritza. Urtekariak. Haur- eta gazte-literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Saiakerak eta artikuluak gai desberdinez. Omenaldiak .....	105	26
02.- Filosofia. Etika .....	1	0,5
03.- Erljioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa. Asketika eta mistika. Teologia pastoral. Eskritura Saindua. Eliza kristaua jeneralean. Liturgia .....	22	5,5
04.- Soziologia. Estatistika. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa. Hainbat estatistika .....	12	3
05.- Zientzia politikoak .....	—	—
06.- Zuzena. Administrazio publikoa. Laguntza soziala. Merkatal deretxoa. Finantz Zuzenb. Zuzenb. publikoa, konstituzionala. Politiko. Administratiboa .....	5	1,5
07.- Arte eta Zientzia militarrik .....	—	—
08.- Irakaskuntza. Hezkuntza. Hezkuntz sistemak. Hezkuntza politikoa. Pedagogia. Irakaskuntza eskolaurrekoa eta oinarrizkoa. Oinarrizko Heziketa Orokorra. Batxilgeroan eta UBIn irakaskuntza .....	91	22,5
09.- Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak .....	—	—
10.- Etnologia. Tradizio eta kondairak. Zuhurriztak, atsotitzak, ateraldiak eta izkirimiriak .....	2	0,5
11.- Hizkuntzalaritza. Filologia. Filologia eta Hizkuntzalaritza konparatua. Filologiaren historia. Euskara. Hiztegiak. Metodoak. Gramatikak .....	51	12,5
12.- Matematikak .....	—	—
13.- Natur zientziak. Fisika. Materialen jarkikortasuna. Kimika. Geologia. Meatzak eta hobiak. Mapa geologikoa. Biologia .....	10	2,5
14.- Medikuntz Zientziak. Higiene publikoa .....	—	—
15.- Inginaritza. Teknologia. Industriak. Lanbide eta eskulanak. Inginaritza mekanikoa eta elektronikoa. Elektronika .....	2	0,5
16.- Nekazaritza. Basalanketa. Abeltzaingoa. Ehiztaritza eta arrantza .....	—	—
17.- Etxe-ekonomia. Sukaldea. Gastronomia. Kokteleria.....	1	0,5
18.- Antolakuntza .....	—	—
19.- Arte ederrak. Artearen filosofia eta kritika .....	2	0,5
20.- Jostaldiak. Denborapasak. Jokuak. Kirolak .....	—	—
21.- Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsuak, Antzerkia. Elaberria. Herri literatura. Olerkiak. Ipuinak .....	90	22
22.- Geografia. Bidaia. Atlas. Kartografia. Euskal Herriko geografia .....	2	0,5
23.- Historia. Biografia. Euskal Herriaren eta honen eskualdeen historia. Biografia. Oroitzapenak .....	5	1,5
<b>GUZTIRA</b> .....	<b>401</b>	<b>100</b>



## 1983ko liburuak: fitxa bibliografikoa

- Abereak.** Magunagoitia, Igone. IKA. Euba. 22 × 19.
- Abuztuaren 15eko bazkalondoa.** (b) Arrieta, Joxe Agustín. C.A.P. Donostia. 21 × 13. 136 or.
- Adelaida pastelera.** (i) Ginesta, Montserrat / Landa, Josu. Argos Vergara, S.A. Barcelona. 20 × 14,5. 24 or.
- Aingura. 1. Irakur liburua.** (b) Uribeetxebarria, Tomas. Pagola, Rosa Miren. Santillana. Madrid. 24,5 × 18,5. 96 or.
- Aingura. 2. Irakur liburua.** (b) Uribeetxebarria, Tomas. Pagola, Rosa Miren. Santillana. Madrid. 24,5 × 18,5. 128 or.
- Akerraren fisika.** U.E.U.ko Fisika Saila. Elkar-AEK. Donostia. 17 × 11,5. 132 or.
- Albaniaren konkista.** Urretavizcaya, Arantxa. Olariaga. Antton. Erein. Donostia. 30 × 21,5. 28 or.
- Alfabetatze zientifikoa (Zenbakiak, unitateak, adierazpenak, eragiketak, esamoldeak, irakurketa).** Ensunza, Martxel. U.E.U. Iruñea. 24 × 16,5. 188 or.
- Altabizkarko kanta.** Arozena, Eugenio. Eusko Jaurларitza. Gasteiz. 21 × 15. 52 or.
- Amamaren aberetxoak.** Pujana, Bibiñe. IKA. Euba. 22 × 19. 64 or.
- Amets uhinak.** (b) Landa, Mariasun. Elkar. Donostia. 19 × 13. 147 or.
- Amikuze.** Casenave Harigile, Junes. Gordailu. Donostia. 23 × 15. 28 or.
- Amona.** (i) Härtling, Peter / Urbistondo, David. Elkar. Donostia. 19 × 13. 94 or.
- Amonaren ipuinak. Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez.** Txotxongilo Taldea. Genua, Enkarni koord. Eusko Jaurларitza, Hezkuntza Saila. Gasteiz. 27 × 20. 122 or.
- Anfetamiña.** Montoia, Xabier. Susa. Donostia. 20 × 12,5. 80 or.
- Antonello Euskal Herrian. (Umorezko nobela).** Gereño, Xabier. Egile-editore. Bilbo. 16,5 × 11,5. 150 or.
- Arlekino, bi nagusiren serbitzari.** (i) Goldoni, Carlos / Mendiguren, Xabier. Eusko Jaurларitza. Gasteiz. 21 × 15. 98 or.
- Arpa jotzen. (Txisteak).** X.X. Argia Liburutegia. Donostia. 20 × 13,5. 126 or.
- Arpeko Mari.** Erkiaga, Eusebio. IKA. Euba. 22 × 19.
- Askatasun garratza.** (b) Urruzola eta Bitoria'tar Estanislao (Uxola). Eusko Jaurларitza. Gasteiz. 21 × 15. 66 or.
- Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik.** Urretavizcaya, Arantxa. Erein. Donostia. 20,5 × 13. 94 or.
- Aste Santua eta Pazko-aldia: Liturgi eta pastoral lagungarriak.** Euskal Elizbarrutietako Liturgia Idazkaritzak. Idatz. Donostia. 21 × 15. 107 or.
- Aupa, Aupa.** (i) Ollé, M. Angels. Prats Sobreperere, Pere / Ormazabal, Joxantonio. Elkar. Donostia. 17 × 15,5. 16 or.
- Aupa Pitufoak! Margotzeko kirol eta jolas liburua.** (i) X.X. / X.X. Timun Mas. Barcelona. 25,5 × 19,5. 48 or.
- Auto lasterketa.** (i) X.X. Ed. Beascoa. Barcelona. 13,5 × 19. 12 or.
- Axelko eta otsoko. Abereen ipuinak.** Satrustegi, Jose M. G.I.E. Donostia. 21 × 15. 152 or.
- Azken undinaren kaira.** Otamendi, Jose Luis. Ustela. Donostia. 19,5 × 11. 88 or.

- Azkoitia'ko Euskal Erri ertiarekiko miaketa saioa. Eraikitza - Zinzelkaritza - Margolaritza. Ensayo crítico en torno al arte popular vasco en Azkoitia. Arquitectura - Escultura - Pintura. (e) Arambarri Etxaniz, Simón. C.A.P. Donostia. 20 × 14. 468 or.
- Baga-biga. Ariketak A.1. Goñi, J.M. G.I.E. Donostia. 20,5 × 20,5. 32 or.
- Baga-biga. Ariketak B.1. Goñi, J.M. G.I.E. Donostia. 20,5 × 20,5. 32 or.
- Baga-biga. Matematika H.Z. Bigarren erdia. Hasierako zikloa. 1. Goñi, J.M. Leoz, M. G.I.E. Donostia. 24 × 20,5. 152 or.
- Baga-biga. Matematika. Hasiera zikloa. 1. Irakaslearen gidaliburua. X.X. G.I.E. Donostia. 24,5 × 20,5. 94 or.
- Baga-biga. Matematika H.Z. Lehen erdia. 1. Goñi, J.M. Leoz, M. G.I.E. Donostia. 24,5 × 20,5. 144 or.
- Bakoitzari berea. Etxebarria Ayesta, Ramon. IKA. Euba. 22 × 19. 56 or.
- Barbantxo. Yarnoz, Sagrario. Elkar, Donostia, 22 × 23. 34 or.
- Basajaunak. Etxebarria Ayesta, Jose Ramon. IKA. Euba. 22 × 19. 48 or.
- Baso tarteko oiua. Lertxundi, Joxe Mari. Auspoa. Tolosa. 18 × 10,5. 154 or.
- Basoetako suteak. Incendios forestales. (e/i) X.X. / Oiharzabal, Lontxo. E.J. eta A.B. eta G. -ko Foru-Diputazioak, Gasteiz, 22 × 22. 30 or.
- Belea eta azeria. (i) Valeri, M. Eulali. Rius, Maria / Ormazabal, Joxantonio. Elkar. Donostia. 21,5 × 18,5. 24 or.
- Bertan ikusia. 1982ko bertsolari txapelketa. González, Maite. Uriarte, Jesus. Erein. Donostia. 25,5 × 25,5. 93 or.
- Bertolda eta Bertoldin. (b/i) Della Croce, G.C. / Otxolu (Arejita, A. moldatzaila). Labayru Ikastegia. Bilbo. 21 × 14,5. 212 or.
- Bertsolari Txapelketa. 1982. Bertsolariak. Arana Martija, Jose Antonio. Euskaltzaindia. Bilbo. 20,5 × 13. 428 or.
- Bertsolari-kurpilla. Garmendia, Txomin. Auspoa. Tolosa. 18 × 10,5. 150 or.
- Berunezko soldadutxo. (i) Andersen, H.C. Gabán, Jesús / Ormazabal, Joxantonio. Elkar, Donostia, 19 × 17,5. 32 or.
- Biblia. Jondoni Pauloren Gutunak. (i) Etchehandy, Marcel. Puchulu, Robert. Elkar. Donostia. 22 × 16. 224 or.
- Biblia. Neska-mutikoei esana. (i) Saenz Uranga, Jose Ramon / Mendiguren, Xabier. Edinorte. Donostia. 21 × 15. 140 or.
- Bigantxaren ordaina. Yarnoz, Sagrario. Elkar. Donostia. 22 × 23. 34 or.
- Bizi garen planeta. El planeta en que vivimos. (e/i) X.X. / Oiharzabal, Lontxo. E.J. eta A.B. eta G. -ko Foru-Diputazioak, Gasteiz. 22 × 22. 30 or.
- Biziaren olerkia. Iratzeder. Gero-Ediciones Mensajero. Bilbo. 22,5 × 15,5. 654 or.
- Bizkaieraren Idatzizko Arauak. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 26 × 20. 128 or.
- Bordaberri'ko gozo-mikatzak. Garmendia, Txomin. Auspoa. Tolosa. 18 × 10,5. 190 or.
